


INGURUMEN ADMINISTRAZIO ETA LEGERIA

1. gaia. **ZUZENBIDEA, ESTATUA ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOA.**
2. gaia. **INGURUMENAREN BABES JURIDIKOA. INGURUMEN ARLOKO ESKUMEN BANAKETA. INGURUMEN ZUZENBIDEAREN PRINTZIPIOAK.**
3. gaia. **ADMINISTRAZIOAREN ESKU HARTZEKO MODUAK INGURUMEN BABESEAN.**
4. gaia. **HERRITARREN ESKUBIDEAK INGURUMEN ARLOAN.**
5. gaia. **INGURUMEN-ERANTZUKIZUNA.**
6. gaia. **PLANEN ETA PROIEKTUEN INGURUMEN-EBALUAZIOA.**
7. gaia. **ERREGULAZIO, MUGAPEN ETA KONTROL TEKNIKAK.**
8. gaia. **KUTSADURAREN OSOTASUNEZKO KONTROLA.**
9. gaia. **EKOAUDITORIA ETA EKOETIKETA.**
10. gaia. **INGURUMEN ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEARI DAGOZKION BESTE ESPARRU BATZUK.**

1.gaia. ZUZENBIDEA, ESTATUA ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOA.

GARATZEKO GALDERAK

- Zeintzuk dira Estatuaren botereak eta zein funtzio dituzte?



- Oinarrizko eskubideak Konstituzioan. Zeintzuk dira 3 multzoak? (izena eta bakoitzeko adibide bat), zein da bakoitzaren babes-maila (14-29, 29tik hurrengo multzoa, eta beste multzoak ere, lege arruntak)

Konstituzioa arau-sistemaren oinarrizko araua da eta zuzenbide-iturrien goreneko maila du, 1978. urtetik dago indarrean Espainiar estatuan. Bertan **oinarrizko eskubideak eta betebeharrak** garatzen dira. 10. artikulua pertsonaren duintasuna eskubide guztien iturri bezala jartzen du, bertan, pertsonari berez dagozkion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen librea, legearen errespetua eta besteen eskubideen errespetua oinarri dituzte ordena politikoak eta gizarteko bakeak azaltzen dira.

Espainiako Konstituzioak **hiru multzotan** banatzen ditu eskubideak, eta multzo horietako bakoitzari **babes-maila ezberdina** eman dio.

1. **“Oinarrizko eskubide eta askatasun publikoak” (II. Kapituluko 1. atala):** Bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta moralaren eskubidea (tortura eta heriotza zigorraren debekua) (15. artik.)

Garrantzi handiena duten eskubideak izanik, oinarrizko eskubide eta askatasun publiko hauek babes berezia daukate. Eskubide hauek Estatuko lege organikoz arautu beharko dira euren funtsezko edukia errespetatuz.

2. **“Herritarren eskubideak eta betebeharrak” (II. Kapituluko 2. atala):** Espainia defendatzeko eskubide eta betebeharra (30. art.)

Eskubide konstituzional hauek ez dira hain garrantzitsutzat hartzen eta Estatuari ez zaio hauek bermatzeko aurreko kasuan bezain besteko konpromiso maila bera ezartzen. Nahikoa da lege arruntan bidez arautzea euren funtsezko edukia errespetatuz.

3. **“Politika sozial eta ekonomikoa gidatzeko printzipioak” (III. Kapitulua):** Ingurumen egokiaren eskubidea (45. art.);

Printzipio hauen edukia eta norainokoa zehaztea legeen esku uzten da. Historikoki, eskubide berriak dira baina gehienbat arau programatikoak dira, arau-indarra ahulduta daukatenak.

- **Administrazio Publikoa zein botereren barnean sartuko litzateke? (exekutiboa, azaldu zergatik geratzen den bertan gobernuari esleitzen zaiolako?). Zeintzuk dira bere eginkizun mota nagusiak? (kontrola...) eman adb. bat eginkizun bakoitzeko.**

BOTEREA: Administrazio Publikoa erakunde zabal eta konplexua da, bere eginkizunak interes publikoaren kontzeptuari lotuta daude. Administrazioaren jarduteko modua ez da askea, prozedurei lotutakoa baizik. Botere Exekutiboan integraturik dagoen antolakuntza da, izan ere, bi subjektu bereizten dira Botere Exekutiboaren barnean: Gobernua eta Administrazioa. Aurretik esan bezela, interes publikoak objektibotasunez gauzatzera zuzendua dago. Legearen eta zuzenbidearen arabera jardun behar du. Ondorioz, Gobernuaren eta Legezketasun printzipioaren (Justizia auzitegiak) menpe dago. Eta gainera, interes publikoekiko mendekotasuna dauka.

EGINKIZUNAK:

- Polizia eta ordena jarduera: helburua da ordena publikoa eta segurtasuna zaintzea, termino horiek duten adierarik zabalenean. Adibidez, Ingurumena babesteko baimenak, zigorrak...
- Zerbitzu publikoko jarduera: ez du esan nahi botere publikoak monopoliozko zerbitzua eskaini behar duenik. Pribatuak ere badaude. Adibidez, hezkuntza, emakidak (kontzesioak)
- Sustapen-jarduera: Norbanakoen jarduerak sustatzea, interes orokorra kaltetu gabe. Esaterako, diru laguntzak.

- **Azaldu administrazio egintza eta erreglamenduaren arteko ezberdintasunak.**

ADMINISTRAZIO EGINTZA: Administrazioaren erabaki betearazlea da, ahal baten erabileraren ondoriozkoa. Hartzaile zehatzari zuzendua dago, ez da arau juridikoa eta ez da publikatzen. Betetzearekin agortzen dena.

ERREGLAMENDUA: Hartzaile orokorrari zuzendua dago eta arau juridikoa da. Publikatzea beharrezkoa da eta ez da agortzen betetzearekin.

- **Zer esan nahi du administrazio publikoak legezketasun printzipioa jarraitu behar duela?**

Administrazioak ahal publikoak erabiltzean legezketasun printzipioarekin bat jardun behar du; hau da, Administrazioak legeak agertzen dizkion baldintzen menpe jardun behar du. Edozelan ere, egia esan, legeak Administrazioari egotzitako ahal zehatz guztien inguruabar guztiak aldeztu aurretik ezartzeko ezintasuna agerikoa da. Hori horrela izanik, Administrazioak askotan legeak baliatzean diskrezioz jokatzeko ahalmena izango du.

2.gai. INGURUMENAREN BABES JURIDIKOA. INGURUMEN ARLOKO ESKUMEN BANAKETA. INGURUMEN ZUZENBIDEAREN PRINTZIBIOAK.

2.1. INGURUMEN KONTZEPTUA ETA LEGEAREN XEDEA.

Ingurumenaren babesa Euskadin 10/2021 LEGEA, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena -ren bidez arautzen da. Bertatik hiru ideia nagusi atera ditzazkegu ingurumenaren kontzeptua ulertzeko:

1. Ingurumena gizakiarekin lotuta dago.

Zer da? Gizakia bizi den ingurunea da, non bere bizitza eta pertsonalitatea garatzen dituen.

Zer hartzen da kontuan? Ingurumen kontzeptuak giza bizitza baldintzatzen duten faktore guztiak; naturalak, sozialak, ekonomikoak, kulturalak etab.

Jurisprudentziak dio: 102/1995 Sententzia, Konstituzio Auzitegiarena:

- a. Ingurumena era zabalean definitu zuen: Baliabide naturalak ez ezik, gizakiaren ingurunea eta bere bizitza kalitatea baldintzatzen duenak ere osatzen du ingurumena. Ingurumenaren esparruan ingurune fisikoko elementuak (urak, lurzorua, atmosfera, kostak, espazio naturalak, fauna eta flora); ingurumenari eragiten dioten faktoreak (hondakinak, isurketak, zaratak, substantzia kimikoak, etab); eta gizakien jardueren arriskuak batzen dira.
- b. Ondorioz: Ingurumen kaltetzat jo behar dira zein naturako elementuetan eragiten direnak zein herritarren osasun edo ongizatean eragiten dizkienak (zarata, usaina...).

2. Garapen jasagarriaren edo iraunkorraren ideia.

Zer da? Hazkunde ekonomikoaren eta ingurumenaren zaintzaren arteko oreka dinamikoa. Baina oreka horretan bestelako interesak sartzen dira jokoan, hots, interes pribatuak (gehienetan ekonomikoak).

Nola konpondu gatazka? Auzitegiek ingurumen interesaren eta interes ekonomikoaren arteko oreka zaintzea dute helburu. Proporzionalitate printzipioa aplikatu behar dute.

3. Erantzukidetasuna

Zer da? Komunitate osoak du ingurumen-kudeaketaren erantzukidetasuna. Eskubide eta betebeharrak onartzen zaizkie bai Administrazio Publikoari eta bai herritarrari.

Nola gauzatzen da? Ingurumen zeharkakoa denez, erantzukidetasunean oinarritu behar da. Hau da, administrazio guztien esku-hartzea ez ezik, eragile sozial, ekonomiko, zientifiko-teknologiko eta, herritarren parte-hartzea ere eskatzen du.

Jurisprudentziak: 102/1995 Konstituzio Auzitegiak: "titulo transversal" moduan izendatu zuen.

Ingurumen zuzenbideari dagokionez, gorputz juridiko gisa, hainbat diziplina juridiko edo zuzenbide arlo elkar lotzetik osatzen da. Garrantzitsuenak zuzenbide zibila, penala, nazioartekoa, zerga-zuzenbidea, konstituzio-zuzenbidea eta Administrazio Zuzenbidea dira. Guretzat inportanteena Administrazio Zuzenbidea izango da, izan ere ingurumen babesa funtzio publikotzat hartzen da eta Administrazioak baliatzen ditu ingurumena babesteko zuzenbidearen teknika garrantzitsuena.

Ingurumen Zuzenbidea osatzen duten arau juridikoen xede orokorra ingurumenaren babesa da eta horrek baliabide natural guztiak hartzen ditu bere baitan: airea, ura, zorua, espezie bizidunak eta ekosistema osatzen duten elementu guztiak, bai eta haien arteko erlazioak eta gizakiarekikoak aintzakotzat hartzen ditu.

Euskadiko Legearen helburuak 1. Artikuluan agertzen dira:

1. artikulua.– Xedea. Lege honen xedea da, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko, kontserbatzeko eta hobetzeko arau esparrua xedatzea, pertsona fisiko zein juridikoek izango dituzten eskubide zein betebeharrak finkatuz, honako helburu hauek betetze aldera:

- a) Herritarrak ingurumen-presio eta arriskuetatik babestea.
- b) Ingurumena babestea, haren narriadurari aurrea hartzea eta kalteak izan dituen tokian lehengoratztea.
- c) Baliabideak modu eraginkorrean kudeatzea, ekonomia jasangarria, zirkularra eta hipokarbonikoa sustatuz.
- d) Berotegi-efektuko gasak murrizteko anbizio handiko neurriak ezartzea, Parisko Akordioa eta klima-aldaketaren aurkako borrokari buruzko beste xedapen batzuk betetzeko.
- e) Ingurumenaren babesean alderdi publikoaren eta pribatuaren arteko erantzukidetasuna sustatzea.
- f) Ingurumen Administrazioaren funtzionamendua arintzea, prozedura administratiboak sinplifikatuz eta bateratuz, ingurumenean eragina duten jardueretan esku hartzeko teknikak arautuz, eta, betiere, bertan xedatutako baldintzak eta eskakizunak txertatuz.
- g) Lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren jarduerak zaintzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko mekanismo eraginkorrak ezartzea.
- h) Ingurumen-arloko informaziorako sarbidea zein parte-hartze publikoa eta justiziarako sarbidea bermatzeko mekanismo eraginkorrak ezartzea.
- i) Ingurumenean eragina duten jardueren antolamenduan eskumena duten administrazio eta organo publikoek egikaritutako eskumenak koordinatzeko beharrezkoak diren neurriak sustatzea.
- j) Ingurumenari buruzko ezagutza- eta informazio-oinarria hobetzea.
- k) Hezkuntza-maila guztietan ingurumen-hezkuntza bultzatzea, bai eta herritarren eta eragile sozialen kontzientziazioa ere, ingurumena babesteari eta hobetzeari dagokienean.
- l) Ingurumen-garapen jasangarria bermatzea, nazioartean onartzen diren garapen jasangarrirako helburuak lortzen lagunduz.

Arlo honetan 2 motatako arauak aurki ditzazkegu:

- **Arau horizontalak edo zeharkakoak.** Arlo (sektore) edo jarduera esparru ezberdinetan aplikatuko direnak ingurumena babesteko (ingurumen-ebaluazioa, ingurumen-erantzukizuna, enpresen kudeaketa ekologikorako teknikak...).
- **Arau sektorialak edo arlo bateko arau espezifikoak.** Elementu jakinak babesteko (atmosfera, ura, natur guneak...) edo agente kutsatzaile edo ingurugiro arazo jakinak arautzen dituztenak (hondakinak, lurzoru kutsatuak, substantzia toxikoak...). Arau-sektore espezifikoek batzuetan babestu nahi den natur baliabidearen araberakoak dira (aireari, urari, zoruari, florari buruzko arauak); beste batzuetan, ingurumenaren aurkako erasoen forma da irizpide (gasak, hiri-hondakin solidoak, hondakin toxikoak eta arriskutsuak, energia atomikoa, zarata...) eta beste batzuetan poluzioa sortzen duten eragileak (erregaien erabilera, motoredun ibilgailuak, itsasontziak...).

Nazioartean ingurumen zuzenbidean gertatu diren momentu garrantzitsuak:



Azkenik, Autonomi Erkidegoen araudi hauek, lehenenik eta behin, Europako araudietara lotu behar dira, ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazioa, kutsaduraren kontrol integratua, hondakin-kudeaketa, airearen kalitatearen babes, ekoikuskapen-sistemak eta ingurugiro-kudeaketa, eta ingurugiroari buruzko informazioa izateko eskubidea, arautzen dituzten araudietara. Eta, bigarren, Estatuan indarrean dauden araudietara lotu behar dira, ingurugiroaren gaineko eraginari, hondakin toxiko eta arriskutsuen kudeaketari, sailkatutako jardueri, biodibertsitateari eta itsasbazterren eta lehorreko uren babesari dagokienez.

2.2. INGURUMEN ARLOKO ESKUMENEN BANAKETA

Estatua lurraldetasun aldetik erakunde publiko ezberdinen artean antolatzen da (Estatua, Autonomia Elkartek, Lurralde Historikoak eta Udalak). Ingurumen arloan nori dagokio eskumena?

Arlo edo gai bati dagokion eskumenetan hiru funtzio ezberdin ditzakegu:

1. Oinarrizko legedia onartzea: Gai baten funtsezko edukia edo ezinbesteko muina ezartzea)
2. Garapen legedia onartzea: Oinarrizko legediak ezarritako ezinbesteko muin hori garatzea, zehaztea eta osatzea
3. Legedia exekututzea edo betearaztea: baimenak eman, ikuskapenak egin, legedia hausteagatik zigortzea...

Konstituzioko 149.1.23 artikulua ingurumen babeseko oinarrizko legedia onartzeko eskumena Estatuari aitortzen dio, eta Autonomi Elkarrekin oinarrizko legedia hori garatuz arau osagarriak emateko eskumena onartzen die, baita ere babes maila handitzen duten arauak egiteko ahalmena ere. Horrela, Estatuak arlo hauetan eman izan ditu legeak besteak beste: hondakinak, ingurumen gaineko ebaluaketa, ingurumen baimen integratua, atmosfera, zarata, ingurumen erantzukizuna eta informazioari buruzko eskubideak. Eta Autonomi Elkarrekin batetik, Estatuko lege horiek gehiago garatuz arauak eman ditzakete, eta bestetik, euren lurraldean babes maila handitzen duten arauak eman ditzakete.

Bestalde, Autonomi Elkarrekin ingurumen arloko kudeaketa eta exekuzioa dagokie (adibidez Parke Nazionalen legea Estatuarena da, baina parke nazionalaren kudeaketa Autonomi Elkarrekin dagokio).

Euskadiko Autonomi Elkarrekin eskumenak	Euskadiko Autonomi Estatutuak 11.1e) artikulua Autonomi Elkarrekin onartzen dio ingurumen eta ekologia arloan legeak garatzeko eta burutzeko eskumena duela. Horrela, 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra onartu zuen. Bestalde, eskumen betearazlearen ondorioz, Euskadiko ingurumen baimen integratuak, garraio baimen bereziak, isurketen baimenak, edo enpresak ikuskatu edo zigortu ahal izango ditu.
Lurralde Historikoen Foru eskumenak	Lurralde Historikoen 27/1983 Legearen arabera, ingurumen arloa ez da foru eskumenen artean barne hartzen, baina zehazkiak dituen arloko eskumenak dituzte. Foru erakundeek eskumen eskusiboa dute errepide eta bideen arloan; garapen eta burutzapenerako eskumenak landareen osasunean, mendian, nekazaritza lurzoruetan, ehizan, ur publikoen zaintzan... Gainera, espazio naturalak administratzeko, suteen aurka babesteko eta neurri zuzentzaileak finkatzeko eta hiri-lurzoruan lizentziaren gaineko ikuskapen eta zigortzeko eskumen betearazleak dituzte aldi berean.
Tokiko eskumenak (Udal eskumenak)	Udal administrazioek ardura garrantzitsuak dituzte ingurumenean, euren udalerrien intereserako arazoak baita. Horrela lege sektorialekin ezartzen dizkieten funtzioak beteko dituzte. Ingurumen babes berezkoa duten eskumena da, eta gainera, tokiko korporazioek ingurumen zerbitzu batzuk derrigorrez eman behar dituzte: hirigintza arloko planak onartu, osasungarritasun publikoa, parke eta lorategi publikoak, hiriko hondakinen bilketa eta kudeaketa, kale-bideen garbiketa, edateko uraren etxeko hornidura, hondakin-uren ebakuazioa eta tratamendua, estolderia, . Espresuki 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek hiri ingurumenaren babes arduratu beharko dute. Kasu askotan, zerbitzu batzuk jartzearen kostu ekonomikoa dela eta, Udalek probintziako diputazioen laguntza behar dute edo udalak elkarren artean lankidetzan aritzen dira Udal Mankomunitate edo Partzuergoen bidez zerbitzu hori emateko (hiri hondakinen bilketa eta tratamendua, ur zikinen arazketa, kalegarbiketa...).

***Europar Batasuneko ingurumen zuzenbidea.**

Europako Komunitateetako Tratatueta hasiera batean ez zegoen ingurumen eskumenaren oinarririk, eta halere, ingurumen ekintza eta politikak bultzatu ziren. 1986ko Europako Agiri Bakarretik aurrera ingurumena espresuki eskumen komunitarioa izango da. Gaur egun, Lisboako Tratatuan (2009ko abenduaren 1etik indarrean), garapen iraunkorra Europar Batasuneko misioa da eta aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzea du helburuen artean. Europako Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak, zeinek balio juridiko loteslea duen, ingurumen babesa Batasuneko politiken printzipio gidaria bezala aitortzen du eta Europako Batasuneko Funtzionamendu Tratatuaren arabera, ingurumen eskakizunak gainerako politika publikoetan txertatu behar dira.

Ingurumen eskumena Europar Batasunaren eta estatu kideen arteko eskumen partekatua da. Europar Batasunak ingurumenaren babeseko arloetan hainbat eta hainbat direktiba/zuzentarau onartu ditu. Dena den, eskumen partekatua izaterakoan, ordezkotasun (subsidiaritate) printzipioa sartzen da jokoan. Horrek esan nahi du, Europako instituzioek esku hartzeko ondokoa justifikatu beharko dutela: Estatu kideek ekintzaren helburuak ez dutela egokiro beteko –ekintzaren tamaina edo eragina dela eta- eta helburuak hobeto beteko direla Batasunak bere eskalan esku hartzen badu.

Europako Batzordeak zuzenbide komunitarioaren betearazpena zaindu eta kontrolatuko du. Europar Batasuneko ingurumen zuzenbidea urratzen bada edo Estatu batek Europako direktiba bat bere barne ordenamenduan oraindik sartu ez badu, Europako Batzordeak arau-haustearen prozedura bati hasiera emateko ahalmena du. Batzordearen ikuskapena herritar eta erakundeek egindako salaketan ondorioz has daiteke. Batzordeak dei-gutun bat egingo dio estatu kideari, eta bertan adieraziko dio bere ustez zuzenbideko zer oinarriren arabera ez duen betetzen Estatuak Europar Batasuneko Zuzenbidea. Estatuari entzun ondoren, hala badagokio, Batzordeak “diktamen/irizpen arrazoitua” egin beharko du, eta arau-hausteari amaiera emateko epea emango dio. Epea amaitu denean, Batzordeak ez-betetzearen ondoriozko errekurtsioa planteatu diezaioke Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari. Auzitegiak Europako Zuzenbidea betearazi ez ezik, Estatuaren erantzukizuna aitortu dezake eta isunak ezar diezaizkioke. Egia esan, ingurumen arloan Europako Zuzenbidea kasu askotan ez da bete izan eta Europako Batzordea eta Auzitegia estatu kideen atzetik ibili behar izan dira.

Azkenik, aipatu behar da Estatuak epaile batek Europako Zuzenbidearen interpretazioari buruzko zalantza bat badauka, bereziki Ingurumenari buruzko direktiba bati buruzkoa, Auzitegiari judizio aurreko arazoa planteatu diezaiokeela, eta Auzitegiaren sententziak arau argitu eta zehazterakoan epaile guztiak hala aplikatu beharko dute aurrerantzean.

2.3. INGURUMEN ZUZENBIDEAREN PRINTZIOAK

Oro har, hiru motatako printzipioak bereizi daitezke Ingurumen Zuzenbidean:

1. **Ingurumen Zuzenbidean osotasunean kasu guztietan jarraitu beharreko printzipio orokorrak:** iraunkortasuna, prebentzioa, kautela/zuhurtzia, zuzenketa, kutsatzen duenak ordaintzen du eta atzeraezintasuna.
2. Sektore eta Zuzenbideko adar ezberdinetan aplikatzen diren oinarriko printzipioak
3. Ingurumen-errealitate zehatzetan aplikagarri diren berariazko printzipioak.

PRINTZIOAK	
Iraunkortasuna edo jasangarritasuna	Politika publiko gisa funtzionatzen du. Hazkunde ekonomikoaren eta ingurumenaren zaintzaren arteko oreka dinamikoa.
Prebentzioa	Ingurumenaren gaineko kaltea saihestu nahi du, eta kaltea bera sortu aurretik egin nahi du; hori ezinezkoa bada, kaltearen ondorioak gutxiagotzen eta heda dadin saihesten saiatuko da.
Kautela/zuhurtzia	Ingurumenerako arriskutsuak izan daitezkeen jarduerak egitea debekatuko edo murriztuko da, horren probabilitate hutsa baldin badago, eta ez da beharrezkoa kaltearen arriskuaren oinarri zientifiko ukaezinak egotea.
	<i>Prebentzio printzipioaren eta kautelazko edo zuhurtziaren printzipioaren arteko desberdintasunak:</i> Prebentzio printzipioaren arabera, arrisku ezagunen aurka neurri prebentiboak hartzen dira eta kautelazko/zuhurtziaren printzipioaren arabera, arrisku ezezagun edo posibleen aurka hartzen dira neurri prebentiboak.
Zuzenketa	Aurretiazko fase guztiei jarri beharko zaie arreta, eragindako kaltearen benetako kausa antzeman eta zuzendu arte. Zuzenketa “lehentasunez iturburuan” egin behar da; hau da, jardun kutsatzaile oro bere sorburutik ahalik eta hurbilen zuzendu behar da.
Kutsatzen duenak ordaintzen du	Ekintzaren arduradunari edo eragileari dagokio eragindako kalteak konpontzeko betebeharra eta sortutako kutsaduraren kostuak ordaintzeko betebeharra.
Atzeraezintasuna	Araudietan ordu arte lortutako ingurumen babes lorpenak babestu behar dira, eta babes mailan ez da atzera bueltarik edo gutxitzerik onartzen.

3.gai. ADMINISTRAZIOAREN ESKU HARTZEKO MODUAK INGURUMEN BABESEAN

Administrazioak ingurumena babesteko esku hartzean tresna ezberdinak erabiltzen ditu. Horien artean: arauak, plangintza, lurraldearen antolamendua, hirigintza, adostasunezko jarduerak, sustapena, ikuskapena, zehapen-ahalmena, koordinazioa...

3.1. ARAUAK EGITEA

Botere publikoek ahalmen araugilea dute eta gizarteko arlo ezberdinak erregulatzeko joera dago, beti ere partikularrek beren eskubideak baliatzea ezinezko bihurtu gabe. Izan ere, legeek Konstituzioak aitortutako eskubideak eta askatasunak errespetatu beharko dituzte. Horrela, enpresa eskubidea ezingo da erabat ukatu inoiz eta Administrazioak herritarrei industri jarduera kutsatzaile bat martxan jartzeko baimena eman beharko die. Dena den, horretarako jarduera kutsatzaile hauek baldintza batzuk bete beharko dituzte; eta bai baldintza horiek zeintzuk diren bai baimena emateko inposatuko diren neurri zuzentzaileak eta prozedurak, arau bidez erregulatuko dira.

Gero eta ingurumen arau gehiago dago, eta ez da erraza arau guzti horiek kontrolatzea. Gainera, aipatu izan dugunez, arau horiek eskudun administrazioei ezberdinetatik datoz eta behin eta berriz aldatzen dira teknologia berrien bilakaerarekin bat. Gainera, kasu askotan arauak anizteak ez du politika zuzenagoa bermatzen, ez badira behar bezala aplikatzen. Arauak abian jartzeko hainbat bitarteko eta baliabide jarri behar da, tartean ahalmen zehatzaile edo zigortzailea, bestela aginduak hutsalak izan daitezke. Hori bai, zehapen-arau amaigabeen arabera hasitako zigor espedienteak eramateko funtzionariokopurua handitzea eskatuko luke (hain justu, langile publikoen kontratazioa murriztu den garai batean) eta politikoki benetan zigortzeko borondatea.

Arauek lege maila izan dezakete botere legegileak ematen dituenean, eta ondoren lege horiek erregelamendu bidez osatzen edo garatzen dira zeintzuk gorako legea errespetatu beharko duten inolaz ere aldatu edo aurkatu ezinik. Behin eta berriz aipatu bezala, gainera Estatuko legeak eta erregelamenduak eta Autonomi Elkarteak solapatu egin daitezke eta batzuk zein besteak aplikatu behar dira. Esaterako, Espainiako Parlamentuak Zaraten Legea onartu zuen eta lege hori garatzeko Espainiako Gobernuak egindako Errege-Dekretu batzuk daude. Aldi berean, Euskadiko Autonomi Elkarteak Euskadiko Kutsadura Akustikoaren Dekretua onartu du. Araudi horiek guztiak kontuan hartu behar dira.

3.2. PLANGINTZA (planak, programak, estrategiak ingurumenarekin lotutakoak)

Plangintza denboran eta espazioan bideratzen diren jardun-multzo bati dagokio, eta plangintzaren bitartez jardun horiek nola eta noiz egingo diren programatzen da helburu jakin batzuk lortzeko. Plan batzuk betebeharreko arauak dituzte, adibidez erabilera batzuetarako lurzorua erabiltzeko debekua (Natur Parkeak Erabili eta Kudeatzeko Planak). Beste plan askotan ez dira zuzenean arau betebeharrekoak ezartzen, baizik eta gida edo orientazio batzuk jasotzen dira eragile publikoek eta pribatuek eremu batean nola jokatu behar duten jakin dezaten.

Plangintzak oso lotura estua du aurrekontuekin; izan ere, herri-administrazioek planen bitartez helburuak lortzeko behar dituzten baliabide finantzarioen aurreikuspena egin dezakete. Horregatik, planek memoria ekonomiko bat izaten dute, eta bertan aurreikusiko da Administrazioak ekintzak betetzeko behar duen dirutza ekonomikoa egitasmoen bideragarritasuna frogatzeko.

Plangintzak ingurumen ebaluaziora lotuta daude. Horrela, legeriaren arabera sektore batzuetako plangintzaren ingurumen eragina ebaluatu behar da, ingurumen eragina murrizteko aukera onenak edo neurri zuzentzaileak aztertzeko. Ingurumen Ebaluazio estrategiko horietan herritarren partaidetza bermatu beharko da.

***Lurralde antolamenduko eta hirigintza-planak:**

Ingurumen plan eta lurralde antolamenduko planen artean ez dago hierarkia garbirik, baina ingurumen babesaren funtzioak lehenetsuak izan behar du eta udalerrietako hirigintza planak lurralde antolamenduko planen menpe egongo dira beti. Autonomi Elkartek guztiak dauzkate euren lurralde antolamenduko lurraldea nola antolatu behar den gidatzeko.

Euskadiko Autonomi Elkartaren Lurralde Antolamenduari dagokionez, hiru motatako lurralde antolamendu planak daude:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (arau eta irizpide orokorrak)
2. Lurraldearen Zatik Planak (Eremu Funtzionaletan)
3. Lurralde Plan Sektorialak (sektore edo arlo berezietan)

Lurraldearen Zatik Planak eta Lurralde Plan Sektorialek Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak errespetatu beharko dituzte. Eta Udalerrien Hirigintza-planek Lurralde Antolamenduko plan guzti horien menpe daude.

***Hirigintza-planak:**

Udalerrri guztiak Hirigintzako Plan Orokorrak onartu behar dituzte. Hirigintzak herri edo hiri mailan lurzoruen erabilerak antolatzen ditu. Hirigintza planifikazioaren bidez, udalek lurzoruak sailkatzen dituzte (hiri-lurzoru, lurzoru urbanizagarri eta lurzoru urbanizaezina bezala) eta lurzoru-mota bakoitzean onar daitezkeen erabilerak zehazten dira. Hirigintzaren xedea ez da zuzenean ingurumena babestea, baina herritarren bizikaltateaz kezkatzen denez, ingurumenerako positiboa izan daiteke. Adibidez, lurzoru urbanizaezinean etxebizitzak eraikitzea debekatzen da, nekazaritza edo abeltzaintzako erabileretarako direnean izan ezik. Plan Orokorrak aparte, ingurumena babesteko helburuetarako Plan Bereziak egin ditzakete (natur guneak, paisaia, ingurune fisikoa, landa-ingurunea edo energia hornitzeko azpiegituren plan bereziak) eta ingurune fisikoko elementuak katalogatu eta kontserbatzeko neurriak ezarri ditzakete Katalogo berezietan.

3.3. JARDUERA KONBENTZIONALA

Administrazio publiko eta eragile ekonomiko eta sozialen arteko akordio edo hitzarmenak: Herri-administrazioen eta herritarren artean akordioak egin ditzakete ingurumen babeseko neurriak ezartzeko. Hau da, Administrazioak bere indarra erabili gabe, eragile pribatuekin lankidetzan jardun dezakete. Horrela, elkarte eta fundazioekin akordioak eta hitzarmenak egiten dira korridore ekologikoak egiteko edo espeziak katalogatzeko.

Bestalde, Ingurumen arloko Euskadiko Legearekin bat (19-21. Artikuluak), ingurumen prozedurak administrazio eskudunaren eta partikularren arteko hitzarmenaz amaitu ahal izango dira, betiere transakzioaren xede ezin izan daitezkeen gaiak buruzkoak ez badira (adibidez, baimena behar duen jarduera edo establezimendu baten neurri zuzentzaileak ezin dira negoziatu, beste herritar batzuk kaltetu baitaitezke).

3.4. SUSTAPENA

Administrazioek esku hartzean **ekintza positiboko neurriak** eta sustapen-politikak hartzen ditu, batez ere diru-laguntzen bidez. Administrazioak eragile pribatuei eta enpresei diru-laguntzak edo funtsa publikoak eskaintzen dizkie teknologia hoberenak erabili ditzaten edo baliabideak kontserbatzeko helburua duten irabazi asmorik gabeko elkartei diru-laguntza ematen diete.

Hori bai salbuespenak salbuespen, diru-laguntzen araubide-juridikoko baldintzak errespetatu beharko dira:

- Diru-laguntzak araubide aurrekusi beharko dira eta horien publikitatea egin behar da;

- Baldintzak eskatzaile ororentzat berberak behar dute izan;
- Eskaeren balorazioak meritu eta gaitasun printzipioak jarraitu behar ditu;
- Dirulaguntzak ematean gardentasunez eta objektibotasunez jardun beharko da.

Diru-laguntzetan kontuan hartu behar dira Europar Batasuneko lehia-askearen arauak. Hasiera batean, enpresentzat banakako diru-laguntzak ematea debekatuta dago merkatuko lehia-baldintza berdinak mantendu behar baitira. Agintaritzak ongi aski kasuan kasu justifikatu behar dute interes orokorrerako beharrezkoa eta proportzionala dela diru-laguntza eta ekonomi merkatuaren inguruabarrean ez dela operadore bat arbitrarioki mesedetzen.

Adibidez: *Garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-entitate batzuei, toki-erakunde autonomoei, tokiko garapen-agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei diru-laguntzak. Eskolako 21 Agendaren eta Tokiko 21 Agendaren arteko koordinazioa sustatzen duten ekintzak.*

Bestelako sustapen teknika bat abantaila edo onura fiskalak ematea da (desgrabazio edo pizgarri fiskalak).

Sustapen neurri positibo hauen ondoan, sustapen teknika negatiboak daude. Horren bitartez, ekidin nahi diren jardueren oztipoak eta kargak gaineratzen zaizkie. Horrela, Ingurumen zergak edo zerga ekologikoak ezar daitezke, “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioarekin bat, ingurumen kalteen kostu soziala produktuen eta zerbitzuen prezioetan igarri behar da eta kutsatzen duten eragileengan.

3.5. KONTROLA ETA IKUSKAPENA

Jarduera edo proiektu batzuk martxan jarri aurretik, ingurumen eraginaren ebaluazio bat egin beharko dute eta Administrazioak eman beharreko baimena behar dute. Ingurumena kutsatzeko potentzial handia duten industriak badira, ingurumen baimen bateratua lortu beharko dute. Jarduera arinetan aurretiazko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena nahikoa.

Administrazioak ingurumen eragina sor dezakeen pertsonen eta erakundeen gertaerak edo portaerak egiaztatu behar ditu, araua betetzen den egiaztatzeko. Behin jarduera bat martxan jarrita, inposatutako neurri zuzentzaileak betetzen jarraitzen direla ikuskatu behar du.

Ikuskapen-funtzioa berez langile publiko batek egin behar du, eta ondorio horietarako agintari publikoaren izaera izango du. Zenbait kasutan, Administrazioarekin lankidetzan dihardute enpresa edo erakunde pribatuak ikuskapena egiteko (Ibilgailuen ITVan adibidez). Edozein kasutan, agente pribatu hauek exekuzio eta egiaztapen materialak bakarrik egin ditzakete, eta Administrazioari dagokio administrazio ahalmenak erabiltzea, hau da, zigorrak jartzea edo jarduerak geldiaraztea.

Ikuskapen-bisita bakoitzaren akta egingo da, eta bertan irregulartasuneko gertaerak deskribatuko dira. Ikuskatuak akta hori aztertu eta oniritzia eman ez sinatu dezake. Edozein kasutan, akta horiek iuris tantum baliogarritasun presuntzioa dute, eta hortaz aurkako probak onartzen dituzte. Ikuskapenak pertsonen oinarritzko eskubideak errespetatu beharko ditu, batez ere, geure intimitatea. Honela, etxebizitza batera edo jendeari itxita dagoen lokal batean sartzeko jabearen baimena edo epailearen baimena beharko da.

3.6. KOORDINAZIOA

Administrazioen arteko koordinazio funtzionala: Ingurumen arloan eskumenak eta botereak dituzten hainbat Administrazioek parte hartzen dute, eta horien artean harreman jarraia egon behar du, lankidetzan jardun behar baitute. Horrela, Alkate batek jardueraren aldeko txostena eman behar du (arrandegi bat jartzeko), baina Autonomi Elkarteko Osasun Sailak aurretik jardueraren aldeko txostena eman behar duenez, euren artean koordinatuta egon behar dute. Txostenak eskatzea administrazioen arteko koordinazio tresna edo mekanismo bat da.

Koordinazio politikoa: Ingurugiro-politikaren koherentzia bermatzeko, Autonomia Elkarteko Ingurumen Sailaren egitekoa izango da Euskal Herriko interes orokorrek eskatzen duten koordinazio-ahalmenen erabiltzea. Adibide gisa, honako baliabide eta mekanismoak izango ditu:

- a) Arauak egitea
- b) Ingurugiroari buruzko esparru-programa egitea
- c) Prozedura administratiboak erraztea
- d) Metodo eta irizpide teknikoak bateratzea
- e) Agintaritzaren desberdinen ekintza bateratua beren eskumenen esparruan
- f) Elkarri informazioa emateko sistemak ezartzea.

3.7. ADMINISTRAZIOAREN ZEHAPEN EDO ZIGOR AHALMENA (Ingurumen arau-hausteen ondoriozko administrazio zigorrak)

Aginduak, debekuak eta baldintzak urratuz gero araudiak berak ezartzen ditu ondorioak:

- Zigor penalak: Ingurumenaren aurkako jokaera larrienak delitua izan daitezke eta Kode Penalaren arabera zigortuko dira jokaera horiek. Hain zuzen, epaitegiek eta auzitegiek jarriko dituzte zigorrak.
- Administrazio zigorrak: Administrazioek ezartzen dituztenak.
- Eragindako kalteak konpontzeko eta leheneratzeko betebeharra.
- Bere kasuan, eragindako kalte ordainak ordaintzeko betebeharra.

*Administrazio zigorrak:

Herri-Administrazioek ingurumen-diziplina edo zehapen-ahalmena erabil dezakete eta partikularrei zigor bat ezarri diezaieke administrazio arau-hauste bat egin badute, betiere arau-hauste horiek lege mailako arau batean jasota badaude. Zigorra isun bat, aldikako itxiera bat, edo ofizio baterako inhabilitazioa izan daiteke.

Administrazioaren zigor ahalmenaren printzipioak:

- Legezketasun printzipioa: Lege mailako arauetan arau-hausteen zerrenda ingurumen lege berezi guztietan. Euskadiko legea eta udal ordenantzak
- Zigorra gertaeren larritasunarekiko proportzionala, baina zigorra beti lortutako onura ekonomikoa baino handiagoa
- Non bis in idem: Ezin dira bi zigor jarri, bata penala eta bestea administratiboa gertaera berberarengatik. Kasu horietan zigor larriena jarriko zaio arau-hausleari eta prozedura penalak beti lehentasuna izango du.
- Arau zigortzaile kaltegarriagoen atzeraezintasuna eta arau onuragarriagoen atzera efektuak: Arau zigortzaile berri bat ezin izango da arau hori onartu aurretik gertatutako gertaerei aplikatu arau-hauslearentzat okerragoa bada, baina bai onuragarriagoa bada.
- Errugabetasun printzipioa: Erantzuleak izan daitezke, bai pertsona fisikoak bai pertsona juridikoak (enpresak). Egilearengan dolo, kulpa edo arduragabekeria egon behar du gutxienez eta kontrakoa frogatu ezean errugabetasun presuntzioa dago.
- Prozedura bermeak: Pena edo zigor bat jartzeko legez edo erregelamenduz ezarritako prozedura jarraitu behar da. Ustezko egileari bere burua defendatzeko eta entzuna izateko eskubidea errespetatu behar zaio.

Zigor motak: isunak, establezimenduaren itxiera edo jardueraren etenak, eskubide mugapenak...

***Penal arloko zigorrak:**

Epaitegiek eta Auzitegiek jarritakoak. Administrazio zigorrekin erlazioa.

Kode Penaleko delitu tipo orokorra. Arrisku delitua da. Astungarriak eta delitu ekologiko bereziak.

Hurrengo ikasgaietan ingurumena babesteko ondorengo teknikak ikusiko ditugu:

- Ingurumena babesteko teknika horizontalak: Herritarren ingurumen-informazio eskubideak, parte hartzekoa eta justiziara heltzekoa
- Erregulazioa eta kontrol teknikak (Baliabide naturalen erabileran edo ingurumenean eragina duten jardunak baldintzatzea edo mugatzea): Proiektu, planen eta programen ingurumen ebaluazioa; Jarduera baimenak; kutsaduraren kontrol integratua/bateratua
- Plangintza teknika: Natur guneen planifikazioa; Fauna eta Floran babestutako espezien zerrendak
- Sustapen teknikak: Administrazioak berak emandako neurri positiboak (Dirulaguntza ekonomikoak edo desgrabazio fiskalak) eta ingurumenarekiko jarduera mesedegarriak egiteko edo neurri negatiboak jarduera kaltegarriak oztopatzeko (zerga ekologikoak)
- Enpresak ingurumena zaintzeko dituzten borondatezko tresnak: Erakundeen autoerregulazioa eta ziurtagiriak; Ekokudeaketa; Ekoauditoria; Etiketa ekologiko...

4.gai. HERRITARREN ESKUBIDEAK INGURUMEN ARLOAN

4.1. SARRERA

Ingurumen kudeaketaren erantzukizuna: gizarte osoa.

- Ardura eta prebentzio printzipioak. Ezezkoan, kalteordainak eskatzeko legitimazioa.

Gizartean, hiru funtsezko eragile:

1. Administrazio publikoak (ondare erantzukizuna, erantzukizun objektiboa).

EBak eta EBko Estatu kideak (1998ko Aarhuseko Hitzarmena, 2005ean Espainiako Estatuak berretsitakoa).

- Egungo belaunaldiek etorkizuneko belaunaldiekin dituzten erantzukizunei buruzko adierazpena, 1997ko azaroaren 12koa: osasuna eta ongizatea ziurtatuko duen ingurumenean bizitzen laguntzea.
 - 2003/4/CE Zuzentaraua, publikoak ingurumenari buruzko informazioa eskuratzekoari buruzkoa.
 - 2003/35/CE Zuzentaraua, ingurumenarekin loturiko zenbait plan eta egitasmo egitean publikoak parte hartzeko neurriak ezartzen dituen.
 - 1367/2006 Erregelamendua.
 - 27/2006 Legea, uztailearen 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituena.
 - 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoak eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
 - 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena (EIAL).
2. Enpresak: produktuak, prozesuak edota zerbitzuak sortzeko ardura duten erakundeak, publikoak zein pribatuak, etekina lortu nahi dutenak zein lortu nahi ez dutenak, nazionalak zein nazioartekoak (kontratu bidezko erantzukizuna, ikus. KZren 1901 art.).
 3. Herritarrek: produktu eta zerbitzuen kontsumitzaileak eta erabiltzaileak (kontratuz kanpoko erantzukizuna, ikus. KZren 1902. art.).

Erantzukizuna dagoela ebazteko: egitatea, kaltea eta kausalitate harremana.

Ingurumen arloan, erantzukidetasunarekin batera, herritarrek lege bidezko eskubide eta betebeharrak nahiz bereziak dituzte:

- Ingurumenerako eskubidea eta ingurumena babesteko betebeharra (ikus. EKren 45.1 art.).
- Osasunerako eskubidea (ikus. EKren 43.1 art.).
- Ondare eskubideak:
 - Jabetza-eskubidea (ikus. EKren 33.1 art.).
 - Enpresa-askatasuna (ikus. EKren 38. art.).
- Bizitza pribaturako (ikus. GEEHren 8.1 art.) eta ingurumena babesteko eskubidea.
- Ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko (bai eskatzeko, bai jasotzeko) eskubidea (ikus. Aarhuseko Hitzarmenaren 4. eta 5. art.k); adib., hondakinak, zaratak, substantzia kimikoak, etab.
- Parte hartzeko eskubidea ingurumenean eragina duten plan, programa eta ekintzak egiteko prozeduretan (ikus. Aarhuseko Hitzarmenaren 6., 7. eta 8. art.k, EKren 23.art. Herri akzioari buruz, ikus. KAren 15/2021 epaia, urtarrilaren 28koa).
- Benetako babes judizialerako eskubidea (justizia jasotzeko eskubidea, ikus. Aarhuseko Hitzarmenaren 9. art., EKren 24.1 art.).

Arazoa: eskubide eta betebeharrak objektiboak zein printzipio gidariak. Konponbidea: oinarritzko eskubide eta askatasun publikoetara (eskubide subjektiboetara) lotzea eraikuntza juridiko baten bitartez. Helburua: babes-errekurtsoa aurkeztu ahal izatea.

4.2. INGURUMENERAKO ESKUBIDEA ETA BETEBEHARRA

- Ez da beren-beregi ezartzen giza eskubideen nazioarteko hitzarmen garrantzitsuenetan.
- EKren 45. art.: “1. Guztiek dute eskubidea pertsonaren hazkunderako egokizko ingurune batez gozatzeko, eta baita hark iraun dezan betebeharra ere.” (# Ingurumen Zuzenbidea).

“2. Botere publikoek, berezko baliabide guztien erabilte arrazionala zainduko dute, bizitza kalitatea hobetu eta babesteko eta ingurunea berriztatu eta defendatzeko, behar beharrezko den elkartasun kolektiboan oinarrituz.”.

- EIALren 5. art.: “Lege honetan aurreikusitakoarekin bat etorrira, pertsona guztiek dute honako hauetarako eskubidea: a) Ingurumen egokiaz baldintza berdinetan gozatzeko.”.
- EIALren 6. art.: “Lege honetan aurreikusitakoarekin bat etorrira, pertsona guztiek dute honako hauetarako betebeharra:
 - a. Ingurumena babestu, zaindu eta hobetzeko.
 - b. Hondakinen sorkuntza, atmosferara egindako isurpenak, zarata, bibrazioak, hauts- eta argi-kutsadura, usainak eta uretara edo lurzorura egindako isurpenak saihestekoa edo, hala badagokio, murriztekoa.
 - c. Hala badagokio, eraldatutako ingurumena lehengoratzeko.
 - d. Lege honen aplikazio-eremuaren baitan zeinahi jarduera gauzatzeko dagokion titulu administratiboa edukitzeko, baldin eta horrek eragina badu ingurumenean eta pertsonen osasunean; eta, azkenik, jarduera hori egikaritzeko xedatutako baldintzak betetzeko.”.

Eskubide subjektiboa (betebehar juridiko baten betepena eskatzeko ahalmena)? (# eskubide objektiboa, baina badute harremana).

- EKren 39-52. art.k, gizarte eta ekonomia politikaren printzipio gidariak. Horiek lege, administrazio eta judizio jarduera informatzen dute, baina bakarrik egikaritu daitezke auzitegietan garatzen duten legeekin bat. Lege konfigurazioko eskubidea da.
- EKren 53.3 art.: “Hirugarren kapituluari aitortuak onartze, errespetu eta babesaz adieraziko du legeztapen positiboa auzi praktika eta botere publikoen ekintzak. Bakarrik aipatu ahalko dira jurisdikzio arruntaren aurrean aurrera eramaten duten legeek erabakitzen duten arabera.”.
- Ez zaie EKren 53.2 art.ko babes-errekurtsoa aitortzen (EKren 14-29 eta 30.2 art.).

Hainbat interpretazio doktrinan eta jurisprudenzian.

- Arau horiek ez dute inolako balio juridikorik; beraz, ezin dira auzitegietara eraman (legezkotasun printzipioa, segurtasun juridikoa, EKren 9.3 art.).
- Eskubide subjektibo bat aintzat hartzen du, eta legegileak zehazten du eskubide horren edukia eta zer hartzen duen barne (Jordano Fraga, 1995).

Zuzenbide pribatuaren ikuspegitik, eskubide subjektibotzat jo da (Jorda Capitán, 2001; eta Álvarez Lata, 2002), ondareaz haragoko eskubidea baita (nortasunari lotutako eskubidea); adib., bizitzarako, askatasunerako eta segurtasunerako, ohorerako, intimitaterako eta norbere irudirako, eta izenerako zein identitaterako eskubidea.

Aldi berean, eskubide kolektiboa ere bada. Helburua: ingurumenaren elementuak egokitzea, pertsonaren garapenean eragina baitute (Jorda Catala, 2001).

- Ahalmenak: prebentzio-babesa (jarduera kaltegarria eteteko ekintza) eta ordaintzeko-ahalmenak (ingurumenari egindako kalteagatiko erantzukizuna).
- Beste zibilista batzuen aburuz, kaltea ordaintzeko pertsona edo ondare bati eragin behar zaio (ez da onartzen ingurumenari).

Zuzenbide publikoak ere ondasun juridiko baten gozamen-eskubide subjektibo publiko gisa definitu du ingurumena.

- Eskubide subjektiboa den aldetik, babes judiziala behar du.
 - Botere publikoen aurrean balia daiteke: egitea edo ez-egitea eska daiteke, baita egite edo ez-egite horien ondorioz sortutako erantzukizuna ere.

Badago ingurumenerako eskubidea ulertzeko hirugarren modu bat: eskubide subjektibotzat ez ezik, funtsezko edukia duen oinarrizko eskubidetzat ere hartzea.

- Ingurumenaren egoera kaltegarriak oinarrizko eskubide eta askatasun publikoak urratzen ditu (EKren 15. eta 18. art.k; ikus. AGEren 2002ko azaroaren 18ko epaia, besteak beste.).

Ingurumenerako eskubidea # **akzio publikoa**: auzitegiara jotzeko legebideztaketa (aktiboa) errazten du, irabazteko asmorik gabeko edozein pertsona juridikok egikaritu dezakeelako legebideztaketa berezirik gabe [27/2006 legearen 22. art.; # eskubide edo interes legitimoa, AAJLren edo 29/1998 legearen, uztailearen 13koa, 19.1 a) art.].

ADI: 3/1998 Legearen, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duena (indargabetuta), 3.4 art. konstituzio aurkakoa zela ebatzi zuen KAren 15/2021 epaiak, urtarrilaren 28koak.

- “3.4 art.: Legean aurreikusitakoa betetzea exigitzeko akzioa publikoa izango da, bai bide administratiboan eta bai jurisdikziokoa.”.

Hortaz, ez da frogatu behar norberaren eskubideak edo interesak urratu direla. Beste hitzekin esanda, subjektu aktiboak ez du zertan eskubide baten titularra izan.

- Betiere, mugatua da: indarrean dagoen araudia bete behar da horrek ezarritako epeetan, eta baldintzak kontuan hartuta.
- Gainera, eskubide baten titularra ez den neurrian, ezin izango du kalte-ordainik jaso.
- Ingurumenerako eskubidea eskubide subjektibotzat hartzen duen ikuspegia indarra galtzen du.

Ingurumenerako eskubidearen erabilera bikoitza: eskubide subjektibo bezala edo printzipio gidari gisa.

- Eskubide subjektibo gisa definitzen bada, legegilearentzat ere muga izango du.
 - Oinarrizko eskubide eta askatasun publiko gisa, babes-errekurtsoa baliatzeko aukera ematen du.
- Printzipio gidari soil gisa ulertzen bada, erantzuna gehiago zehaztu behar da.
 - Legegileari EKren 45. art. errespetatu dezan eskatuko zaio, legegilea ere printzipio gidarien eraginpean baitago. Epaile edo auzitegi batek konstituzio-aurkakotasun errekurtsoa planteatu lezake, edo KAren aurrean arau bati aurka egiteko aukera egon liteke (Cobrerros).
 - Halere, legegileak esku-hartzeko tarte handia dauka, eta norbanakoei, berriz, aukera txikiagoa aurka egiteko.

Konstituzio-aurkakotasuna.

- Ekologia delitua (ZKren 325. art.); adib., zentral termiko baten isurketen mugak direla eta, maila txikiagoko araua erabiltzen denean poluzio-indizeak aldatzeko, goragoko arauen gainetik eta horiek ezarritakoaren kontra (hierarkia printzipioa).
 - Kasuan-kasuko arauaren erabateko deuseztasuna (APAPL edo 39/2015 legearen, urriaren 1ekoa, 47. art.).
 - Administrazioaren ondare erantzukizuna.

“Administrazioak lege-mailako arauak bideratzea erabakitzen badu edo araudiak xedatzen baditu, betiere horien bidez nazioartean onartutako balio zientifiko ukaezina duten arauak jarraituz arriskutsuak edo onartezinak diren isurketa-kopuruak baimentzen baditu, Konstituzioaren 45. artikulua xedatutakoa urratuko du, eta arau hori konstituzio-contrakoa izango da.” (1990eko azaroaren 30eko AGE).

Aukera guztiz garrantzitsuak sortzen ditu; arazoa: irizpidea zehaztea.

4.3. OSASUNERAKO ESKUBIDEA

EKren 43. art.:

“1.Osasun babesaren eskubidea aitortzen da.”.

“2. Botere publikoei dagokie osasun publikoa antolatu eta babestea beharrezkoak diren zerbitzu eta prestamenen neurri, alde zuzeneko bitartez. Hontarako, legeak ezarriko ditu guztien eskubide eta betebeharrak.”.

Printzipio gidarietan kokatuta dago sistematikoki; beraz, EKren 53.3 art. aplikatzen zaio (=ingurumenerako eskubidea).

- 3/1986 Lege Organikoa, apirilaren 14koa, Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzkoa.
- 14/1986 Lege Orokorrean, apirilaren 25ekoa, osasunari buruzkoa (OLO), garatzen da.

Osasunerako eskubideari buruzko interpretazio murriztailea egiten du.

- Osasunerako eskubidea zerbitzu publiko sanitarioaren prestazioari lotuta dago; ez du aipamenik biltzen osasunerako eskubidearen eta ingurumenaren arteko loturari buruz.

OLOk zer hartzen duen barne zehazteko eztabaidak doktrina-mailan:

Egile batzuen iritziz, eskubide subjektiboa da (zerbitzu publiko sanitarioa prestatzeko esku-hartze administratiboa eskatzen duen eskubidea).

- Eztabaida da nolako prestazioak eskatzeko aukera dagoen, edo eskubide hori aintzat hartzearen ondorioz botere publikoek zein betebeharrak izango dituzten.

OLOk ez du lotura zuzena ezartzen osasuna babesteko eskubidearen eta ingurumenerako eskubidearen artean.

- Hala ere, zenbait arauk (ikus. OLOren 25.1 art.) enpresa edo produktu jakin batzuk osasun-baimena behar dutela ezartzen du.
- Era berean, jarduera batek herritarren osasunean eragin berezia eta negatiboa duenean, HHAek eragin horiek deuseztatzeko esku-hartze administratiboa dekretatu ahal izango dute (ikus. OLOren 25.4 art.).
- “Osasunerako berehalako arrisku bereziren bat badago eta arrazoiz susmatzen bada, osasun agintaritzek beharrezkoak jotzen dituzten prebentzio-neurriak hartuko dituzte, hala nola, produktuak konfiskatzea edo ibilgetzea, jarduerak etetea, enpresak edo enpresen instalazioak ixtea, baliabide materialak eta pertsonalak kontrolatzea, eta osasunari dagokionez, justifikatuztat jotzen iren bestelako neurri guztiak” (OLOren 26.1 art.).

33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa, Osasun Publikoari buruzkoa (ikus. 30 eta 31. art.k).

Hala eta guztiz ere, osasunerako eskubidea (eskubide subjektibotzat eta osasunaren aurkako kalteei aurre hartzeko xedea duen eskubidetzat hartuta) **juridikoki baliagarria izan daiteke**, baldin eta botere publikoen aurrean erabil daitekeen eskubidea bada, betiere botere publikoek, euren arautzeko jardueraren bitartez edo jarduera administratibo soilaren bitartez osasunerako eskubidea errespetatzen ez badute.

GEEAren 1994ko abenduaren 9ko epaia, López Ostra Espainiako Erresumaren aurka.

- Ur hondakinak garbitzeko planta bat erdiguneko etxe baten ondoan jarduteak eta horrek sortzen dituen zaratek nahiz usainek etxebizitzarako eta familia zein bizitza pribaturako eskubideak urratzen ditu (GEEHren 8.1 art.).
- GEEAk interpretatu zuen, GEEHren 8.1 art.k beren-beregi osasunerako eskubidea aipatu ez arren, arrazoituztako kalteak zeharka osasunean eragina zutela (ez zuzenean, 12 metrora zegoelako). Kalteordaina eskatzeko eskubidea adierazi zuen.
- Familia nahiz bizitza pribaturako eskubideak enpresa bat ixtea ekartzen badu, justifika daiteke pertsona juridiko bat ixtea osasunerako eskubidea kaltetzeagatik. Edonola ere, industria-jarduerak ez du eragin (sentikortasun) bera pertsona guztietan.
- Horiek horrela: ez al litzateke zentzuzkoa izango osasunerako eskubidea (EKren 43. art., OLOren 1. art.) modu berean (esangura zabalean) ulertzea?

4.4. JABETZA-ESKUBIDEA

EBko konstituzio guztietan aintzat hartzen da, baita GEEHren 1952ko lehenengo protokoloan ere.

EKren 33.1 art. “1. Jabetza pribatu eta oinorde eskubidea aitortzen da.”.

“2. Eskubide hauen **funtzio sozialak** hauen edukia mugatuko du legeen arabera.”.

“3. Inor ez da izango bere ondasun eta eskubideez gabetua **baliagarritasun publikoa edo interes sozial justifikaturen** bat ez bada medio dagokion **kalteordaina** eta legeek erabakitzen dutenaren arabera.”.

Eztabaida gehien pizten duen eskubidea; batez ere, barne hartzen duenari eta mugak zehazteari dagokionez.

- Jabetza-eskubidea oztupo izan da maiz ingurumena babesteko; adib., ikus. KAren 170/1989 (parkeei), 149/1991 (kosteak) edo 227/1991 (urei) buruzko epaiak.

KAren jurisprudentziak eta doktrinak hasieratik landu dute zer hartzen duen barne jabetza-eskubideak:

- Ez da banakako eskubide subjektibotzat hartzen, baizik eta **“gizarte-funtzio”** (ezinbesteko elementua) osagai duen eskubidea.
- Jabetzaren **gizarte-funtzioak eskubidea mugatzen du** eta horri **ez dagokio kalteordainik**; izan ere, eskubidea definitzen badu, ezin du eskubidea **urratu**.
 - “Konstituzioak ez ditu debekatzen legezko neurri horiek, banakako eskubide haiek murrizten dituen berrikuntza edo euren ahalmenetako bat mugatzea badakarte ere, eta berez ez dira konpentsatu beharreko kalte-ordainak” (KAren 227/1998 epaia).
 - Beraz, gizarte-funtzioa egiturazko elementu bat da eskubidearen definizioan, edo jabetza pribatuaren kontzeptuaren barruko edo berezko elementua, baina ez da banakako erabilerak mugatzen duen kanpoko ezer.

Gizarte-eginkizunak eskubideari ezartzen dizkion mugak ezin dira parekatu eskubidearen beraren kanpoko mugekin; hala nola, besteren eskubideak ezarritako mugekin (Lasagabaster, 1994) edo noizbehinka gertatzen direnekin.

- EKrekin bat etortzeko: “heinekotasun-judizio bat behar du; beran, konstituzioaren arabera, legitimoa bada, debekuak (...) berez izan behar duen kausalitate eta premiaren arteko erlazioa egiaztatu behar da (KAren 66/1991 epaia).

Eskubideari ezarritako mugek (mugak adierazitako moduan ezartzen badira) ez dute kalte-ordainerako aukerarik ematen; hala eta guztiz ere, jabetza **mugatzeko** esku-hartzeen eta eskubidea **kentzeko** esku-hartzeen arteko **bereizketa egitea ez da erraza** (Ibáñez, 1995). Non dago muga?

- Kosten Legeak (22/1988 legea, uztailearen 28koak) jabeek ezarritako mugak kalte-ordainerako eskubiderik ematen ez duen eskubide-murrizketa da (ikus. KAren 227/1998 epaia), baita Andaluziako laborantza-berritzearen arau erregulatzailerak arlo honetako *leading case* garrantzitsuan ezarri eta KAK aztertu zuen erabilera-desjabetzea ere (ikus. KAren 37/1987 epaia).

Gizarte funtzioan, ez da kalteordaina jasotzeko eskubiderik sortzen; nahitaezko desjabetzean, bai.

EIAL, 4. art.: “Lege honen helburuak betetzera bideratutako jarduerak **onura publikokotzat edo interes sozialekotasun** jo ahal izango dira, ondorio **guztietarako**, eta, bereziki, legearen eraginpean dauden **ondasunen edo eskubideen desjabetzeari begira**, legediak gai horri buruz xedatutako guztiarekin bat etorrira.”.

Hortaz, ingurumenari buruzko gaiak arautzean, jabetza-eskubideari lotutako arazoak sor daitezke (ez bakarrik Espainiako Estatuan, EBean ere bai).

- Zaila izaten da **jabetza-eskubidearen eta zuzenbidearen esku-hartze pribatiboaren arteko muga bereiztea**.

Adib., lurralde-eremu bat naturaltzat jotzearen ondorioz, lurralde horren jabeen eskubideak arautzeak era horretako arazoak sortu ohi ditu.

- Gai jakin baten araudia kaltegarria izan liteke hainbat jaberentzat; adib., fauna babesteko arauak dagokienez, babestutako animalia baten pertsona baten ondareari kalteak eragiten badizkie.

Kasu horretan, jabeak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea du.

Auzitan jarri behar da jabetza-eskubidearen definizioan gizarte-funtzio jakin bat ezartzea nahikoa ote den nahi den babes-helburua lortzeko, ala eraginkorragoa izango ote den administrazioak esku-hartzeko beste modu batzuk aurreikustea.

- Agian ezinezkoa izan daiteke debekua eta zehapen-mehatxua soilik erabiliz eremu bat babestea, ondare horien titularrei bestelako aukerarik eskaini gabe.

HHAk esku hartu behar du berak ezartzen dituen mugetarako irtenbideak topatzeko.

4.5. ENPRESA ASKATASUNA

EKren 38. art.: “Enpresa askatasuna aitortzen da merkatu ekonomiaren barrutian. Botere publikoek haren jardura bermatu eta babestu egiten dute eta baita ekoizpenaren defentsa ere, ekonomia orokorraren eskabideei kasu eginez, eta kasu honetan, planifikazioa kontuan izanik.”.

- Jabetza-eskubidearen arazo berak dakartza.
- Enpresa-askatasuna aintzat hartzea baino zerbait gehiago: merkatu-ekonomia ere ezartzen du.
- Eskubide horren gaineko definizioak eta doktrina-irritziak askotarikoak dira:

KAk berak adierazi du ezin dela termino horren alde aurreko definiziorik egin (ikus. KAren 37/1987 epaia).

Doktrinak, baietz: “Ondareen edo zerbitzuen merkaturan –produktzioa edo trukea– jardutearren antolatutako ekonomia-jardueran lanbidean aritzea” (Uría).

- Enpresak, zentzu zabalean, hainbat elementu barne hartzen ditu; hala nola, establezimendua, lanbide-jardura, eta establezimenduaren jabeak eta langileak osatzen duten komunitatea (Malaret).
- Enpresa askatasuna da “legezko jardura ekonomikoei ekiteko eta ondasunak zein zerbitzuak ekoizteko eta banatzeko askatasuna.” (Malaret).

EKren 38. art.k ez du enpresa-askatasuna industria edo merkataritzaren arloko askatasunera mugatzen; aldiz, badira mugak (adib., KAren arabera, farmazien ordutegien zehaztapena EKren 38.art.tik kanpo dago).

Enpresa-askatasunak beste eskubide eta askatasun batzuekin harremana du:

- Elkartzeko-askatasunarekin (#enpresa-askatasuna, elkarteek ez baitute kuota edo partaidetza baten arabera mozkinen banaketarako xederik edo irabazasmorik helburu bakarrik; adib., enpresa bat kontrolatzea edo desjabetzea, ikus. 1985eko otsailaren 18ko AGE).
- Lanbide bat aukeratzeko eta horretan jarduteko askatasunarekin.
- Jabetza-eskubidearekin (jabetza-eskubideak enpresa-askatasunaren zati bat bermatzeko balio du, baina ez du agortzen; enpresa-askatasuna zerbait gehiago da. Jabetza mota bat da enpresen jabetza eta jabetzari buruzko estatutu asko dago).
- Nortasun garapen librearekin.
- Ingurumen egokirako eskubidearekin.
- Berdintasun-printzipioarekin.

EKren 38. art.k, enpresa-askatasuna aintzat hartzean, eskubide subjektiboaren izaera juridikoa eman dio askatasun horri.

- Beraz, ezin da eredu ekonomiko bat ezartzen duen arautzat hartu.
- Eskubide subjektibo gisa aintzat hartzearen ondorioz, herritarrek eskubide hori baliatzeko aukera dute, eta benetako babes judiziala bermatzen du (EKren 24.1 art.).
 - Legegileak eskubide hori ez errespetatzeak kasuan-kasuko araua konstituzio kontraktatzat jotzea ekar lezake.

- Enpresa-askatasuna, ordea, ezin da babes-errekurtsoaren bidez babestu.
 - Enpresa-askatasuna ez da mugarik gabe aintzat hartutako eskubide bat (KAren esanetan, “ahuldutako eskubide subjektiboa”, ikus. KAren 111/1983 epaia).
 - Mugak arrazoizkoak eta neurrikoak izan behar dute. Eskubidea mugatzeko esku-hartze publikoak konstituzioaren arabera izan behar du beti.
 - Ingurumenari buruzko araudiak nahiko mugatuko du enpresa-askatasuna: baldintzatu ahal izango dute jarduera baimentzeko orduan edo garatzen ari den bitartean. Kalteordainerako eskubidea kasuz-kasuz aztertu beharko da.

4.6. BIZITZA PRIBATURAKO ETA INGURUMENA BABESTEKO ESKUBIDEA

GEEHren 8.art.: “1. Edozein pertsonak du bere bizitza pribatuaren eta familiartekoaren, bere bizilekuaren eta bere korrespondentziaren errespeturako eskubidea.”.

EKren 18. art.: “1. Ohore, norberaren eta senitarteko intimitatea eta bakoitzaren irudi eskubidea bermatzen da.”. (intimitaterako eskubidea).

“2. Bizilekua sareinezkoa da. Bertan jabearen edo epaile erabakiaren baimenik gabe ezin da sartu ezta erregistratu ere, ageriko delituan izan ezik.” (etxebizitzaren bortxaezintasunerako eskubidea).

Oro har, GEEAk defentsa-eskubidetzat hartzen du GEEHren 8. art.n bildutako eskubidea, eta gizabanakoa botere publikoaren esku-hartze arbitrarioetatik babesten du.

Era berean, botere publikoei familia-bizitza horrekiko errespetu-betebehar **positiboa** ezartzen dio: “8. artikulua xedea batez ere gizabanakoa botere publikoen esku-sartze arbitrarioetatik babestea [ba]da, Estatuari halako esku-sartzerik ez egiteko betebeharrak ezartzera baino haratago doa: negatiboa den konpromiso horri, bizitza pribatuarekiko edo familia-bizitzarekiko benetako errespetuak berezkoak dituen betebeharrak positiboak erants dakizkioke.” (ikus. GEEAren 14967/89 epaia, 1998ko otsailaren 19koa, Guerra Italiaren aurka; KAren 144/1999 epaia edota KAren 292/2000 epaia).

GEEAren 496/1994 epaia, López Ostra Espainiako Erresumaren aurka, 1994ko abenduaren 9koa izan zen auzi horri buruzko jarraibidearen eredu.

- Egitatezko kasua: hondakin solidoak eta likidoak tratatzeko planta batek bertatik 12 metro baino gutxiagora bizi zen familia batengan eraginak izan zituen. Gai horrek ondorio prozesalak eta substantiboak izan zituen:
- GEEAk auzi-jartzaileari bere bizitzaren babesean (EKren 18.2 art.) justiziara jotzeko eskubidea onartu zion, EKren 53.2 art.n aurreikusitako moduan (AGk eta KA-k ez bezala: norbanakoak ez zituen barne-errekurtsoak agortu eta etxebizitzaz lekualdatu zen [EKren 19. art.?]; Fiskaltzak, ostera, ez zuen argudio horiekin bat etorri).
- GEEAk nabarmendu zuen kutsadurak herritarren ongizatean eragina izan zezakeela, baita bere etxeaz gozatzea eragotzi ere (bizikidetzaren arrunta).
 - Horrenbestez, bere bizitza pribatua eragin kaltegarria izan zezakeen, betiere osasunerako arrisku larria izan gabe (GEEAren arabera, ez da beharrezkoa frogatzea osasunean kalte larria izan dela, GEEHren 8.art. urratu dela ulertzeko).
- Estatuko agintariak dituzten betebeharrak nabarmendu zituen: ingurumen-arazo larri bati aurre egiteko hondakin-uren garbiketa onartu bazuen ere (lizentziarik gabe eta dirulaguntza publikoarekin finantzatuta), GEEAk nabarmendu zuen administrazioak ez zuela ekintzarik burutu urratutako eskubideak babesteko.
 - Auzitegiek aurka agertu ziren ebazitako errekurtsu guztietan, eta beste agintaritzak batzuek lagundu egin zuten bizitza pribaturako eskubide-uraketari eusten (!).
- GEEAk GEEHren 8. art. izan zuen oinarri, nahiz eta GEEHk ingurumen osasuntsu eta lasairako eskubidea beren-beregi aintzat ez hartu.

- Gizanabakoarengan eragina duten ingurumen-baldintzak babesteko, gizabanakoak bizitza pribaturako duen eskubidea bermatzeko bidez zuzenean baliatu eta auzitegiatarra jotzeko aukera dago, EKren 53.3 art.k EKren 45. art.ri jarritako eragozpenak gaindituta.

GEEAren beste epai batzuk:

- **55723/00, Fadeïeva Errusiaren aurka, 2005eko** ekainaren 9koa (altzairu-fabrikaren gertuko esparruan ostatu ez hartzeko).
- **38182/03, Grimkovskaya Ukrainaren aurka, 2011ko** uztailearen 21ekoa (kale bat autobia bihurtzeko).
- **30765/08, Di Sarno eta beste batzuk Italiaren aurka, 2012ko** urtarrilaren 10ekoa (zabor batze ez eraginkorra).
- **Dzemyuck Ukrainaren aurka (2012, akuifero baten gaineko hilerria).**
- **22743/07, Otgon Moldaviaren aurka, 2016ko** urriaren 25ekoa (disenteria txorrotatik edateagatik).
- **38342/05, Jugheli eta beste batzuk Georgiaren aurka, 2017ko** uztailearen 13koa (etxebizitza zentral termikotik lau metrotara).
- **54414/13 eta 54264/15, Cordella eta beste batzuk Italiaren aurka, 2019ko** urtarrilaren 24koa (auzokoak altzairutegiaren ondoko gunean).

KAren jurisprudentzia:

- 199/1996 epaiak adierazi zuen ingurumenari buruzko araeak, batez ere, prebentzio eta zuzentze neurri administratiboak ezartzen dituztela, eta **EK-k ez duela horri buruzko oinarrizko eskubiderik aipatu**.
 - Dena den, onartu du “oso kasu larrietan, ingurumen-kalteei pertsona batek bere bizitza pribaturako eta familia-bizitzarako duen eskubidea urra dezakeela.”.
- **119/2001 epaiak, maiatzaren 24koak (Moreno Gómez Espainiako Erresumaren aurka)** baieztatu zuen etxe-arloko norbere intimitaterako eta familia-intimitaterako oinarrizko eskubideari ematen zaion babes bera eman behar zaiola zarata-maila jakin baten eraginpean **denbora luzean** egoteari (betiere objektiboki **saihesteko modukotzat, jarraitutzat zein jasanezintzat** jotzen bada), batez ere zarata horrek **nortasuna askatasunez garatzea** eragozten badu, eta erakunde publikoen egiteen edo ez-egiteen ondorioz **osasuna arrisku larrian eta berehalakoan jartzen** denean. KAak helegitea gaitzetsi zuen froga faltagatik (norbanakoak ez zuen loezina ustezko kalteari behar bezala lotu, ezta zarataren neurketa aproposik aurkeztu ere). Horren aurka, bi boto partikular jarri ziren.
- **GEEAren 4143/2002 epaia, 2004ko** azaroaren 16koa: bizitza pribaturako eskubidearen urraketa aitortu, eta 3.884€ko kalteordaina (kalte materialak nahiz moralak) eta prozesuaren gastuak zein kostak (4.500€) ezarri zion Espainiako Estatuari.
- Espainia ez du GEEAren doktrina moldatu. Ikus. **GEEAren 23383/12 epaia, Cuenca Zarzoso Espainiako Erresumaren aurka, 2018ko** urtarrilaren 16koa (zaratak).

AGEn jurisprudentzia:

- 2003ko apirilaren 29ko epaian, industria baten inguruko etxebizitzetan industria horrek sortutako zaratek eragindako kalteei buruzko epaian, KAren jurisprudentzia jarraitu zuen.
 - “Intimitaterako eskubidea etxean eta horren inguruan modu baketsuan baliatu ahal izateko, beharrezkoa da kanpoko eraso desatseginek kaltetu ezin duten eremua izatea, horrela eraso horiek nahitaez jasan behar ez izateko; horien artean, ez bairik gabe, etengabeko zarata handiak daude, zarata horiek legezko jarduerak garatzeak sortutakoak badira ere; jarduera horiek legezko izateari uzten diote **muga jakin batzuk** gainditzen direnean.”.
 - Saturazio akustikoa bizilekuaren bortxaketa da, bizilekua norbere intimitaterako eta familia-intimitaterako eremua baita (EKren 18.2 art.).
 - Industria-jardueretan aritzeko udal-baimena ematearen balioari dagokionez, intimitaterako eskubidearen ikuspegitik, eta etxebizitza jarduera hasi baino lehenago bertan zegoela kontuan izanda, “udalbatzari eta enpresari berari zegokien nahitaez zaratak maila jasangarriraino edo onargarriraino murriztea.”.

GEEAren 2001eko urriaren 2an, Hatton Erresuma Batuaren aurka (I):

- *Heathrow*eko aireportuko gaueko hegaldiak onartzeak zarata areagotzea dakar.
 - Beharrezkoa zen administrazioak pertsonen eta komunitatearen interesen arteko bidezko oreka (oreka zuzena) aztertzea (betebehar positiboa): Estatuak “interpretatzeko nolabaiteko tartea” izateak ez du esan nahi “alderdi material guztiak” kontuan hartu behar ez zituenik. Eskubideetan esku-sartzeko aukera, baina giza eskubideei ahalik eta kalte txikiena eraginez.
- Horrek GEEHren 8.art. urratu zuela adierazi zuen GEEAk.
 - Ez dago ikerketa nahikorik loari berriro ekiteari buruz.
 - Estatuaren ongizate ekonomiko hutsa ez zen nahikoa besteen eskubideak gainditu eta GEEHren 8. art. mugatzeko (nahiz eta bidaiak lagungarriak izan, ez zen modu objektiboan balioetsi gaueko hegaldiek nazioaren ekonomikorako zekartzaten ondorioak).

GEEHren 8. art.ko bestelako interpretazioa:

GEEAren 2003ko uztailaren 8ko epaia, Hatton Erresuma Batuaren aurka (II):

- Hegaldi planak auzi-jartzaileen bizitza pribatuaren kalitateari nolabaiteko kaltea egin arren, GEEAK jatorrizko epaia berrinterpretatu eta baliogabetu zuen:
- GEEHren 8. art. ingurumenarekin zerikusia duten auzietan aplika zitekeen, betiere poluzioa Estatuak zuzenean eragindakoa bazen, edo industria pribatuaren araudi egokirik ez izateak Estatuaren erantzukizuna sortzen zuenean.
 - Estatuak interpretazio-tarte zabala izan behar du.
 - Britainia Handiko agintariak zaratak eragindako traben batez besteko hautematean oinarritutako estatistika-datuak erabiltzeko eskubidea zuten.
 - Bereiztu zuen loa asaldatzea eta berriz lo egitea: zaratak eragindako trabak aireportuaren inguruan bizi zirenentzat onargarriagoak ziren. Egoera aldatu zitekeen, zarataren aurkako neurriak hartuz gero.
 - Kalte bereziak pairatzen zituzten auzokideek lekualdatzeko aukera zuten (etxebizitzaren prezioa ia-ia ez zen aldatzen).
 - Zentzuzkoa da herriaren ongizate ekonomikoa erabiltzea (zaila edo “ezinezkoa” da aire-industriaren eta herrialdearen interes ekonomikoak bereiztea; beraz, =).
 - Prozedura akatsik ez hegaldien planean: hainbat azterlan joratu zituen, eta herritarrek oharrak egiteko eskubidea izan zuten.

GEEAren 242/2003 epaia, Kyrtatos Greziaren aurka, 2003ko maiatzaren 5koa: doktrina hori ezin da baliatu hegaztiei eta babestutako gainerako animalei eragiten dienean, erreklamatzailaren ondasun higiezinaren alboko bustigunea hondatu eta legez kontrako zenbait etxebizitza eraikitzeagatik (ingurumen kalte orokorra).

GEEAren Caster Erresuma Batuaren aurka: bizitza pribaturako eskubidea ez zen ingurumenarekin babesarekin lotu; aitzitik, bi aldeak kontrako posizioetan kokatu ziren.

- Eskatzaileek salatu zuten agintari britainiarrek euren aurka hartutako neurriak GEEHren 8. art. ren aurkakoak zirela.
 - Euren karanabarekin lursail bat okupatu zuten eta beraien aurka hartutako neurriak paisaiaren babesarekin lotu ziren.
- GEEAk aditzera eman zuenez, pertsona batek bere bizilekua ezarri eta barne-zubenbideak galdatutako lizentzia lortu ez badu, interes gatazka sortzen da bizilekuarekiko errespeturako eskubidearen eta komunitateko beste kide batzuek ingurumena babesteko duten eskubidearen artean.
- Pertsona bati bere bizilekua uztera behartu eta lortu nahi den helburu legitimoa proporziozkoa den finkatu beharko da; horretarako, bizileku hori legez kontra ezarri den jakin beharko da.
 - Legez ezarri bada, gizabanako hori behartzeko edozein neurrik legitimitatea galduko du.

- Bizilekua legez kontra ezarri bada, gizabanako horren posizioa ez da hain sendoa izango. Kasu horretan, GEEAk ez dio erraz babesa emango, legearen debekuei muzin eginda bizilekua babestuta dagoen inguru batean jarri duenean.

Horrela egin ezean, GEEAren iritziz, legez kontrako ekintzei bide emango litzaieke, komunitateko beste kide batzuek ingurumena babesteko ekintzen kaltetan.

4.7. BIZITZARAKO ESKUBIDEA ETA OSOTASUN FISIKO ETA MORALERAKO ESKUBIDEA

Bizitza pribaturako eskubidearen abiapuntu bera.

Bizitzarako eskubidea: GEEAren 48939/99 epaia, Önergyildiz Turkiaren aurka, 2004ko azaroaren 30ekoa.

- 1993ko apirilaren 28an metano leherketa bat egon zen zabortege publiko batean, eta aldameneko etxebizitzetan makina bat heriotza (39) eragin zituen.
 - Kalteordaina bizitza eskubidea urratzeagatik (GEEHren 2.1 art. “Bizitarako edozein pertsonaren eskubidea babesten du legeak. Inori ezin izango zaio nahita bizitza kendu, salbu eta auzitegi batek errudunari heriotza-zigorra ezartzen badio zigor baten betearazpenean, betiere legeak zigor hori ezarri badu delitu horretarako).
 - Estatuaren betebeharrak positiboak jarduera arriskutsuen kasuan (eta jarduera kutsatzaile gehien-gehienak horrelakoak dira).

Osotasun fisikorako eta moralerako eskubidea: KAren 16/2004 epaia, otsailaren 23koa.

- Administrazio-isuna (50.001 pta.) ezarri zion Gijoneko establezimendu bati gehiegizko zaratagatik.
 - López Ostra doktrina aplikatu zen, eta horri KAK gehitu zion **EKren 15. art. (osotasun fisikorako eta moralerako eskubidea)**.
 - Arazoa: zehapenaren datan ez zegoen zaratari buruzko legerik (egun, 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa). Zehapena ezartzeko 38/1972 Legea, abenduaren 22koa, Ingurumen Atmosferikoaren Babeseko aplikatu zen; izan ere, zarata energia formatzat jo zuen 1.2 art.n: “Kutsadura atmosferikotzat ulertzen da, Lege honen ondorioetarako, airean pertsonentzat eta edozein motatako ondasunentzat arriskua, kaltea edo eragozpen larria ekar dezaketen materialak edo formak”.
 - Boto partikularra: “zarata ezin da kalifikatu “materia edo energia forma bezala” nahiz eta horren uhinak airetik hedatu.”.

Bizitzarako, bizitza pribaturako eta GEEHren beste eskubide batzuk: etorkizuneko ikuspegiak

GEEAren 39371/20 prozedura, Duarte Agostinho eta beste batzuk Portugal eta beste 32 herriren aurka.

- Portugalgo sei gaztek demanda jarri zuten 2020ko irailaren 2an Portugalen eta EBko Estatu kideen kontra klima aldaketaren aurkako neurri adina ez hartu (Pariseko Akordioaren isurpenak 1,5 gradu zentigrado murriztea) eta giza eskubideak urratzeagatik. Asmo handiko neurriak hartzea behartu nahi zaie agindu baten bitartez.
- Aurrekariak:
 - AGEren 2019ko abenduaren 20ko epaia, Urgenda Gobernuaren Kanpoko Erakundea Herbehereen aurka (berotegi-efektuko gasen murrizketarako).
 - Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordearen 2020ko urtarrilaren 7ko epaia, Teitiota Zeelanda Berriaren aurka.
 - 2020ko urtarrilaren 17ko epaia, Juliana AEBn aurka.

GEEAn aurkeztutako kasuaren ezaugarriak:

- Demandatzaileak eta demandatuak (2020).
- **GEEHn ustez erasandako eskubideak: bizitzarako eskubidea (2.1 art.), bizitza pribaturako eskubidea (8.1 art) eta adinagatiko diskriminazioaren debekua (14. art.)**.
- Aldez aurretik barne auzibideak ez agortzea.
- Nazio bakoitzaren interpretazio esparrua eta giza eskubideak.
- Esku-sartzea eragin duten demandatzaileen ugaritasun paradoxa eta Estatuaren betebeharrak bitarteko betebeharrak gisa (ez emaitza betebeharrak).
- Balizko erabaki judiziala eta botere banaketaren printzipioa.

4.8. INGURUMEN-INFORMAZIORA SARBIDE ESKUBIDEA

Garrantzia handikoa informazioa eskuratzeari buruzko nazioarteko testuinguruan (adib. Rio de Janeiroko Hitzarmena, Nazio Batuen Hitzarmena), jendeak erabakietan parte hartzearen testuinguruan, eta ingurumen-gaietan justizia eskura izatearen testuinguruan (Aarhuseko Hitzarmena).

GEEH: 8. (bizitza pribatu eta familiarra errespetatzeko eskubidea) eta 10. (adierazpen askatasuna) art.k.

Ingurumen Eskubideari buruzko Bizkaiko Adierazpena, UNESCOren eta Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi komisarioaren babesean (Bilbo, 1999ko otsailaren 12). Gardentasunaren printzipioa:

- “Gizakiak parte hartzeko, informazioa lortzeko eta informatua izateko eskubideak ere aitortu beharra eskatzen du.” (4.1 art.).
- “Pertsona guztiek dute ingurugiroari buruzko informazioa lortzeko eskubidea, interes jakinik erakutsi beharrik izan gabe.”.
 - “Lege ezarritako zentzuzko arrazoiek bakarrik muga dezakete eskubide hori.”. (4.3. art.).

Kontuan hartu beharreko balizko arazoak:

- a. Sarbidearen objektua: ingurumenari buruzko informazioaren kontzeptua.
- b. Subjektu aktiboa: nortzuk duten legebideztaketa sarbiderako eskubidea egikaritzeko eta zein eskubide aitortzen zaizkien.
- c. Subjektu pasiboa: zeintzuk diren informazioa ematera behartuta dauden erakundeak (HHAk).
- d. Ezeztatze arrazoiak (orokorrak eta bereziak).
- e. Sarbiderako eskubidea egikaritzeko prozedura.
- f. Ingurumenari buruzko informazio orokorra emateko administrazio-betebeharrak, aldez aurreko eskaerarik gabe.

4.8.1. Kontzeptua

EEJAK C-321/96 gaian (Mecklenburg) aditzera eman zuen EBko legegileak ingurumenari buruzko informazioaren kontzeptuari esangura zabala eman nahi ziola, ingurumeneko elementuen datuak eta jarduerak barne hartuz.

- Ez zuen definizioan aginte publikoek garatzen duten jardueretakoren bat kanpoan utzi nahi izan.

Neurriak = administrazio-jardueraren forma guztiak.

Nahikoa da Administrazioaren txostena EBko araudian aipatzen diren ingurumenaren sektoreetako batzuetan eragina izan dezakeen egintza bat izatea edo sektore horiek babes ditzakeen egintza bat izatea.

C-316/01 gaian (Glawischnig) adierazi zuen xedea ez zela aginte publikoen esku dagoen aintzat hartzen diren ingurumen-elementuetakoren baten informazio guztia mugarik gabe guztien esku egoteko eskubidea onartzea.

EIALren 2.1 i); “administrazio publikoen edo sektore publikoko gainerako erakundeen edo horien izenean diharduten beste subjektu batzuen esku dagoen idatzizko, ikusizko eta entzutezko informazio oro, elektronikoa edo beste edozein eratako informazioa, bat etorrita Europako zuzentzauek eta Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko den transposizio-araudiak ingurumen-alarreko informazioa eskuratzeari, jendeak parte hartzeari eta justiziara jotzeko eskubideei buruz ezarritakoarekin.”.

Printzipioz: subjektu pasiboen esku dagoen informazioa (batez ere, HHAk, euren funtziopean egindakoak edo eskuratutakoak) argiro, eragingarri eta eskuragarri etengabe jartzeko betebeharra.

- Forma:
 - Edozein adierazpide edo euskarri materialetan.
Idatzizkoa, bisuala, soinuduna, elektronikoa eta beste edozein eratakoa (adib., argazkiak, bideoak edota bestelakoak).
- Edukia (ikus. 27/2006 Legearen 2.3 eta EIALren 14. art.k):
 - Ingurumenaren elementuen egoerari buruzkoa: uren, airearen, atmosferaren, lurzoruen, lurraren, faunaren, floraren, espazio naturalen (bustiguneen, itsasaldeen eta kosten barne) edota genetikoki eraldatutako organismoen (eta horien elkarreraginen) informazioa hartzen du.
 - Elementu horiei eragiten dieten faktoreei buruzkoa: substantziak, energia, zarata, erradiazioa, hondakinak, isurketak, etab.
 - Administrazio neurriei buruzkoa: ingurumen-kudeaketarako politikak, planak, programak eta gaiari buruzko akordioak.
 - Ingurumen araugintzaren betearazpenari buruzko txostenak:
 - Kostu eta mozkinen inguruko azterketari buruzkoa.
 - Pertsonen osasuna eta segurtasun egoerari buruzkoa, elikatze-katearen kutsadura, giza-bizitzaren inguruabarrak eta ondare historiko-kulturalaren ondasunak barne.

4.8.2. Araudia

Nazioarte mailan:

- Aarhuseko Hitzarmena, 1998ko ekainaren 25ekoa (NBEren EBrako Batzorde Ekonomikoarena), ingurumen alorreko prozedura judizialak eta informazioa eskuratzeari, eta jendearen partaidetza bermatzeari buruzkoa.

EB mailan:

- 1367/2006 Erregelamendua, EPkoa eta EKarena, irailaren 6koa.
- 2003/4/EB zuzentaraua, urtarrilaren 28koa (EPkoa eta EKarena), informaziora sarbide publikoa.
- 2003/35/EB zuzentaraua, maiatzaren 26koa (EPkoa eta EKarena), herritaren parte hartzea planetan eta egitasmoetan.

Estatu mailan:

- EKren 105.b) art.
- 27/2006 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
- 27/2006 legeak arautzen ez dituen aldeetan (ordeztailea); bi legeak bat ez datozenean, aldiz, lehentasuna izango du 27/2006 legeak.

EAE mailan:

- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena (EIAL).

4.8.3. Eskubidearen subjeto aktiboa

Aarhuseko Hitzarmena [4.1.a) art.]: ez da informazioan interesik (berezirik) erakutsi behar.

27/2006 legearen 3.1 art.:

- a. Agintari publikoen esku dagoen ingurumenari buruzko informazioa sarbidea izateko eskubidea, inolako azalpenik eman *beharrik gabe* [era berean, 19/2013 legearen 17.3 art.] eta euren herritartasuna, bizilekua edo egoitza edozein izanda ere.
- b. Legeek aitortzen dizkiguten eskubideei buruzko informazioa eskuratzeko eta horiek modu egokian egikaritzeari buruzko aholkuak jasotzeko eskubidea.
- c. Informazioa bilatzean sorospena jasotzeko eskubidea.
- d. Eskatutako informazioa legeak ezartzen duen gehieneko epean jasotzeko eskubidea [10.2.c) art.: oro har, hilabete bat eskaera jaso zenetik; eskaeraren tamainak eta konplexutasunak epe hori betetzea galarazten badute, bi hilabete eskaera jaso zenetik].
- e. Informazioa zein modu edo formatutan lortu nahi dugun aukeratzeko eskubidea (formatu elektronikoan, paperezko kopian, etab.), betiere 11. art.n ezarritakoaren arabera (salbuespenak: beste formatu batean hedatutakoari igortzea edo arrazoizkotzat jotzea).
- f. Informazioa, zati batez edo osorik, ez emateko arrazoiak zeintzuk diren jakiteko eskubidea; baita erantzuteko epea luzatzearen arrazoia edota informazioa eskatutako formatuan eman ez izanari buruzkoa ere.
- g. Jasotako informazioaren truk zenbat eta zein kasutan ordaindu behar den jakiteko eskubidea (tasa eta prezio publikoen zerrendaren arabera), horiek galdatzeko edo salbuesteko (adib., HHAk) inguruabarrak ere bai.
- h. Faktore eragileei buruzko informazioa eskatzeko eskubidea: neurketa metodoari, analisiari, laginketari, laginen tratamenduari eta erabilitako prozedura normalizatuari buruzko informazioa non jaso dezakeen jasotzeko eskubidea.

EIALren 15.2 art.: “Ingurumen-informazio jakin eta zehatz bat ez bada zabaldu, edo informazio horrek ez badauka sarbide publikorik, zeinahi pertsonak eskatu ahal izango dio informazio hori bere esku daukan agintari publikoari.”.

- Herritar guztiak, oro har:
 - Edozein pertsona fisikok edo juridikok, baita elkartek, erakundek eta taldek ere (adib., GKE, EBko kide ez diren edozein Estatuko nazionalak barne).
 - Jurisprudentziak zabaltzen du HHAAen bestelako erakundeei.
 - Beraz, ez da zergatik prozeduran interesatua edo zuzenean eragiten dion herritar bat izan behar ahalmen hori edukitzeko.

4.8.4. Eskubidearen subjeto pasiboa

Aarhuseko Hitzarmena (2.2 art.): “agintaritza publiko”tzat ulertzen da:

- a. Administrazio publikoa, Estatukoa, eskualdekoa edo beste edozein mailatakoa.
- b. Barne-zuzenbidearen eraginez, administrazio funtzio publikoak betetzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak, batez ere ingurumenarekin lotutako zeregin, jarduera edo berariazko zerbitzuak betetzen dituztenak.
- c. Ingurumenarekin lotutako erantzukizunak edo funtzio publikoak bere gain hartzen dituen edo arlo horretako zerbitzu publikoak egiten dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko, betiere a) eta b) kategorien barruko organo edo pertsona baten agintaritzapean egiten badute.

17. art.k erreferentzia egin eta Hitzarmen honetan zati diren edozein eskualdeko integrazio ekonomikoaren erakundeak. Definizio horrek ez ditu barne hartzen botere judizialean edo legegilean diharduten organoak edo erakundeak.

Informazioa emateko betebeharra dute:

- Estatu zentralerako, AAEEko eta hiri-autonomoetako gobernuek.
- Herri-administrazio guztiak (Europakoak, Estatuko Administrazio Orokorra, AAEEtakoak, Foru-administrazioak eta toki-administrazioak, horien menpe dauden zuzenbide publikoko erakundeak ere bai).
- Kontsulta-administrazioak: kontsultarako edo aholkularitzako organo publikoak (adib., Espainiako Estatu Kontseilua, Herriaren Defendatzailea; Euskadiko COJUA Batzorde Juridikoa, Arartekoa).
- Zuzenbide publikoko korporazioak: elkargo profesionalak, arrantzale-kofradia, merkataritza-ganbera, ureztatzaileen elkargoak eta konpentsazio batzordeak, betiere funtzio publikoak egikaritzen dituztenean.
- Eginkizun publikoak egikaritzen dituzten pertsonak (notarioak eta erregistratzaileak, jabetza eta merkataritza-erregistroetako langileak eta ondasun higiezinaren erregistroetakoak barne).
- Edozein pertsona fisiko edo juridiko, erantzukizun publikoak bere gain hartzen dituztenean, ingurumenarekin lotutako funtzio publikoak betetzen dituztenean edo zerbitzu publikoak eman eta arestian aipatutako entitate, organo edo erakunderen baten agindupean dagoenean.
- 19/2013 legeak zerrenda hori zabaldu du: besteak beste Errege Etxea, Lan Istripuen Mutuak, enpresa erakunde publikoak edo %50eko kapital soziala baino gehiago kapital publikoa duten erakunde publikoak; sektore publikoko fundazioak, alderdi politikoak, erakunde sindikal eta enpresaburu-erakundeak (ikus. 2-4. art.k).

Ez ditu zertan bildu [2003/4/EB zuzentarauaren 2.2 c) art.]:

Organo legegileak [Estatuko eta AAEEtako parlamentuak; alabaina, 19/2013 legearen 2.1.f) art.: Espainiako Diputatuen Kongresua eta Senatua].

Organo judizialak [auzitegiak edo epaitegiak; haatik, 19/2013 legearen 2.1.f) art.: KA, BJKN eta Kontuen Auzitegia].

- EAEn ingurumenarekin lotutako kontsultak egiteko, Udalen, Foru-Aldundien edota EJko ingurumen sailetara jotzea da ohikoena.

Halere, badira informazio hori sortu eta emateko gaitasuna duten bestelako HHAA nahiz erakunde publiko eta pribatuak ere bai.

- EJ eta horren sail desberdinek zein organo publiko aholkuemaileak: Ingurumenerako Aholku Batzordea, Uraren Euskal Batzordea, Naturzaintza, Industria Segurtasunerako Kontseilua, Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordea, Lurraldearen Antolamendurako Batzordea, etab. Baita erakunde autonomoek, zuzenbide pribatupeko elkarte edo enpresa publikoek eta euskal Administrazioaren partaidetza duten orotariko erakunde eta elkarteak ere.
- Foru-Aldundiek eta horien Departamentuek. Baita organismo autonomo eta foru-izaera duten enpresa publikoek eta horien guztien partaidetza duten partzuergo eta erakunde publikoek.
- Udalek eta, aurreko kasuan bezala, organismo autonomoek, publikoek, eta udalen partaidetza duten partzuergo, mankomunitate eta orotariko elkarte eta erakundeak.
- Zuzenbide publikoko korporazioek: nekazaritzako ganberak, kofradiak, kontseilu arautzaileak, elkargo profesionalak, merkataritza, industria eta nabigazio ganberak, etab.
- Ingurumenari buruzko informazioa duten enpresa edo erakunde pribatuak, baldin eta HHAA baten aginduz arlo horretan jardun badute. Adib., hornikuntza eta saneamendu enpresen kasua, hondakinak batu eta kudeatzeaz arduratzen diren enpresen kasua, etab.

4.8.5. Ezeztatzeko arrazoiak

Arau orokorra informazioa zabaltzearen aldekoa izan behar da.

- Informazioa eskuratzeko eskubidearen salbuespenak modu murriztailean interpretatu eta aplikatu behar dira (ikus. EEJAren jurisprudentzia; adib., *WWF UK* EBren aurka, T-105/95 gaia).
- Agintari publikoek, modu argian, arrazoituan eta proportziozkoan zehaztutako kasu zehatzetan baino ezingo dute ukatu ingurumenari buruzko informazioa.
- Informazio guztia ezin da *beti* herritarrenganako eskuragarri egon; izan ere, datu nahiz prozedura batzuk konfidentzialak izan daitezke intimitateari eragiten badiote, edo jabetza intelektualeko (adib., egiletasunari) edo industrialeko (adib., patentei, markei) sekretuaren eta isilpekotasunaren babespean egoteagatik.
- Hori dela eta, informazioa eskuratzeko eskubidea *egoera batzuetan* beste pertsonen eskubideen edo interes orokorraren gainetik egon behar du, eta horrek esan nahi du ukatu *daitekeela*.

Ukatzeko arrazoi orokorrak edo formalak (27/2006 legearen 13.1 art. eta 19/2013 legearen 18.1 art.): EZ da informazioa eskaera onartutako:

- a. Eskatutako informazioa ez dagoenean agintari publikoaren edota horren menpeko beste erakunderen baten esku.

Kasu horretan, organo eskudunari [ezagutzekotan; ezezkoan, 19/2013 legearen 18.1.d) eta 18.2 art.k] ahalik eta lehenen igortzeko eta eskatzaileari jakinarazteko betebeharra.

- b. Eskaera ez denean arrazoizkoa; adib., eskatutako informazioaren bolumenak administrazio-zerbitzuak geldiarazten dituenean [era berean, 19/2013 legearen 18.1.e) art.].
- c. Eskaera orokorregia denean, hau da, eskatzaileari aholku eta laguntza emateko ahaleginak egin arren, agintari publikoak eskatutako informazioa zein den zehazki identifikatzeko arazoak dituenean.

Eskaera bat ez da sinpleegia agintarientzako gogaikarria izan, eskatzailearen asmoekin bat ez etorri edo HHAAen lana areagotzeagatik.

Eskaera zehazgabea bada, interesdunari eskatuko zaio zehaztea (10 eguneko epean, 19/2013 legearen 19.2 art.) eta lagunduko zaio hilabetea igaro baino lehen.

- d. Eskaera prestatze bidean dagoen materialari edota bukatu gabe dauden dokumentuei edo datuei (# prozedurei) buruzkoa bada: agintari publikoak *aktiboki* lantzen ari dituen zirriborroak, behin-behineko datuak, etab. [era berean, 19/2013 legearen 18.1.a), b) eta c) art.k]. Arazoa: noiz dago dokumentu bat amaitu gabe?

Uko horren jakinarazpenean adierazi behar da nor den material hori prestatzen ari den agintaria; era berean, prestateta hori bukatzeko aurreikusi den epea ere jakinarazi behar da. Adib., zentral nuklear batean egindako ikuskaritzaren emaitza ez da prestatze bidean dagoen dokumentua, informazio osoa baizik; horrela ebatzi dute Auzitegiek.

- e. Eskaera barne-komunikazioei buruzkoa denean, ezagutarazitako informazioaren interes publikoa handiagoa denean salbu.

Ukatzeko arrazoi substantiboak edo bereziak (27/2006 legearen 13.2 art. eta 19/2013 legearen 14.1 art.): EZ da informazioa eskaera onartutako:

- a. Agintari publikoen prozeduren konfidentziasunari, hori lege- mailako arau batean ezarrita dagoenean.
- b. Nazioarteko harremanei, defentsa nazionalari edota segurtasun publikoari [era berean, 19/2013 legearen 14.1.a), b) c) eta d) art.k].
- c. Prozedura judizial bati lotuta dauden auziei edo gaiiei nahiz epaitegietan izapidetzen daudenei, babes judizial eragingarriko eskubideari edo zigor edo diziplinazko ikerketa bat egiteko gaitasunari [era berean, 19/2013 legearen 14.1.e eta f) art.k].

Auzia prozedura judizialari edo izapidetzen daudenei lotuta badago, zein organo judizialetan izapidetzen den identifikatu beharko da.

- d. Merkataritzako eta industriako izaera duten datuen konfidentzialtasuna: industriako sekretuak, estatistika sekretua eta sekretu fiskala barne.
- e. Jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideei, salbu eta titularrak horiek hedatzea onartu duenean [era berean, 19/2013 legearen 14.1.j) art.].
- f. Datu pertsonalen izaera konfidentziala, betiere informazio horren interesdunak ez duenean horien tratamendua edo ezagutaraztea onartu (adib., kaltetuen izen-abizenak, NAN, helbideak, etab.).
- g. Informazio horren bidez beste pertsona baten eskubide eta interesak kaltetzen direnean, betiere informazio hori borondatez eman denean eta indarreko legeriak agindu gabe, salbu eta pertsona horrek informazioa zabaltzea onartu duenean.

Izan ere, norbanakoek agintari publikoei nahitaez eman beharreko informazioa beti izango da eskuragarria.

- h. Eskatutako informazioak ingurumenaren babesari kalte egiten dionean. Zehazki, mehatxupean dauden espezieen kokalekuari edota espezie horien ugalketa-lekuei buruzkoak [era berean, 19/2013 legearen 14.1.l) art.].

EIALren 15. art.: “4. Herritarrek ingurumen-informaziorako izan behar duten sarbideari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko urtarrilaren 28ko 2003/4/EB Zuzentarauak eta Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko haren transposizio araudiak xedaturikoa izango dira informazioa ukatzeko arrazoiak, baina kasu guztietan, interpretazio murriztailea egin beharko zaie. Ukatzeko arrazoi horiek aplikatu ahal izango dira aurreko artikuluan jasotako hedapen-betebeharrei dagokienean.

5. “Informazioa ukatzeko erabakiaren kontra legearen arabera dagokion errekurtsio administratiboa jarri ahal izango da.”.

Ezeztapenaren irismena moteltzen duten printzipioak:

- Banantze edo zatikako horniduraren printzipioa (sarbide partziala).
Ikus. 27/2006 legearen 14. eta 19/2013 legearen 16. art.k.
- Herritarrari laguntzeko printzipioa.
Informazioa zehazgabea bada, zehaztu dezala eta sorospena emango zaio.
- Ukapena motibatuzko printzipioa.
Ezeztatzeko arrazoiaren interpretazio murriztailea. Ikus. 27/2006 legearen 13.4. art: informazioaren zabalpenerako interes publikoa vs. ukapenaren interesarekin.
- Ingurumenean egindako isurpenei buruzko informazioan, ezeztatzeko zenbait arrazoi ez dira onargarriak.
Ikus. 27/2006 legearen 13.5 art., testu bereko 13.2.a), d), f), g) eta h) letretan jasotako arrazoiei dagokienez.

4.8.6. Prozedura

Ebazteko epea:

- Ahalik eta lehenen.

Gehienez jota, hilabete baten buruan agintaritzaren publiko eskudunaren erregistroan eskaera jaso zenetik [27/2006 legearen 10.2.c)1.º art.].

- Salbuespenez, bi hilabetera luza daiteke informazioaren bolumenak eta zailtasunak ezinezkoa egiten badute aurretik adierazitako epe hori betetzea, betiere hilabete baten buruan eskatzaileari jakinarazita, hori justifikatzeko arrazoiekin batera [27/2006 legearen 10.2.c)2.º art.]. Era berean, ikus. 19/2013 legearen 20.1 art.
- 27/2006 legean ez zaio erreferentziarik egiten hirugarrenen arrazoibideei (19/2013 legean, ordea, 15 eguneko epea ematen zaie; ikus. 19.3 art.).

Prozedura amaitzea:

- Datuak ematea: kopien bidezko kostuaren ordaintzea (3/1998 legearen, otsailaren 27koa, 17.2 art. eta 27/2006 legearen lehenengo XG).
- Ukapen ebazpena: motibazioa. Birjartze errekurtsua HHAA beraren aurka (oro har, borondatezkoa, hilabeteko epean jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita) eta, ezezkoan, gorajotze errekurtsua administrazioarekiko auzietako epailearen aurrean (bi hilabeteko epean, ikus. AAJLren 46.1 art.).

“Informazio publikoa eskuratzearen arloan emandako ebazpenen aurka errekurtsua jarri ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, hartara eragotzi gabe 24. artikuluan aurreikusitako aukerako erreklamazioa jartzea”. (19/2013 legearen 20.5. art.).

- Administrazio isiltasuna:

“Ebazteko gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera ez dela onartzen ulertuko da.” (19/2013 legearen 20.4 art.).

Informazioa emateko betebeharra duen organoak ez badio erreklamazioari erantzunik ematen hiru hilabeteko epean (oro har; gehienez jota sei hilabeteko epea lege-mailako arau batek halaxe ezartzen badu, ikus. 39/2015 legearen 21.2 art.), herritarrak administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango du HHAAren jarduera ezagatik.

- “Informazioa eskuratzearen arloko ebazpen espres edo presuntziosko ororen aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluari, aukeran eta administrazioarekiko auzibidean aurkaratu aurretik.” (19/2013 legearen 24.1 art.).

“Epe barruan ebazpena emateko betebeharra behin eta berriz ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da, ez-betetze horien erantzuleei arauetan aurreikusitako diziplina-araubidea aplikatzeari dagokionez.” (19/2013 legearen 20.6 art.).

4.8.7 Ingurumen-informazioa zabaltzeko administrazio betebeharrak orokorra

27/2006 legeak ingurumen-informazioari buruz agintaritzza publikoen betebeharrak orokorrak (5. art.) eta berariazkoak (6. art.) arautzen ditu, nahiz eta herritarren eskaerarik ez egon:

- Herritarren eskubideak asetzeko betebeharra [informazioa, laguntza, aholkularitza...ikus. 5.1.a) eta b) art.k].
- Agintaritzza publikoen zerrendak egitea (gutxienez bat AAEE bakoitzeko, publikoki eskuragarri egin beharrekoa) eta ingurumen-informazioaren unitate arduradunak izendatzea [ikus. 5.1.c) eta 5.3.a) art.k].
- Erregistro eta ingurumen-informazioaren zerrendak sortzea [ikus. 5.3.c) art.; adib., E-PR TR erregistroa].
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilpena sustatzea (ikus. 6.4 art.; adib., helbide elektronikoak eta estekak).
- Datuak eguneratzeko eta konparatzeko printzipioak (ikus. EIALren 14. art: sarbide publikoko informazio-sistema iraunkor irisgarria eta datuen berrerabilpena baimentzen duena).
- Barnebidu beharreko gutxienezko edukia (2003ko otsailaren 14tik eskuratutako datuak): nazioarteko hitzarmenak, legeak (eta erregelamenduzko arauak); politikak, programak eta planak (eta horien ebaluazioak); aplikazio aurrerapenei buruzko txostenak; ingurumenaren egoerari buruzko txostenak; ingurumenari eragiten dioten jardueren jarraipenari buruzko datuak edo laburpenak; ingurumenean eragin

garrantzitsuak dituzten baimenak eta akordioak (edo non aurkitu daitezkeen); ingurumen-inpaktuaren ikerketak eta arriskuen ebaluazioa.

- EIALren 13.art: gutxienez urtero ingurumen-egoerari buruzko txostena egiteko eta argitaratzeko betebeharra, eta lau urtean behin txosten osoa (Estatu, AAEE eta, hala badagokio, toki-administrazio mailakoa). Horrek jaso beharko ditu ingurumen-kalitateari buruzko datuak eta jasaten dituen presioak (lurzoruaren artifizializazioa ere bai), laburpen ez tekniko bat barne.
- Informazioari buruzko gainerako administrazio-betebeharrak (giza osasunerako edo ingurumenerako berehalako mehatxua; EIALren 83. art.: ingurumen-aztarna).
- Informazio sistema: [INGURUNET](#) (EJren ingurumen-kudeaketari buruzko informazio eta izapidetza sistema).

Helburua da ingurumenari buruzko edozein administrazio-prozedura bideratzea eta interesdunari eskatzen zaion eta HHAk sortzen duen informazio eta/edo dokumentazioa bateratzea.

4.9. PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

Herritarren parte hartzeko eskubidea sistema demokratikoaren oinarritzko zutabeetako bat da (EKren 9.2 art: errealia eta eraginkorra; 23.1 art.: arazo publikoetan, zuzenki edo ordezkarien bitartez).

Gizarte osoari eragin diezaioketen erabaki publikoak onartzeko prozesuetan hiritarrek parte hartzeak aukera ematen du iradokizunak, iritziak eta kezkek, egokiak izan daitezkeenak eta agintari publikoek kontuan hartu beharrekoak adierazteko (erantzukidetasuna, gardentasuna, herri-kontzientzia).

KAk adierazitakoaren arabera, parte hartzeko izapideen, informazio publikoaren eta herri-kontsulten helburua hau da: herritarrek administrazio-jarduera onestea; izan ere, ingurumenaren alorrean hartzen diren erabaki publikoei nolabaiteko sostengua eman behar diete herritarrek.

1. HHAk egindako, berrikusteko edo eraldatutako lege proiektuetan, erregelamenduetan edota ingurumen planetan nahiz programetan parte hartzea.

Oro har, eskubide hori ezartzen da arauak egiteko prozesua arautzen duten legeetan (adib., APAPPEL), baina ingurumen arloan legeriak eskubide gehiago aitortzen dizkie parte hartzaileei (zerrenden sistema gaintzen da).

2. Ingurumen arloko zenbait administrazio-prozeduretan parte hartzea (adib., baimen zein lizentzia zehatzetan; batez ere, informazio publiko orokorraren eta interesdunei entzuteko izapideen bitartez).
3. Ingurumen izaerako administrazio-organoetan parte hartzea:

Adib.: Espainiako Estatuko Ingurumen Kontseilu Aholkularia, EAeko Ingurumen Kontseilu Aholkularia eta beste sektore jakinetako organoak (Parke Naturalen Patronatuak, etab.).

Oro har, kontsultarako organoak izaten dira, ez lotesleak.

Horietan parte hartu ohi dute, HHA eta bestelako gizarte ordezkariekin batera, gizarte zibileko ordezkariak, ekologia-elkarteek izendatutako adituak edo erakunde zientifikoak.

4. Arestian aipatutako prozeduretan parte hartzeko ingurumen alorreko elkarten sorkuntza edo bizitza sozialean parte hartzen dutenak (EKren 22.1 art.aren elkartze eskubidearen egikaritza).
5. Parte hartze kooperatiboa izenekoaren bitartez (HHAekin erasandakoen edota elkarten borondatezko akordioak, ingurumen emaitza jakina lortzeari baldintzatutako dirulaguntzak, lurraldea artatzeko akordioak, etab.).

Parte hartzeko eskubide orokorrak: ingurumen erregelamenduak, planak edo programak egiteko edo eraldatzeko parte hartzea dela eta, baita ingurumen-arloko administrazio-prozedura zehatzetan ere, 27/2006 legearen 16.1 art.k honakoa galdatzen du:

1. Herritarrei egindako proposamenei buruzkoa informazioa era ulergarrian ematea, parte hartzeko prozesuari buruzko informazioa emanez.
2. Ingurumenari zuzenean nahiz zeharka eragiten dioten gaien inguruan erabakiak hartzeko prozeduretan modu erreal eta eraginkorrean parte hartzeko eskubidea (era berean, ikus. EIALren 16.1 art.).
3. Parte hartu ahal izateko *beharrezkoa* den informazio *garrantzitsura* aurrerapen nahikoarekin sarbidea izateko eskubidea.
4. Prozeduraren hasierako faseetan, aukera guztiak zabalik daudenean eta erabakia hartu baino lehen arrazoibideak nahiz oharra aurkezteko eskubidea, horiek *behar bezala* kontuan hartzeko eskubidea ere bai.
5. Prozeduraren behin betiko emaitza jakitera emateko eskubidea eta hartutako erabakiaren arrazoiak zeintzuk izan diren jasotzeko eskubidea, parte hartze prozesuari dagokiona barne.

HHAA bakoitzak, ingurumenarekin erlazionatutako planak, programak eta arauak egitean, honakoak bermatu behar ditu:

- Herritarren artean interesdunak nortzuk diren zehaztea, behar besteko aurrerapenarekin, prozeduretan modu eraginkorrean parte-hartzeko aukera izan dezaten (ikus. 27/2006 legearen 16.2 art., 2.2 art.ri igorpena).
 - Interesduna: APAPELn jasotako guztiak (ikus. 4. art.) eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoak, betiere hiru baldintza betetzen badituzte (ikus. 27/2006 legearen 23.1 art.):
 - a. Ingurumena orokorrean edo ingurumeneko elementuren bat babestea helburuetako bat dela egiaztatuta edukitzea estatutuetan.
 - b. Ekintza abian jarri baino bi urte lehenago, gutxienez, legeak ezarritakoaren arabera eraturakoak izatea eta estatutuetan adierazitako helburuak lortze aldera beharrezkoak diren jarduerak *modu aktiboan* gauzatzea.
 - c. Administrazioaren ekintzak —edo, hala badagokio, administrazioaren ez-egitea— ondorioak eragingo dituen lurralde-eremuan beraien jarduerak garatzea, euren estatutuen arabera.
 - EIALren 16. art.: “2. Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek sustatu eta bermatuko dute interesa duten pertsonak eta publiko orokorrak parte hartuko dutela ingurumenean esku hartzeko prozeduretan eta ingurumenarekin zerikusia duten plan, programa eta xedapen orokorren osieran, aldaketan, berrikuspenean eta onarpenean. Parte-hartze horretan aintzat hartuko da genero-ikuspegia.
3. Interesa duten pertsonak eta publiko orokorrak aipatutako prozeduretan parte hartzeko eskubidea baliatu ahal izango dute, zeinahi erabaki hartu aurretik. Horretarako, iritziak, oharra edo alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eta guztiek jaso beharko dute erantzun arrazoituen bat.”
- Estatuko legeria baino zabalagoa da: ez du mugatzen parte hartzeko eskubidea interesdunei, baizik eta publiko orokorrari aitortzen diola.
 - Publikoaren eta interesa duen pertsonen definizioari buruz, ikus. Aarhuseko Hitzarmenaren 2.4 eta 2.5 art.k.

HHAAek egindako erregelamenduen kasuan, parte hartzeari buruzko arauak aplikatuko zaizkie honako hauei buruz aritzen direnean (ikus. 27/2006 legearen 18.1 art.):

- a. Uren babesa.
- b. Zarataren kontrako babesa.
- c. Lurzoruen babesa.
- d. Kutsadura atmosferikoa.
- e. Hiri eta landa luraren antolaketa eta lurzoruen erabilera.
- f. Naturaren kontserbazioa, aniztasun biologikoa.
- g. Mendiak eta baso-ustiapenak.
- h. Hondakinen kudeaketa.
- i. Produktu kimikoak, biozidak eta plagizidak barne.
- j. Bioteknologia.

- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> k. Ingurumenera bestelako emisioak, isurpenak eta substantziak askatzea. l. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa. | <ul style="list-style-type: none"> m. Ingurumen arloan informaziora sarbidea, parte hartzea eta justiziara sarbidea. n. AAEEK adierazitako bestelako gaiak. |
|--|---|

Lan arriskuen prebentzioari buruzko erregelamenduetan parte hartzea euren berariazko legegintzak arautuko du (31/1995 legeak, azaroaren 8koak, ez orain arte aztertutako arauak; ikus. 27/2006 legearen 18.2 art.).

Ez dira inoiz aplikatuko erregelamenduetan parte hartzeko arauak, honakoei buruz ari direnean (ikus. 27/2006 legearen 18.3 art.):

- a. Defentsa nazionala, segurtasun publikoa, babes zibileko larrialdi kasuetan edo itsas salbamendua.
- b. Antolaketa, prozedura edo antzeko kontuetan funtsezkoak ez diren aldaketak.
- c. Planak edo programak onesteko helburu bakarra duten prozedurak, zeinak berariazko araudian ezarritakoari makurtuko dira.

Ingurumen planen eta programen kasuan, aztertutako parte hartzeari buruzko arauak aplikatuko zaizkie hauei buruz ari direnean (ingurumenarekin zerikusia, baina ez dute zertan ingurumenean eragina izan, ikus. 27/2006 legearen 17.1 art.):

- a. Hondakinak.
Hondakin-planak; adib., LLHHeK hiri hondakin solidoen kudeaketaren esparru plangintza egiteko foru-plana.
- b. Pilak eta metagailuak.
- c. Nitratoak.
- d. Ontziak eta ontzien hondakinak.
- e. Airearen kalitatea.
- f. AAEEtako araudiak ezarritako gainerako arloak.

Planen eta programen parte hartzea euren berariazko legegintzak arautzen du (ez orain arte aztertutako arauak) honakoetan (ikus. 27/2006 legearen 17.2 art.):

- a. Uren gaietan.
- b. Ingurumen ebaluazioaren objektu izan behar direnetan.

Ez dira inoiz aplikatzen planetan eta programetan parte hartzeko arauak, honako helburuak dituztenean (ikus. 27/2006 legearen 17.3 art.):

- a. Defentsa nazionala.
- b. Larrialdietako babes zibila.

Ingurumen administrazio prozedura zehatzetan parte hartzeko kasuan, Estatuko legeriak gutxienez jasotzen du herritarren parte hartzea honakoa egiten den prozeduretan:

- 1. Kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuaren arloko baimenetan (Ingurumen Baimen Bateratua).
- 2. Genetikoki eraldatutako organismoei buruzko legegintza emakidetan.
- 3. Ingurumen-inpaktuaren adierazpenetan (ingurumen inpaktuaren ebaluazioan).

Baina badira ingurumenarekin lotutako bestelako administrazio prozedurak, eta horien arauak ere ezartzen dituzte publiko orokorraren parte hartzerako mekanismoak (jarduera sailkatuen lizentziak, ingurumen baimen bakarrak, baimenak lurzoru urbanizaezinean, itsas-lurreko jabari publikoan kontzesioak eta baimenak, etab.).

Akzioa publikoa:

- Espainiako Estatuko HHA AEi galdatzeko, 27/2006 legearen 22. art.: agintaritza publikoei egozgarri zaizkien ekintzak edo, hala badagokie, ez-egiteak 18.1 art.n zerrendatutako ingurumenarekin lotutako arauak urratzen dituzenean, irabazi-asmorik gabeko edozein pertsona juridikok errekurri ditzake, 23. art.n ezarritako betekizunak betetzen badituzte.
- EA Eko herri-administrazioei galdatzeko, EIALren 17. art.: “2. Nornahik eskatu ahal izango die eskumena duten administrazioei ingurumen-legez kotasuna berrezartzeko neurriak edo ingurumen-kalteengatiko erantzukizuneko neurriak hartzea, eta lege honetan xedatutakoaren arabera arau-haustea izan daitezkeen jardunak salatzea.”.

Herritarren parte hartzeko eskubidea urratzekotan, ingurumenarekin lotutako administrazio-ekintzak (erabakiak) edo ez-egiteak errekurritzeko modukoak dira (APAPELk eta AAJLk aitortutako helegiteak; Arartekoaren edota Herri Defendatzailearen aurreko keaxak; EPren aurreko eskaria, EBren aurreko kexa edo salaketa).

Parte hartzeko eskubidea hiru mailatan urratu daiteke ingurumen arloko erabakiak hartzeko uanean:

1. Parte hartzeko eskubidea egikaritu ahal izateko behar den informazioa (informazio osoa, egiazkoa eta ulergarria) ematen ez denean.
2. Administrazio-prozeduran parte-hartzeari oztopoak jartzen zaizkionean; hala nola, parte hartzeko ezarri diren epeak ez errespetatzea; herritarrei informazio gutzia ez ematea; prozeduraren hasieran parte-hartzea eragozte (aukera eta hautabide guztiak zabalik daudenean); hartutako erabakien edota parte-hartzearen oinarriari buruzko informaziorik ez ematea herritarrei.
3. Prozeduraren fase jakin batzuetan parte hartu ahal izateko legebidez taketa edota akreditazioa eskatzen zaienean herritarrei, horretarako beharrik ez izan arren.

4.10. JUSTIZIARA SARBIDEA, BABES JUDIZIALERAKO ESKUBIDEA ETA INGURUMEN BABESA

Informazioa eta parte hartze eskubidea urratu badira, justiziara jotzeko eskubideak esan nahi du errekurtsioak aurkez daitezkeela: 39/2015 legeko administrazio errekurtsioak bide administratiboan eta bide judizialean 29/1998ko administrazioarekiko-auzi errekurtsioak.

Administrazioak ebazpen baten bidez pertsona bati ingurumen arloko informazioa ukatzen badio, eskatzaileak bizpahiru aukera ditu:

1. Administrazio bidean, aukerazko birjartze errekurtsioa aurkez dezake, egintza eman zuen organoaren aurrean. Hilabeteko epea du errekurtsioa aurkezteko. Administrazio-bidea agortu ez bada, gorajotze administrazio errekurtsioa aurkez dezake.
2. Administrazio-bidea amaitzean, eskatzaileak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri dezake egintza eman eta bi hilabeteko epean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

Administrazioak epe barruan erantzunik eman ez badio, oraindik ez dago adostasunik nola jokatu behar den. Bi aukera daude:

1. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluari erreklamazioa jarri eta ondoren auzitegietara jo.
2. Auzitegietara jo aurretik, informazioa ukatzerako ebazpenen aurka jartzen diren administrazio-errekurtsioak berak jarri.

Ingurumen babesaren jurisdikzio zibilean:

1. Ezeztatze akzio judiziala (ingurumen jarduera kaltegarria geldiaraztea norbanakoaren eskubidea lesionatzeagatik; oro har, jabetza eskubidea).
2. Ordaintze akzio judiziala edo erantzukizun zibilekoa (norbanakoaren eskubidea urratzeagatik kalteordainaren erreklamazioa).

Ingurumen babesaren zigor jurisdikzioan:

- Lurralde antolaketaren eta ingurumenaren aurkako delituak herri akzioaren objektu izan daitezke eta horiek egikaritu ditzake edozein herritarrak edo elkartek, zigor arloko auzitegietan jazartzeko (Fiskaltzak eta delituaren kaltetuek ere prozesua abian jar dezakete). Ofiziozko epaileak erabaki du prozedura laburtua irekitzen duen, edo denuntzia edo kereila ez duen onartzen.

Ingurumen babesaren administrazioarekiko-auzien jurisdikzioan: administrazioarekiko-auzien errekurtsioa jar daiteke:

- Goi-mailako arauak xedatutakoa urratzen duen erregelamenduaren aurka.
- Arau juridiko batean xedatutakoa betetzen ez duen administrazio-egintzaren kontra.
- Administrazioaren zuzenbidearen aurkako gelditasunaren kontra.
- Norbanakoen ondasunei edo eskubideei egindako kalteengatik Administrazioaren ondare erantzukizuna eskatuz.

Ingurumen babes judizialaren eskubidea egikaritzeko arazoak administrazioarekiko-auzien esparruan:

1. Agintaritza publikoen ingurumen erregelamenduak, egintzak edo ez-egiteak aurkaratzeko legebideztaketa.
Estatuko araugintza orokorra: interesdunak (eskubideen titularrak eta erasandako interesen titularrak) eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoak (adib., GKE, elkarteak) egin ditzakete, betiere hiru betekizunekin:
 - a. Ingurumenaren babes izatea ziurtatutako jomugen artean.
 - b. Ekintza abian jarri baino bi urte lehenago sortutakoak izatea.
 - c. Beraien jarduerak garatzea Administrazioaren ekintzak erasandako lurralde-eremuan.

Ingurumen elkarte horiei doako laguntza juridikoa aitortzen zaie (ofiziozko abokatuak).

Herri-akzioaren arazoa (edozein herritarrak legebideztaketa du ingurumen gaietan auzitegien aurrean): konstituzio aurkakoa lege autonomiko batek aitortzen duenean (ikus. KAren 15/2021 epaia, 2021eko urtarrilaren 28koa). Kritikak eta aldatzeko aukerak.

2. Ingurumenaren babes eragingarriko kautelazko judizio neurrien garrantzia (jardueraren kautelazko etetea, ikus. AAJLren 129-136. art.k eta 39/2015 legearen 117.2 art.).

Irizpideak:

- a. Xedea prozesuaren etetea lortzea da.
 - b. Neurria gauzatzeak ekarriko lituztekeen kalteak *zalantza barik* egiaztatu behar dira.
 - c. Proiektuak ekarriko dituen konpondu ezineko kalteak identifikatu behar dira.
 - d. Administrazio-egintzak erabateko deuseztasun-akats *nabarmena* duen argitu behar du.
3. Fidantzen edo bankuko abalen arazoa kautelazko judizio neurriak onartzeagatik (atzeratzeagatik pairatutako kalteak, eskuratu gabeko irabaziak).
 4. Epaian betearazpen arazoa (betearazpen intzidentea, epaiaren desjabetzea, baliozkotze legeak, etab.).

5.gai. INGURUMEN-ERANTZUKIZUNA

5.1. SARRERA

Arazoa: erantzukizun sistema horiek beti ez dira eraginkorrak naturaren elementuei eragiten zaizkien kalteak konpontzeko (adib., jabari publikoko ondasunetan: indibidualizazioa, kuantifikazioa, etorkizuneko kalteen babesa, etab.).

Administrazioak bi printzipio aplikatu eta bermatu behar ditu:

1. Zuzenketaren printzipioa, kaltetutako ingurumen-balioa *in natura* konpontzeko.
2. “Kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioa, ekonomikoki kaltea konpontzeko.

Prebentzioaren beharra (kalteak saihesteko kostuak).

5.2. LEGE ESPARRUA

2004/35/EB Zuzentaraua, EPrena eta EKrena, 2004ko apirilaren 21koa, ingurumen erantzukizunari buruzkoa ingurumen kalteen prebentzioari eta konponketari dagokienez.

- Oinarria: kutsatzen duenak ordaintzen du.
 - Konponketak egiteko modua erabakitzeko, tokiko inguruabarrak kontuan hartuko dira.
 - Erantzukizun arau zorrotzagoak onartzen ditu; beraz, Estatu kideen arteko desorekak egon daitezke.

2013/30/EB Zuzentaraua, EPrena eta EKrena, 2013ko ekainaren 12koa, itsas zabalean burutzen diren petrolio eta gasarekin loturiko lanen segurtasunari buruzkoa (Prestige kasua zela eta).

26/2007 Legea, urriaren 23koa, Ingurumen Erantzukizunari buruzkoa.

- Ingurumenean kalteak eragiten dituzten edo eragin dezaketen operadoreek kalteak gerta daitezten ekiditeko beharrezko neurriak hartu beharko dituzte edo, kalteak eragin badira, kaltetutako natura baliabideak kaltearen aurretik zeuden egoerara lehengoratzekoak (prebentzioa edo konponketak eta kostuen ordainketa, ikus. 9.1 art.).
- Legearen III. eranskineko jarduerak burutzen dituzten operadoreek finantza-bermea izan beharko dutela xedatzen du, jarduera horiekin loturiko ingurumen-erantzukizunari aurre egin ahal izateko.
 - Industria kutsatzaileak, ur isurketak, hondakinen garraio eta kudeaketa, merkantzia eta substantzia arriskutsu eta kutsatzaileen garraioa, genetikoki eraldatutako organismoen erabilera, baita urtegiak eta ur kaptazio jarduerak ere.
- Jarduera publiko eta pribatuek ingurumen-kalte esanguratsuak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko erantzukizun sistema berria ezartzen du. Ez ditu aurrekoak ordezkutzen, baizik eta osatzen dituela.
 - Ingurumen-kalteak administrazio-bidetik konpontzea ahalbidetzen du, aldez aurretik zehapen-espedienterik edo zigor-espedienterik ireki beharrik gabe.
 - Mugarik gabeko erantzukizuna: ingurumen-kalte nabarmenak eragin dituztenek horiek guztiz konpontzera derrigortuta daude, baita konponketa horren kostua finantza-bermearen estaldura baino handiagoa denean ere.
 - Erantzukizun objektiboa; hau da, 26/2007 legearen III. eranskinean jasotako jardueretan doloa, erruduntasuna edo zuhurtziagabekeria alde batera utzita.
 - Ingurumen-arriskuen azterketa eta finantza-bermea: III. eranskinean jasotako jarduerak ingurumen-arriskuen azterketa egiteaz gain, ingurumen-erantzukizunari aurre egitea ahalbidetzen duen finantza-bermea eratu behar dute, Ingurumeneko Ministerioari dagozkion aginduek ezarritako erregelamenduen bitartez hala xedatzen denean.

- Babestutako kalteak: natura baliabide jakin batzuetan gertatutako kalte *esanguratsuak* babestu nahi ditu, legeak ezarritako irizpide neurgarrien arabera; hain zuzen ere, hurrengo baliabideetan:
 1. Babestutako natura espezie eta habitatei eragindako kalteak.
 2. Uretan eragindako kalteak (azaleko zein lurpeko ur-masen egoera ekologiko, kimiko eta kuantitatiboan nahiz asko aldatutako ur-masa artifizialen ahalmen ekologikoan; eta itsas uren egoera ekologikoan).
 3. Itsasoko eta itsasadarretako ur-bazterretan (horri dagokionez, horien osotasun fisikoan eta behar bezalako kontserbazioan eragina duen edota kalitate-mailari eragiten dion edozein kalte nabarmen hartzen da kontuan).
 4. Lurrean (giza osasunaren edo ingurumenaren aurkako efektuak eragin ditzaketen lurzoru kutsadurak).
 - Babesik gabeko kalteak (ikus. 3.4 eta 3.5 art.k): aireari (atmosferari) eragindakoak; norbanakoei eta ondasunei eragindako ohiko kalteak; eta salbuespenezko kalte naturalak (saihestezinak eta jasanezinak), gatazka armatuak eragindakoak (gerra zibilek eta etsaitasunek, besteak beste) edota kalte nuklearrak.

- Nork konpondu behar ditu ingurumen-kalteak? Jarduera ekonomikoa edo profesionala burutzen duten operadoreek
 - III. eranskinean jasotako jardueren operadoreek kalte *esanguratsua* konpontzeko neurriak hartu behar dituzte derrigorrean beti, baita dolorik, erruduntasunik edota zuhurtziagabekeriarik ez denean gertatu; halere, egitearen (edo ez-egitearen) eta kaltearen arteko kausalitate harremana frogatu beharko da. Kalte zehaztugabeen arazoa: hainbat jarduera egon eta ez bada posible eragilea identifikatzea.
 - III. eranskinean jaso gabeko jardueren operadoreek, berriz, bakarrik doloa, erruduntasuna edo zuhurtziagabekeria gertatu denean.
 - Prebenitzeko edo saihesteko neurriak, operadore guztiei galdatzen zaizkie.

Salbuetsita: erantzukizun zibileko ohiko kasuetan; administrazio baimena duen jarduera bat izan bada kaltearen kausa zuzena; eta garapen edo aurrerapen kalteak, kaltea gertatzean zeuden ezaguera zientifiko eta teknikoak aintzat hartuta, jarduera, emisioa edo produktuaren erabilera ez zenean potentzialki kaltegarria (adib., genetikoki eraldatutako organismoak).

- Epea: operadoreak kaltea konpontzeko betebeharra izango du, baldin eta:
 - 2007ko apirilaren 30aren ostean eragin badu, eta
 - 30 urte baino gutxiago igaro badira ingurumen-kalteak eragin zituen azken emisioa, gertakaria edota gorabehera gertatu zen egunetik edota hori guztiz amaitu zen egunetik zenbatzen hasita.
 - Beraz, legeak ez du atzeraeragintasunik; ondorioz 2007ko apirilaren 30a baino lehen sortutako kalteei ez zaie aplikatzen. Bestalde, emisioa edo kausa gertatu zenetik dagoeneko 30 urte igaro badira, ez da aplikatuko.
- Operadorearen betebeharrak (ikus. 17, 19 eta 20. art.k): ingurumen-kaltea eragiteko arriskua antzematen duenean edo kaltea gertatu denean:
 - Administrazioako agintari eskudunari berehala jakinarazi, administrazio-ohartarazpenik gabe.
 - Berehala behin-behineko prebentzio edo konponketa neurriak hartu baliabide naturalak jatorrizko egoerara lehengoratzeko, eta ekintza horien ondoriozko kostu guztiak ordaindu.
 - Konponketa-proiektua aurkeztu agintariari horrek onar dezan.
 - Konponketa-proiektuaren edukia: kaltearen eragilea identifikatu beharko du (adib., fisikoa, kimikoa, biologikoa), kaltearen kuantifikazioa egin, baita kaltearen intentsitatea ebaluatu ere; eta

konponketa-neurrien proposamena egin. Halaber, kalte berriak sortzeko neurriak behartzen dira, kalte handiagoak ekiditera zuzenduta, kaltea eragin duten faktoreak kontrolatuz edo ezabatuz.

- Konponketa-neurriak, II. eranskinari jarraiki, lehen mailakoak (lehentasunezkoak), osagarriak (baliabide naturalak lehengoratzeari posible ez denean) eta konpentsaziozkoak (behin-behineko galerei eusteko; zenbat eta denbora gehiago, orduan eta kostu handiagoa) izango dira.

- Administrazioaren betebeharrak (ikus. 23. art.):

- Operadoreak berak egiten ez badu, agintari eskudunari dagokio kalteak prebenitzea eta egoera lehengoratzeari (ezin bada itxaron, operadore erantzulea ezin bada identifikatu, hainbat operadore arduradun badaude, ondasun publikoetan edo hirugarrenen ondasunetan jardun behar bada, etab.). Konpontzen ez duen operadoreari errekerimenduak, nahitaezko exekuzioak edota zigorrak ezarri.
- Agintari publikoek ez badute ezer egiten, interesdunek administrazio jarduerari bultzatu eta administrazio-errekurtsoak zein administrazioarekiko auzibide-errekurtsoak jar ditzakete.

- Ingurumen-erantzukizuna eskatu eta kalteak konpontzeko administrazio-prozedura:

1. Erantzukizuna eskatzeko prozedurari hasiera ematea, ofizioz Administrazioak, operadoreak edo interesdun batek eskatuta (interesdunak kalteengatik mehatxatutako eskubide eta bidezko interesen jabeak izango dira, ingurumena babesteko elkarteak eta baita neurriak hartu behar diren tokiko lurren jabeak ere).
2. Behin-behineko neurriak hartzea, presazkoak, kalte handiagoak prebenitzeko eta saihesteko.
3. Administrazio-ebazpena, ingurumen-erantzukizuna eskatzen duena edo halakorik eskatzen ez duena.
4. Kaltea eragin duenak konponketa-proiektua egitea eta aurkeztea.
5. Agintari eskudunak proiektua onartzea.
6. Adierazitako proiektua abian jartzea, zaintzea eta jarraipena egitea.
7. Enpresak azken betetze-txostena aurkeztea.
8. Agintari eskudunak adostasuna adieraziko du (isiltasun positiboa).

- Kaltea konpontzeko erantzukizunaren irismena:

- Baliokidetasunaren azterketa deritzon metodologia erabiliz finkatuko da.

- Derrigorrezko finantza-bermea osatzea (ikus. 24. art. eta hurrengoak):

- III. eranskinean jaso diren jardueren operadoreek, derrigorrez (salbuespena, 28. art.); gainerako operadoreek, ordea, borondatez.
- Finantza-bermearen modalitateak (ikus. 26. art.): Aseguruen Konpentsazioko Partzuergoak kudeatutako Funtzarekin osatutako aseguruaren poliza, finantza-erakunde batek emandako abala eta erreserba teknikoa (adib., altxorren letrak).
- Finantza-bermearen zenbatekoa ingurumen-arriskuen azterketaren bitartez zehaztuko da behin betikotasunez (baremo-taula). Ingurumen-arriskuen azterketa hori egiaztatutako erakunde independente batek ziurtatuko du agintari eskudunak onartu aurretik (gehieneko estaldura muga, 20 milioi euro; ikus. 30.1 art.). Dena den, oraindik ez da Ministerio Agindurik egin ingurumen-arriskuen azterketa arautzeko (hori argitaratu arte, ezin zaio operadore bati eskatu, horren menpeko langileei ere ez).

11/2014 Legea, uztailaren 3koa, 26/2007 Legea, urriaren 23koa, Ingurumen Erantzukizunari buruzkoa eraldatzen duena.

2090/2008 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, 26/2007 legearen, urriaren 23koa, Ingurumen Erantzukizunari buruzkoa partzialki garatzeko Erregelamendua onartzen duena.

- Besteak beste, derrigorrezko finantza-bermearen oinarritzko alderdiak arautzen ditu: zenbatekoa zehaztu, finantza-bermearen modalitateak (abala, erreserba teknikoa eta aseguruaren poliza), baita derrigorrezko finantza-bermearen zenbatekoa zehazteko prozedura ere.

ARM/1783/2011 Agindua, ekainaren 22koa, derrigorrezko finantza-bermea osatzeko lehentasun ordena eta ministerio aginduen onarpenerako egutegia ezartzen duena, 26/2007 legearen, urriaren 23koa, Ingurumen Erantzukizunari buruzko 4. amaierako xedapenean aurreikusitakoak.

APM/1040/2017 Agindua, urriaren 23koa, 26/2007 legearen, urriaren 23koa, Ingurumen Erantzukizunari buruzko III. eranskineko jardueretarako derrigorrezko finantza-bermea osatzea galdagarria izango den data ezartzen duena, 1 y 2 lehentasun mailarekin sailkatuak, ARM/1783/2011 Aginduaren, ekainaren 22koa, bitartez, eta horren eranskina eraldatzen duena.

EIAL, ingurumen kalte nabarmenengatiko erantzukizuna.

- 2.1.h) art.: “ingurumenaren kalitatearen edozein alderdiren aldaketa kaltegarri eta nabarmena, batez ere, iraunkorra denean edo luze irauten duenean. Natura 2000 Sareko guneen kasuan, ondorioa nabarmentzat joko da lekuan kontserbatu behar diren habitaten edo espezieen kontserbazio-egoera definitzen duten parametroak okerragotu edo, hala badagokio, lehengoratzeko aukerak oztopatu baditzake.”.
- Ikus. 102-104. art.k.

6. gaia. PLANEN ETA PROIEKTUEN INGURUMEN-EBALUAZIOA.

6.1. SARRERA

IIE (Ingurumenaren gaineko inpaktuaren ebaluazioa): hainbat jardueren ingurumenean duten eragina aztertu eta, horretan oinarriturik, ingurumenaren gaineko eragina gutxitzeko aukera emango duten neurriak finkatu nahi ditu (hautabideak kontuan hartuta).

- Ingurumen-ebaluazioa: “planek, programek eta proiektuek ingurumenean sor ditzaketen eragin nabarmenak aztertzen dituen prozesua da, plan eta proiektu horiek hartu, onartu edo baimendu aurretik bideratzen dena, eta babes-neurriak, neurri zuzentzaileak eta/edo konpentsatzaileak ezartzen ditu, bai eta ingurumen-zaintzarako eta -jarraipenerako neurriak ere, hori guztia ingurumena babesteko, betiere.” [ikus. EIALren II.G eranskineko g) atala].
 - Planak, programak edo proiektuak gauzatzean, aldatzean edo berrikustean ingurugiroan sor daitezkeen eraginak balioetsi eta zuzentzeko nahiz konpentsatzeko aukera ematen duten azterketa eta sistema teknikoaren multzoa da.
- Sorrera historikoa:
 - AEB: 1969an indarrean sartu zen *National Environmental Policy Act (NEPA)* ebaluazio-sistema. Ingurumenaren babeserako agentzia sortu zen (*EPA*).
 - EB: berandugokoa da esperientzia. 1985etik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Europako zuzentarauak (hainbat alditan eraldatutakoak); hain zuzen ere, hainbat eraikuntza-proiektu pribatu eta publikoetarako. IEE eskatzen zuen lehen araua.
- IIEren izaera:
 - Ingurumen-prebentzioko mekanismoa.
 - Nahitaezko mekanismoa (1992ko Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rio de Janeiroko Adierazpenaren 17. printzipioa: “ingurumenaren gainean eragin negatibo handi samarra izan dezakeen eta aginte nazional eskudunaren erabakiaren menpe dagoen edozein jardueraren kasuan, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egin beharko da, tresna nazional gisa) # borondatezkoa (1992ko Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmena, “ahal den neurrian eta inguruabarren arabera”).
 - Legediak ezartzen du zein kasutan egin behar den ingurumen ebaluazioa (ingurumenaren ulerkera zabalak), eta hala egin ezean, planak, programak edo proiektuak baimentzen duen HHAAren azken erabakia erabat deuseza izan beharko luke [ikus. APAPELren 47.1.e) art.; EIALren 63.1 art.].
 - Kasuan-kasuko adierazpenak eta ingurumen txostenak garaiz ez ematea ezin da inoiz baliokidetu aldeko ingurumen ebaluazioarekin (ikus. IELren 10. art.).
- IIEren ezaugarriak eta arazoak:
 - Jarduera batek ingurumenaren gainean izan ditzakeen eraginaren inguruko introspektzioa dakar, eta horrek zalantzak eragin ditzake.
 - IIEren menpe dauden jardueren konplexutasuna dela eta, jarduera horiek aurrerago garatu beharko dira proiektu zehatz bihurtzen direnean, gobernuek diseinatzen dituzten politikekin gertatzen den moduan.
 - Erabaki-prozeduretan “ingurumen-aldagai” gisa ezagutzen dena barne-hartzeko zailtasuna. IIEren esperientziak agerian uzten du ebaluatzeko eta baimentzeko prozedurak paraleloak, baina beraien artean loturarik gabekoak izan ohi direla. Administrazio-izapidea beteko litzateke, baina benetako integrazioa lortzeko asmorik gabe. Ildo horretatik, IIE administrazio-prozedura hutsa bihurtzeko joera antzematen da.
 - Herritarren parte-hartzea. IIEren menpe dauden planek, programek eta proiektuek gizartean eragin handia izaten dute; hortaz, horien aurkako mugimenduak sarritan sortzen dira. Horrenbestez, HHAAren erabaki-prozeduretan herritarren parte-hartzearen aldeko mekanismoak ezartzen dituzte IIE erregulatzen duten arauak.

- Haatik, errealitateak agerian uzten du herritarrek zailtasunak dituztela beren alegazioak aintzat har daitezzen.
- Gainera, IIEren menpe dauden jardueren zailtasuna dela medio, analisirako ahalegin handia egin behar da, eta horrek herritarren ezagutza maila gainditzen du.
- IIEren menpe dauden jardueren judiziozko kontrola. Izan ere, auzitegiek ebatzi behar dituzte aurretzako administrazio-izapideetan gertatu diren ezbaiak; gainera, berraztertzeko funtzioa egiteko mekanismo egokirik izan gabe egin behar dute.

Ebaluazioaren aurrekari subjektiboak. Desberdindu behar da honakoen hauen artean:

- Sustatzailea [ikus. IELren 5.2.a) art.]: kasuan-kasuko plana, programa edo proiektua egin nahi eta bultzatzen duen subjektu fisiko edo juridikoa, publikoa edo pribatua.
 - HHAek errespetatu beharko dituzte sustatzaileak ekarritako informazioen konfidentzialtasuna (ikus. IELren 15. art.).
- Ingurumen-organoa (publikoa, [ikus. IELren 5.1.e) art.]): plan, programa edo proiektuaren alde aurreko eraginak balioetsi eta horren betearazpenerako ingurumen baldintzak zehazten duen HHAren organoa. Ingurumen-inpaktua ebaluatzeko eskumena izan eta ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpena egiteaz arduratzen da; adib. Espainiako, AAEEtako edo LLHHko Ingurumen Saila.
 - HHAek bermatu behar dute IOk nahiko ezagupena izatea eta, beharrezkoa bada, txostenak eska diezazkiokete organo zientifikoei edo akademikoei.
 - IO aldi berean sustatzailea edo organo substantiboa denean, funtzioak behar bezala bereizteko beharra interes gatazkak sor daitezkeenean (bai IOk, bai organo substantiboak euren funtzioak inpartzialtasunez eta objektibotasunez egikaritzeko betebeharra, IELren 3.2 art.).
- Organo Substantiboa (publikoa, [ikus. IELren 5.1.d) art.]): sustatuko plan, programa edo proiektu publiko edo pribatua azkenenean baimendu edo onartu behar duen HHAren organoa; adib., udala, Foru-Aldundia.
 - Batzuetan, gerta daiteke OS planaren, programaren edo proiektuaren sustatzailea ere izatea.

KAren 13/1998 epaia, urtarrilaren 22koa:

- EJK planteatutako eskumenen gatazka: EJren iritziz, Espainiako Estatuaren titulartasuneko proiektuak AAEE batean gauzatu behar direnean, AAEEK egin beharko luke ingurumenaren gaineko eraginaren deklarazioa, proiektu horrek EAOk onartzen edo baimentzen baditu ere. Izan ere, AAEEei aitortzen zaie ingurumen-arloko kudeaketaren eskumena (adib., hondakinen arloan; ikus. EKren 148.1.9. art.).
- KAK dioenez, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa “zeharkako teknika bat da, eta baldintzatu egiten du (gaur egun edo etorkizun hurbilean) fisikoki gauzatzen den Estatuko jardun ia guztia, eta horrek eragina du Autonomia Erkidego bateko edo batzuetako lurraldean eta ingurumenean.”. Beraz, gatazka ezin zen ebatzi EKren 148.1.9. eta 149.1.23. art.etan bakarrik oinarrituta.
- Hainbat HHAen parte hartzean, lankidetzarako eta koordinaziorako beharrezana (IELren 3.1 art): EAOk ingurumen inpaktuaren adierazpena egin baino lehen, EAEn txostena izan eta kontuan hartu beharko du.

KAren 53/2017 epaia, maiatzaren 11koa:

IELren hainbat xedapen konstituzio aurkakotzat jo zituen (konstituzio aurkakotasun partziala).

- Galarazi zuen IELk AAEEei euren garatzeko-eskubidea ukatzea, baina ez zuen konstituzio aurkakotzat jo hori erabili beharrean beren-beregi Estatuko legeriari igorpena egiten ziotenean (bere osotasunean ere bai; adib., Errioxako 6/2017 Legea, maiatzaren 8koa, ingurumena babesten duena).

Ebaluazio prozeduran honakoak ere kontuan hartu behar dira:

- Pertsona interesdunak [ikus. IELren 5.1.g) art.]: APAPELren arabera interesdunak direnak (ikus. 4. art.) eta 27/2006 legearen (ikus. 21.1 art.) eskakizunak betetzen dituzten irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoak.
 - Horiez gain, ikus. EIALren 71. art.: ingurumen-ebaluazioko prozeduretan interesa duten pertsona juridikoen erregistroa sortzen da.
- Publikoa [ikus. IELren 5.1.f) art.]: pertsona interesduna ez izateko betekizunak biltzen ez dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko.
- Eragindako HHAak [ikus. IELren 5.1.h) art.]: jarraian aipatzen diren arloetan berariazko eskumena duten HHAak eta eskumen horiek ingurumenaren ikuspegitik kaltetuak izan daitezkeenean.
 - Biztanleria, giza-osasuna, ura, aire-kalitatea, zarata, faktore klimatiko, ondasun materialak, kultura-ondarea, lurralde-antolamendua eta hirigintza, eta biodibertsitatearen, geodibertsitatearen, lurraren, lurpearen, paisaiaren, eta faunaren eta floraren zaintza, eta aipatutako faktore guztien arteko elkarreragina [ikus. IELren 5.1.a) art.].

Ingurumen ebaluazioaren xedeak (ikus. IELren 1. art.):

- a. Oro har: ingurumena babestea (baliabide naturalak bermatzea, garapen iraunkorra) eta agintari eskudunei informazio egokia ematea.
- b. Ingurumen aspektuak barne hartzea plan, programa eta proiektuak egitean eta onartzean.
- c. Ingurumenaren ikuspegitik bideragarriak diren alternatibak aztertzea eta hautatzea.
- d. Ingurumenean eragin kaltegarriak aurreikusteko, zuzentzeko eta, hala badagokio, konpentsatzeko neurriak ezartzea.
- e. Zaintza, jarraipen eta zehapen neurriak ezartzea.
- f. IEL: lege-harmonizazioa/homogeneotasuna (EAOk eta AAEEtako legeen prozesuak arrazonalizatu, erraztu eta hitzartu, Estatu mailan erkideak izateko) eta sustatzaileei segurtasun juridikoa ematea.
- g. AAEEK euren garatzeko-eskubidea ez egikaritzea, IEL nahikoa izategatik (hori garatzeko beharrik ez).

6.2. INGURUMEN-EBALUAZIOAREN TESTUINGURU ARAUEMAILEA

Nazioarteko Zuzenbidean:

- 1992ko Rio de Janeiroko Adierazpena (17. printzipioa).
- Espooko Hitzarmena ingurumen ebaluazioari buruzkoa mugaz gaindiko testuinguruan (1991) eta Kievko Protokoloa ingurumen ebaluazioari buruzkoa testuinguru horretan (2003).

Europako Zuzenbidean:

- 2001/42/EB zuzentaraua, ekainaren 27koa, plan eta programa jakinen ondorioen ebaluazioari buruzkoa ingurumenean (IEE).
- 2011/92/EB zuzentaraua, abenduaren 13koa, proiektu publiko eta pribatu jakinen ondorioen Ingurumenaren gaineko Inpaktuaren Ebaluazioari buruzkoa (IIE).

Espainiako Estatuan:

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa (IEL).

Arautzen ditu bai planen eta programen, bai proiektuen ebaluazioa (gehien-gehiena oinarritzkoa da; artikulu batzuk bakarrik aplikatzen zaizkie Estatuko organoei).
- 9/2018 Legea, abenduaren 5koa, IEL eta beste bi lege (mendiak eta berotegi efektuko gasen isurketa eskubideen merkataritza) eraldatzen duena.

2014/52/EB zuzentaraua, apirilaren 16koa, eta KAren 53/2017 epaia egokitzeke.

EAE:

- 46/2020 dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamendu planen onespenerako prozedurak eta hirigintza-antolamendu instrumentuak arautzen dituena.
- EIAL (V. Titulua).

6.3. INGURUMEN-EBALUAZIO MOTAK

Plan eta programen kasuan, IEE egingo da (ikus. IELren 17-32 art.k eta EIALren 72-75. art.k).

- Planak eta programak: “behar sozialak asetzeko estrategien, ildoen eta proposamenen multzoa, zuzenean egikaritu ezin direnak, proiektu baten edo batzuen bidez baizik.” [EIALren II.G eranskineko r) atala]. Ez dira zuzenean betearazteko modukoak, ezpada proiektu baten edo batzuen garapenaren bitartez.
- Arrunta (ikus. IELren 17-28. art.k eta EIALren II.A eranskinekoak):
 1. Lurralde-antolamendurako gidalerroak.
 2. Lurralde-plan partzialak.
 3. Lurralde-plan sektorialak.
 4. Hiri-antolamendurako plan orokorrak.
 5. Sektorizazio-planak.
- Simplifikatua [ikus. IELren 29-32. art.k eta EIALren II.B eranskinekoak. ITerekin, hau da, IOren derrigorrezko txosten loteslearekin bukatzen da; ikus. EIALren II.G eranskineko h) atala].
 1. Udal-mailan eremu txikien erabilera ezartzen duten II.A eranskineko planak eta programak.
 2. II.A eranskineko planen eta programen aldaketa txikiak, II.G eranskineko aldaketa txikien definizioaren arabera.
 3. Etorkizunean proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen duten plan eta programak, II.A eranskineko 6. eta 7. idatz-zatietako baldintzak betetzen ez dituztenak.

Proiektuen kasuan, IIE egingo da (ikus. EIALren 76-79. art.).

- Proiektuak: “obra bat, eraikuntza bat edo instalazio bat egikaritzeko edo ustiatzeko xedez, edo desegiteko edo suntsitzeko xedez, burututako edozein jarduera; edo natura-ingurunean edo paisaian egiten den edozein esku-hartze, bai eta baliabide naturalak (lurzorua, zorupea, urak eta izaki bizidunak barne) ustiatzeko edo aprobetxatzeko direnak ere” [EIALren II.G eranskineko t) atala]. Planak edo programak ez bezala, zuzenean exekutatu daitezke.
- Arrunta (ikus. IELren 33-44. art.k eta EIALren II.D eranskinekoak).
- Simplifikatua [ikus. IELren 45-48. art.k eta EIALren II.E eranskinekoak. ITrekin, hau da, IOren derrigorrezko txosten loteslearekin bukatzen da; ikus. EIALren II.G eranskineko i) atala].

INGURUMEN EBALUAZIOA	Planak eta programak	Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa (IIE)	Arrunta (IEE beharrezkoa)	Simplifikatua (IOk erabakita)	IELren 6.1 art.	IELren 6.2 art. (IELren V. eranskineko irizpideak)	EIALren II.A eranskinean	EIALren II.B eransinean (II.C eranskineko irizpideak)
	Proiektuak	Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa (IIE)	Arrunta (IEE beharrezkoa)	Simplifikatua (IOk erabakita)	IELren I.eranskina (eta 7.1 art.)	IELren II.eranskina (IELren III.eranskineko irizpideak eta 7.2. art.)	EIALren II.D eranskinean	EIALren II.E eranskinean (II.F eranskineko irizpideak)

6.4. ESKUMENEN BANAKETA

Espainiako Estatuaren eta AAEEn artean. Espainiako Estatuko oinarrizko araugintzak hurrengo ezartzen du:

- OS EA Orena bada, IO ere (ingurumen arloan Ministerio eskudunaren organoa izango da). Eskumen substantiboak ingurumen eskumena erakartzen du (IELren 11.1 art. Alternatiba hori berretsi zuen KAren 13/1998 epaiak. Zentzu berean, ikus. KAek 101/2006, martxoaren 30ekoa; 1/2013, urtarrilaren 13koa; 34/2012, martxoaren 15ekoa; eta 5/2013, urtarrilaren 17koa).
- OS bestelako HHA Arena bada, IO izango da AAE bakoitzeko ingurumen legeriak zehazten duena (IELren 11.2 eta 11.3 art.k).

EIALen (ikus. 62. art.):

- Printzipioz, IO izango da EA Erena (ingurumen arloan eskumenak dituen EJren Saileko organoa). Barnebiltzen ditu OS udal izaera duten kasuak. (Ikus. 62.1 art.).
- Baina eskumen substantiboa LLHH baten OSrena bada, IO izango da LLHHkoa: dagokion Foru Aldundiko ingurumen arloan eskumena duen foru-organoa (salbu eta planak edo proiektuak LLHH bat baino gehiagoko lurralde-esparrua gainditzen edo erasaten duenean). (Ikus. 62.2 art.).

OSren eta IOren desadostasunak konpontzea (ikus. IELren 12. art.):

- Estatuko oinarrizko araugintzak ezartzen du ebatzi behar dela espedientea izapidetu duen administrazioaren arabera:
 - Estatukoa bada: Ministro-kontseilua (Espainiako Estatuko Gobernuak).
 - Gainerakoetan: AAEko Gobernuak edo lege autonomikoak zehaztutako organo eskuduna.
 - Epea: OSk IOri bidalketa egingo dio 30 egun baliiodunetan EAOn argitaratu zenetik; IOk 30 egun baliiodun ditu erantzuteko; eta OSk organo eskudunari igorri eta horrek ebatziko du gehienez 60 egun baliiodunen buruan desadostasuna jaso zuenetik (IELren 12.2, 12.3 eta 12.4 art.k). Desadostasuna konpontzen duen akordioa EAOn edo dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratuko da (IELren 12.5. art).
 - Ezer esaten ez duen bitartean, IOren adierazpenek eta txostenek euren eragingarritasuna mantenduko dute (IELren 12.4 art.).
- EIAL: ez du aipatzen desadostasunen konponketa (eta hori bada arazo bat).

6.5. INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKOA (IEE)

Printzipio orokorrak:

- Plan baten IEEk ez du baztertzen gero hori garatzen duen proiektuaren IIE egitea (IELren 13.1 art.).
- Plan baten IEEk orokorrean biltzen ditu hori garatzen duten proiektuen IIErako irizpide orokorrak.
- Neurriak hartu behar dira IEEren bikoiztasuna ekiditeko administrazioen hainbat plan aldi berean gertatzen direnean (adib., Ebroren arrokako Plan Hidrologikoa/EA Eren isurialde mediterraneoko ibaien lurralde plan sektoriala) edo zenbait hierarkia mailetan antolatutako planak direnean (hiri-antolamendurako plan orokorrak/lurralde-plan sektorialak/lurralde-plan partzialak).
- Plan baten onarpenean IEE ez egitea horrek halaxe galdatzen duenean: planaren (erabateko) deuseztasuna dakar (ikus. AGren 2013ko azaroaren 6ko epaia. Hori balizko administrazio-zehapenei kalterik egin gabe; ikus. IELren 9.1 art. eta EIALren 63.1 art.k).
- Adierazpenak (IAE-IIA) eta txostenak (ITE-IIT) ez ematea: ezin da *inoiz* ulertu aldeko ingurumen ebaluazio baten baliokidea denik (ikus. IELren 10. art.).

IEE (arrunta) nahitaez behar duten planak:

EIALren II.A eranskina: HHAA batek egindako edo onartutako planak eta programak (baita aldaketak nahiz berrikuspenak ere), lege, erregelamendu edo Gobernuaren akordioak galdatzen duenean horiek egitea edo onartzea.

1. Lurralde-antolamendurako gidalerroak (DOT).
2. Lurralde-plan partzialak (PTP).
3. Lurralde-plan sektorialak (PTS).
4. Hiri-antolamendurako plan orokorrak (PGOU).
5. Sektorizazio-planak (PS).
6. Bestelako planak eta programak, etorkizunean IIEren eraginpeko proiektuen testuinguru direnean eta honako gaietara buruzkoak direnean: nekazaritza, basogintza, akuikultura, abeltzaintza, arrantza, energia, meatzaritza, industria, garraioa, hondakinen kudeaketa, baliabide hidrikoen kudeaketa, itsas-lehorreko jabari publikoaren okupazioa, itsas inguruaren erabilera, telekomunikabideak, turismoa, hiri eta landa lurraldearen antolaketa, edo lurzoruaren erabilera.
7. Bestelako planak eta programak, zuzenean edo zeharka, beste batzuekin bakarrik konbinazioan, babestutako gune bati edo natura ondarearen kontserbazio erregimenari era hautemangarrian erasan diezaiotenean (Natura 2000 sareko guneak, parke naturalak, natura-erreserbak, biosfera-erreserbak, etab.). Ez da beharrezkoa IEE, baldin eta bakarrik lekuaren kudeaketarako xedapenak ezartzen dituzten planak eta programak badira.
8. IEE sinplifikatuaren helbururako planak eta programak, horietan IOk halaxe erabakitzen duenean.

IEE (sinplifikatua) borondatez izan ditzaketen planak:

Kasu batzuetan IOk erabakitzen du plan zehatz batzuk IEEren objektu izan behar diren edo ez (betiere HHAA batek egindakoak edo onartuak badira, eta haien prestaketa eta onespena beharrezkotzat jotzen badu legezko edo erregelamenduzko xedapen batek edo Gobernu Kontseiluaren erabaki batek).

- a. EIALren II.A eranskinetako planak eta programak lurralde-esparru txikiko guneetan erabilera udal-mailan ezartzen dutenean.
- b. EIALren II.A eranskinetako planen eta programen eraldaketa txikiak.
- c. Planak eta programak, proiektuen onarpenerako testuingurua ezarrita gainerako betekizunak betetzen ez dituztenean (adib., adierazitako gai desberdinetan).

Erregimen berezia Natura 2000 sareko guneen kasuan: horren araugintzak ez du onartzen kasu horietan planen ondorioen ebaluazio egokirik ez egotea.

IEEtik baztertutako planak eta programak:

Ez dira IEEren objektu izango hurrengo planak eta programak (ikus. IELren 8.1 art. eta EIALren 66.1 art.):

- Helburu bakarra defentsa nazionala edo babes zibila denean larrialdi kasuetan [IELren 8.1.a) art. eta EIALren 66.1.a) art.k].
- Planak eta programak finantza edo aurrekontuen arlokoak direnean soilik [IELren 8.1.b) art. eta EIALren 66.1.b) art].

EBk aldi berean finantzatutako planen eta programen ebaluazioa egingo da EBko araugintzan ezarritakoaren arabera (ikus. IELren 2. XG).

46/2020 dekretua (EAE): beren-beregi kanpoan uzten ditu xehetasun azterketak.

IEE prozedura arrunta	Sustatzaileari edo, hala bada, plana egin edo onartzen duen OSri dagokio	IOri dagokio
<p>1. Hasiera</p>	<p>Sustatzailea: Hasteko eskaera, planaren edo programaren zirriborroa eta hasierako dokumentu estrategikoa (zehaztuta). OSri aurkezten zaio eta horrek IOri bidali (balizko ez-onartzea)</p>	<p>a)Erasandako HHAAei eta pertsona interesdunei alde aurreko kontsultak (30 egun) egitea. b)IAzEren irismeneko dokumentua egitea (iraungitasuna: 4 urte IAzEraiko). Sustatzaileari eta OSri jakinaraztea. Bi hilabeteko epean eskaeratik (hiru hilabete EAEn).</p>

IAzE (Ingurumen Azterketa Estrategikoa):

- Edukia: IELren 20. art.n eta IELren IV. eranskinean.
- Egilearen gaitasun tekniko nahikoa (IELren 16.1 art.):
 - Prestakuntza profesionalen eta goi-heziketaren arauen arabera.
 - Egileen identifikazioa, titulazioa, araututako lanbidea (hala badagokio), amaiera data eta sinadura.
- Edukiaren egileen erantzukizuna eta azterketen nahiz dokumentuen fidagarritasuna (IELren 16.2 art.; EAEn: sustatzailearekin erantzukizun solidarioa).

<p>2. Bitarteko fasea</p>	<p>Sustatzailea: IAzE egin 9 hilabeteko epean eta <i>planaren edo programaren hasierako bertsioa</i>, kontuan hartuta: -Hautabide arrazoizkoak eta bideragarriak barne hartu behar dituela (IELren 20.1 art.). -<i>Laburpen ez teknikoa</i> barne hartu behar duela (IELren 21.3 art.). -Klima aldatagatik erasandako guneen analisisa nahitaez barne hartu behar duela [IELren 18.1.d) art.]. OSren aurrean aurkeztu eta horrek IAzE eta planaren hasierako bertsioa honako izapide hauen eraginpean jarri: -Erasandako HHAAei kontsultak (30 egun, IELren 22.2 art.). -Pertsona interesdunei kontsultak (30 egun, IELren 22.2 art.). -Informazio publikoa (45 egun). -EAEn, 45 egun hiru izapideentzako. Mugaz gaindiko efektuak baditu, erregimen berezia (ikus. IELren 49 eta 50. art.k). Horren guztiaren emaitza IOri igorri</p>	<p>IO: espedientearen azterketa teknikoa (ikus. EIALren 24. art.). IAE egin (lau hilabeteko epean, eta bi hilabetez luza daiteke; EAEn, hiru hilabete, eta bi hilabetez luza daiteke) eta OSri bidali. IAE txosten nahitaezkoa eta loteslea da (IELren 25.2 art.). Horren balizko eraldaketa arautzen da (IELren 28. art.), doktrinak salatu. IAE dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratzen da eta HHAAREN webgunean (IELren 25.3 art.), baina ezin da bereiz errekurritu (IELren 25.4 art.). IAE egin zenetik bi urteko epean ez bada plana edo programa onartzen, IAE iraungitzen da (eta prozesua berriz hasi beharko da), salbu eta lege luzapena badu (ikus. IELren 27. art.).</p>
----------------------------------	--	--

<p>3. Amaierako fasea</p>	<p>Sustatzailea: planaren proposamena eraldatzen du IAEn zehaztapenak gehituz (ikus. IELren 23. art.) eta OSren onarpenaren eraginpean.</p>	
----------------------------------	---	--

<p>4. Planaren edo programa ren behin betiko onarpena</p>	<p>Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gain (kontsultarako helbide elektronikoa adieraziz), OSk laburpen bat argitaratu beharko du, eta horrek barne hartu beharko ditu:</p> <p>a) <u>Planean ingurumen aspektuen integrazioa.</u> b) Nola izan diren kontuan IAzE, kontsultak, informazio publikoa eta IAE, baita prozesuan sortutako desadostasunak ere. c) Hautatzeko arrazoiak kontuan hartutako alternatibien aurretik. d) Planaren ingurumen eraginak jarraitzeko neurriak OSri dagokio <u>IEEren betepena jarraitzea</u></p>	
--	--	--

IEE sinplifikatuaren prozedura:

Sustatzaileak OSri (IELren 29.1. art.) eta, dokumentazio osoa izatekotan (IELren 29.2 art.), OSk eskaera bidaltzen dio IOri (IELren 29.3 art.). Erabakia kasuz kasu hartzen du IOk eta legeak ezartzen ditu horretarako irizpideak (ikus. EIALren II.C eranskina). Gerta daiteke eskaeraren izapidetza ez onartzea ageriko ingurumen bideraezintasunagatik edo aurkeztutako dokumentuaren kalitate faltagatik (IELren 29.4 art.).

IOren erabakiaren aurretik pertsona interesdunei eta erasandako HHAAei kontsultatu behar zaie (ikus. IELren 30. art. Erantzuteko epea: EAEn, hilabete bat).

Erabakia publikoa egin behar da Aldizkari Ofizialean hiru hilabeteko epean (motibo arrazoituak adieraziz). Erabaki horri ITE deritzo (ikus. IELren 31. art.), txosten hori nahitaezkoa eta loteslea da, eta bi modutan amaitu daiteke:

- IEE arrunta egin behar izatea (derrigorrezkoa).
- Ez da inolako ebaluaziorik behar eragin esanguratsuak ez izateagatik, baina adierazten du planak edo programak hartu beharreko baldintzak.

IEE ez da autonomoki errekurritzeko modukoa.

- Hala ere, posible da onartutako planaren edo programaren aurkako errekurtsio judiziala jartzea.

ITEk bere indarraldia galduko du, baldin eta argitaratu eta gero ez bada plana edo programa onartzen lau urteko epean (IELren 31.4 art.).

6.6. INGURUMEN INPAKTUAREN EBALUAZIOA

Arauen eranskinen arteko harremanak (EBko zuzentarauak, IEL, EIAL). EEKK-k EB baino babes-neurri zorrotzagoak ezar ditzakete. AAEEK ingurumen arloaren babeserako arau gehigarriak eman ditzakete.

- Lege autonomiko batek ezin du IELn IIE arruntera ezarritako proiektu bat IIE sinplifikatuaren objektu bihurtu.
- Lege autonomiko batek bai ahal du, ordea, IELn IIE sinplifikatura ezarritako proiektua (edo zerrenda horretan ez dagoena) IIE arruntaren edo sinplifikatuaren objektu bihurtu.

AGk: proiektu horien OS Estatukoa bada, prozedura IELn ezarritakoa izango da.

Proiektu bat IIEren eraginpean jartzeko, lege-erreserba printzipioa (ezin da erregelamendu soil baten bitartez egin; ikus. AGren 1996ko urriaren 24).

Proiektuaren kontzeptua: honako jarduera, publiko edo pribatu (adib., errepideak, aireportuak, urtegiak, etab.), hauetan datza [IELren 5.3 b) art.]:

- a. Obraren, eraikuntzaren, instalazioaren edo ondasunaren exekuzioa, ustiapena, desegitea (itxiera) edo suntsitzea (eraispena).
- b. Ingurumenean edo paisaian esku-hartzea, baliabide naturalen, luraren, lurpearen, ur kontinentalen edo itsasaldeen ustiapenera zuzendutakoak barne.

Zatiketaren edo segmentazioaren arazoa (proiektuaren osotasuna, ez da posible bakarrik horren faseak ebaluatzea). Konponbide bera eskaintzen da proiektuen eraldaketarako. Garapen kasuan metodo edo produktu berrien entsegua, baldin eta aurreikusi bada horren erabilera bi urte baino gehiagokoa izatea edo ez.

6.6.1. Baztertutako kasuak

IEL (Ez dira Natura 2000 eskusiorik onartzen)	EIAL (Ez dira Natura 2000 eskusiorik onartzen)
a)OSk baztertu dezake IIE, kasuz kasu, proiektuen helburu bakarra denean: i.Defentsa. ii.Larrialdi zibileko kasuei erantzuna.	
b)Gobernuak (Estatu mailan) IIE baztertu dezake, OSk proposatuta, ohiz kanpoko kasuetan eta motibatutako akordioaren bitartez, EAOn argitaratutakoa eta EBri jakinarazitakoa (proiektuaren jomugarako edo azpiegitura kritikoenzat kaltegarria bada). Erabakitzen du ebaluatzeko modu alternatiborik balego (OSren aldetik). Kasu hauen artean sartzen dira PRTR proiektuak.	EJK salbuespenezko kasuetan kanpoan utz dezake IIE eta motibatutako akordioaren bitartez, EHAOn argitaratutakoa eta EBri jakinarazitakoa. Erabakitzen du ebaluatzeko modu alternatiboa bidezkoa den.
2018an desagertu; IIE baztertzeko aukera Estatuko legeriaren arabera: EEJAren eta KAren jurisprudenzia eta babes judizial eragingarria erasatea.	

Proiektuen IIE arrunten prozedura:

- a. BORONDATEZKO IZAERAREKIN (ikus. IELren 33 eta 34. art.k): sustatzaileak OSri aurkezten dio proiektuaren hasierako dokumentua. Hori IOri bidaltzen zaio horrek proiektuarekin batera aurkeztu beharreko IIAzren irismeneko dokumentua egin dezan (bi hilabeteko epean, erasandako HHAAei eta pertsona interesdunei kontsultak egin eta gero; baliotasuna: IIaz aurkezteko bi urteko epea).
- b. Proiektuaren sustatzaileak horrekin batera IIaz egiten eta aurkezten du. Horren edukia jasotzen da IELren 35. art.n eta zehazten da IELren VI. eranskinean (batez ere: proiektuaren deskribapena eta horren ondorioak, hautabideak –zero alternatibaren azterketa barne, hau da, zer gertatzen den proiektua ez gauzatzekotan–, babes-neurriak eta zaintza programa, egilea, titulazioa eta lanbidea, laburpen ez tekniko eta ulertzeko moduko hitzekin egindako ondorioak). Baliotasuna galduko du amaitu zenetik urtebeteko epean ez bazaio OSri aurkezten hurrengo fasarako.
- c. Proiektua eta IIaz informazio publikoaren eta erasandako HHAAen eta pertsona interesdunen kontsulten eraginpean jarriko dira (ikus. IELren 36. art., aukera guztiak zabalik dauden momentuan, eta 37. art.k). Gutxieneko epea: 30 egun. Eraldaketa esanguratsua badago: informazio publiko eta kontsulten izapide berria (ikus. IELren 38. art.). Horren guztiaren emaitza IOri bidaliko zaio (baztertu dezake ageriko ingurumen bideraezintasuna edo IIaren kalitate falta dagoenean, baldin eta antzeko proiektu batean erantzun negatiboa eman bazuen).

IEL: OSk derrigorrean eskatu beharko ditu hurrengo txostenak, eta motibatuak egon beharko dira (ikus. IELren I. eranskina):

1. Proiektua kokatzen den lekuko AAEEren organo eskudunarena ingurumen arloan.
2. Ondare kulturalari buruzkoa (hala dagokionean).
3. Planifikazio hidrologiko, jabari publiko hidrauliko eta uren kalitate kontuetan organo eskudunenak (hala dagokionean).
4. Itsas-lehorreko jabari publiko eta itsaso estrategia kontuetan organo eskudunenak (hala dagokionean).
5. Inpaktu erradiologiko kontuetan organo eskudunenak (hala dagokionean).
6. Istripu larri edo hondamendien prebentzio eta eratorritako arriskuen kudeaketa kontuetan organo eskudunenak (hala dagokionean).
7. Planifikazio hidrologikoarekin edo itsas mugapenaren bateragarritasunari buruzkoetan (hala dagokionean).
8. Defentsa Ministerioarena, baldin eta proiektuak defentsa nazionalerako interesgarriak diren guneak azpimarratzen baditu, lurrak, eraikuntzak, instalazioak eta horien babes-guneak barne (hala dagokionean). Txosten loteslea.
9. Osasun publiko kontuetan organo eskudunenak (hala dagokionean).
10. AAEE bakoitzeko legeriak galdatzen dituenak.

- d. IOk IIA egingo du: proiektuaren ingurumen baldintzak zehazten ditu. Derrigorrezko txostena da, loteslea, eta administrazio-izapidetza egintza hori ezin izango da bereiz edo bere aldetik errekurritu (proiektua baimentzen duen egintza errekurritu daiteke).

Edozein kasutan, proiektuaren prebentzio eta zuzenketa neurriak ezartzen ditu [inpaktu gogorra edo zorrotza, ikus. IELren VI. eranskineko j) atala]. Inpaktu kritikoa [larria, ikus. IELren VI. eranskineko k) atala] badu: kontrako IIA edo aldeko IIA neurri konpentsatzaileekin [naturaren kontserbazio bankuen teknika, ikus. 8. XG).

Kasu guztietan IIA publikoa egingo da (bai sustatzaileari, bai interesdunei jakinarazten zaie eta dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratuko da).

Zein epe dauka IOk IIA emateko?

- IEL: lau hilabete azterketa informazio publikoaren eta kontsulten emaitzekin bidali zenetik.
- EIAL: hiru hilabete eskaera osoa aurkeztu zionetik, eta beste bi urtez luza daiteke.

IIAren indarraldia: lau urteren buruan hasi beharko da proiektuaren betearazpena.

- e. OSk proiektuari buruz ebatziko du (onartuz edo ezeztatuz, ikus. IELren 41. art.), IIA kontuan hartuta. Eta aginduko du dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratzea (IELren 41.3 art.).
- f. Halere, IOren eta OSren arteko desadostasunak badaude IIARI buruz: Ministro-Kontseiluak (Espainiako Estatuko Gobernuak) edo AAEEko Gobernuak edo lege autonomikoak ezarritako organoak ebatziko du (EIALk: ez du horri buruz hitz egiten. Zein da konponbidea?).

Horrenbestez: juridikoki proiektu bat gauzatu daiteke, nahiz eta aurkako IIA izan (edo ezarritako baldintzaren bat ez betez).

Proiektuen IIE sinplifikatua (ikus. IELren II. eranskina):

- Sustatzaileak OSri (IELren 45.1 art.), eta dokumentazio osoa izatekotan (IELren 45.2 art.), OSk hasierako eskaera bidaltzen dio IOri (IELren 45.3 art., proiektuarekin eta sustatzailearen ingurumen dokumentuarekin batera).
- IOk bere erabakia oinarritzeko irizpideak (ikus. IELren III. eranskina eta EIALren II.F eranskina): proiektuaren ezaugarriak (tamaina, baliabide naturalen erabilera, hondakinen kudeaketa, kutsadura, istripuen arriskua, etab.), proiektuaren kokapena (lurraren erabilera, baliabideen gaitasun birsortzailea, bustiguneak, kosta eremuak, parketak eta erreserbak, dentsitate demografiko handiko aldeak) eta balizko

eraginaren ezaugarriak (hedadura, mugaz gaindiko izaera, zailtasuna, probabilitatea, iraupena, maiztasuna, itzulgarritasuna, etab.).

- IOk eskaera izapidetzea baztertu dezake ageriko ingurumen bideraezintasunagatik edo aurkeztutako dokumentuaren kalitate faltagatik. Hori egin ezean, prozedurak aurrera egingo du.
- IOren erabakiaren aurretik pertsona interesdunei eta erasandako HHAAei kontsultatu behar zaie (IELren 46. art. Erantzuteko epea: hilabete bat).
- Erabakia publikoa egin behar da Aldizkari Ofizialean hiru hilabete epean (motibo arrazoituak adieraziz, IELren 47. art.). Erabaki horri IIT deritza, txosten hori nahitaezkoa eta loteslea da, eta hiru modutan amaitu daiteke:
 - IIE arrunta egin behar izatea [derrigorrezkoa, IELren 47.2. a) art.].
 - Ez da inolako ebaluaziorik behar eragin esanguratsuak ez izateagatik, baina adierazten du proiektuak hartu beharreko baldintzak [IELren 47.2. b) art.].
 - IOk dio ez dela posible balizko eraginaren gaineko ebazpena ematea balioesteko elementuak ez izateagatik: jarduketan artxibatzea [IELren 47.2. c) art.].
- IIE ez da autonomoki errekurritzeko modukoa (IELren 47.5 art.).
 - Hala ere, posible da onartutako proiektuaren aurkako errekurtsio judiziala jartzea.
- IIEk bere indarraldia galduko du, baldin eta argitaratu eta gero ez bada proiektuaren betearazpenarekin hasten lau urteko epean (IELren 47.4 art.).

AAren edo AAKren eraginpean jarritako proiektuen IIE arrunta:

IIE egin behar da AAK edo AAK-k ondorioak sortu aurretik (proiektuaren betearazpena bideratzeko):

- AA edo AAK bakarrik aurkeztu daiteke OSren aurrean (eta horrek onartu) kasuan-kasuko Aldizkari Ofizialak IIA edo IIT argitaratu eta gero.
- IIA edo IIT Estatuak ematen dituen: OSren funtzioak IOk egin beharko ditu (EIALn ez dago antzeko araurik).
- Kasu horietan, IIAren edo IITren kontrako administrazio edo judizio bidezko errekurtsioak jar daitezke.
- IIErik gabeko AA edo AAK (hori egiteko betebeharra dagoenean): ez du baliorik, ezta eragingarritasunik ere, zehapenei kalterik egin gabe.

IIE proiektuen ikuskapena eta kontrola (ikus. VI. eranskineko A zatiko 6. atala):

- IIAren edo IITren baldintzak jarraitzea eta zaintzea: OSri dagokio (edo AAEEK izendatutako organoari Estatu mailakoak ez diren proiektuetan, IELren 52.1 art). Estatu zentralerako OSk, AAEEekin bat eginda, ezar dezake jarraipena organo autonomikoak egitea (salbuespena: energia nuklearra eta lehergaien ekoizpena).
- Sustatzaileak organo horri bidali beharko dizkio jarraipenerako txostenak (baldin eta horrela ezarri bada, IELren 52.2 art.).
- Badago proiektu pribatuei (ez publikoei) bakar-bakarrik aplikatzen zaien erregimen zigortzailea (IELren 54.1 art.). Horrek Espainiako Estatu legegintzan oinarritzko izaera du, AAEEen eskumenei kalterik egin gabe (2.404.000 €-rainoko balizko isunak, ikus. IELren 56.1 art.). Ingurumen legeriak prozedura zigortzailearen xehetasunak ezartzen ditu.
- Proiektu bat baimentzeko edo onartzeko IIE prozedura derrigorrezkoa izan eta hori ez denean jarraitu, EZ DU BALIOTASUNIK (ikus. AGren 2011ko otsailaren 14ko epaia, M-501 kasua), dagozkien zehapenei kalterik egin gabe (ikus. IELren 9.1 art.).

7.gaia. ERREGULAZIO, MUGAPEN ETA KONTROL TEKNIKAK

7.1. SARRERA

Jarduera sailkatuen polizia: ingurumen prebentziorako tekniken artean zaharrena: jarduera jakinak udal lizentziaren eraginpean egotea XIX. mendeko Frantzia kokatu daiteke.

Batetik, KZren 590. art.ko igorpena asetzeko “erregelamenduak” dira “auzotasun harremanak” antolatzeko; bestetik, osasuna bokazioa nabaria dute.

Aurrekaria: Jarduera Gogaikagarrien, Osasungaitzen, Kaltegarrien eta Arriskutsuen Erregelamendua, 2114/1961 Dekretuak onartutakoa, azaroaren 30ekoa (JGOKAE).

- Zenbait jarduerarako udal lizentzia: 2.000 metroko gutxieneko distantzia (salbuespenekin) herrigune hurbilenetik jarduera fabrikatu arriskutsuentzat edo osasungaitzentzat (ikus. JGOKAEren 4, 11, 15 eta 20. art.k).
- Xedea: finkatutako jarduerak sor dezaketen deserosotasunak ekiditea, ingurumenaren osasungarritasun eta higie ohiko baldintzen aldaketa saihestea, ondare publikoari nahiz pribatuari eragindako kalteak saihestea, edo pertsonentzat zein ondasunenentzat arrisku larrien ondorioak ekiditea.
- Prebentzioaren eta industrien jardueraren arteko oreka, azken horien aplikazioari oztopo gehiegi ez jartzeko.

JGOKAE: erreferentzia teorikoa eta IIE nahiz IBBren eskema metodologikoa mantentzeko grina; halere, hainbat aldaketa garrantzitsu (2007an indargabetu?). Indarrean dagoen bitartean, Estatu mailako arau ordezailea (EKren 149.1.3 art), baina ez oinarritzakoa (zentzu berean, LLTB).

AAEEtako legeria propiora jo behar da (garatzeko-eskubide zabala).

AGE (2004): JGOKAEren xedapenak errespetatzeko betebeharra (distantzien arau polemikoa) eta AAEEK euren lurraldeetan horiek baztertzeko ezintasuna (JGOKAEren ultraaktibitatea). Horren aurka azaldu da 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuarena, oinarritzakoa kalifikazioa izan eta JGOKAEren ondorengoa izateagatik (ikus. Santamaría Arinas, 2005; Lasagabaster Herrarte, 2007).

- EIAL: IV. Tituluko (ingurumenean eragina duten jardueren antolamenduko) IV. (jarduera sailkatuen lizentzia, 49-55. art.etan) eta V. (jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena, 56-59. art.etan) kapituluetan.

Jarduera sailkatuen polizia ez da bakarrik egiten ohiko lizentzien eraginpean, baizik eta, batzuetan, bitarteko esku-hartzeak erabiltzen direla (adib., AAk edo AAK-k).

Toki-ordenantzen bidezko arauketa.

- Mugak; adib. erantzukizun zibileko derrigorrezko aseguru galdatzeko (eskumenik ez kutsadura elektromagnetiko arloan, ikus. AGE 2015eko urriaren 2koa).

7.2. JARDUERA SAILKATUEN ESPARRUA

Kontzeptua [ikus. EIALren 2.1.b) art., IBB]: “Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak idatzitako ebazpena, ingurumena eta pertsonen osasuna babesteko asmoz IA eranskinean jasotako jarduerak edo instalazioak osorik edo hein batean ustiatzeko baimena ematen duena, lege honen xedapenak zein xedea eta aplikagarria den araudia betetzen dituela bermatzeko baldintza zehaztetan. Baimen hori baliagarria izango da, lege honetan aurreikusitako aplikazio-eremuarekin bat etorrira, kokapen bera izango duen instalazio batentzat edo gehiagorentzat, edo instalazio baten edo gehiagoren zati batentzat edo batzuentzat.”.

Jarduerak, instalazioak, establezimenduak, industriak edo biltegiak (ezartzea, handitzea edo eraldatzea):

- Ofizialak edo norbanakoenak; titulartasun publikokoak edo pribatukoak.
- Kalteak sor ditzaketenak edo horiek sortzeko arriskua eragin ditzaketenak: gogaikarriak, osasungaitzak, kaltegarriak eta arriskutsuak.

- Nori: ingurumenari edo pertsonen osasunari (gogaitzea barne; adib., zaraten, bibrazioen, keen, gasen edo usainen deserosotasuna) eta ondasunei.
- IBB edo IBB(2) mendekotasunik eza.
 - JGOKA Eren tradiziozko unibertsaltasuna: ia edozein jarduera imajinagarri aldez aurreko lizentzia behar zuen (dela arraindegi bat izan, dela zentral nuklear bat izan).

Mugak:

- Hasieran, AAEEtako arau askok euste-esparrua murriztu zuten bai ezarritako jarduerak positibatuz, bai baztertze sistemen bitartez (adib., jarduera ez-kaltegarrien zerrendak).
- 2002: IBB. Konponbidea: instalazio batek bi kontroletara lotuta dagoenean, prozedurak bateratu behar dira, baina ahalbidetu zuen bi ebazpenen autonomia mantentzea.
- IBB udal lizentzia (edo tokiko bitarteko esku-hartzea) baino lehenago egingo da eta toki agintaritzarentzat loteslea izango da.
 - AAEEtako legegintza gehienek erabaki zuten lizentzia horien erabateko ordezkapena, baldin eta IBBra lotutako jarduerak baziren; azkenaldian, beste batzuk IBBren osteko jarduera lizentzia berrezarri dute (fiskalizazio bikoitza).
- *Bolkestein* zuzentaraua (123/2006/EB): tokiko kontrolen beharrianerako justifikazio indartua galdu zuen.
- 12/2012 legeak, abenduaren 26koak, errazteko formulak zuzenean ezarri ditu:
 - Merkataritza eta zerbitzu jarduera zehatzen hasierako eta garatzeko lizentziaren betebeharra ezabatzen da (gutxieneko azalera: 300m²tik 750 m²ra). Lehen eskatutako lizentzien ordezkari, AAK edo AAK (obra “txiki” jakinetan ere bai).
 - AAEEK jardueren zerrenda eta atalase-maila handitu dezakete, edo lizentziak ez galdatzeko bestelako kasuak zehaztu. Administrazio esku-hartze gutxiagoko arauak ezar ditzakete jarduera horien gainean, baita kalterik ez egiteko adierazpena ere.
 - Toki-administrazioei gaitzen zaie ordenantzen bitartez arautzeko interesdunak adierazitako elementuen eta inguruabarren frogaketa prozedura. Horretarako, AAK edo AAK erabiliko dira.
- JGOKA Eren aplikazio-esparruko indargabetze inplizitua: horretan jasotako jarduera guztietan esku-hartzeko teknika beti zen lizentziaren eraginpean egotea.

7.3. JARDUERA SAILKATUAK EIALn

Motak [ikus. EIALren 19.1 c) eta d) art.k]:

1. Eragin handiagoa duten jarduerak eta instalazioak eskatzen dute Jarduera Sailkatuaren Lizentzia (JSL, ikus. I.C Eranskina).
2. Eragin txikiagoa duten jarduerak eta instalazioak galdatzen dute Jarduera Sailkatuaren Aldez Aurreko Komunikazioa (JSAAK, ikus. I.D Eranskina).

Kasu baten eta bestearen arteko desberdintasuna: lege-irizpideen arabera (EIALren 19.2 art.).

- a. Instalazioaren dimentsioa eta ekoizpen-gaitasuna.
- b. Ur-kontsumoa, energia-kontsumoa eta beste baliabide batzuen kontsumoa.
- c. Sortutako hondakinen kopurua, pisua eta tipologia.
- d. Atmosferara eta uretara egin litezkeen isurpenak.
- e. Egin litezkeen soinu-igorpenak.
- f. Istripu-arriskua.
- g. Substantzia arriskutsuen erabilera.
- h. Lurzorua okupatzea.

EIALren 49.2 art.: “Jarduera sailkatu bat ustiatu, lekualdatu edo funtsean aldatu nahi duen pertsona fisikoak edo juridikoak jarduera hori kokatu nahi den udalerriko udalari eskatu beharko dio aurretiaz jarduera sailkatuaren lizentzia, lege honetan ezarritako prozeduraren arabera.”.

Jarduera edo instalazioa kokatzen den udalerriko udal-eskumena.

- Salbuespena: jarduera edo instalazio horiek produktu edo prozesu berrien ikerketari, garapenari edo esperimentazioari buruz bideratu direnean (ikus. EIALren 19.6 art).

Tolerantziak ez ditu eskuratutako eskubiderik ematen arlo horretan.

7.4. JARDUERA SAILKATUEN LIZENTZIA: PROZEDURA

Jarduera sailkatuen lizentzia eskuratzeko prozeduraren faseak:

1. Hasierako fasea: eskaera udalari aurkeztea, informazio publikoa eta txostenak.
2. Bitarteko fasea: IO eskudunak neurri zuzentzaileak zehaztea (“eskuragarri dauden teknikarik onenak”, JGOKAE).

Amaierako fasea: lizentzia ematea edo ukatzea udalaren berariazko edo ustezko egintzaren bitartez.

EIAL

Hasierako fasea:

- a. Aldez aurrekoa (hautazkoa): udalari aldez aurretiko kontsulta egiteko aukera (EIALren 22. art.).

Edukia: betekizun administratiboei eta teknikoei buruzko informazioa eskatzea. Kontsulta horri deskribapenezko laburpen-memoria bat erantsi beharko zaio. Udaleko organo eskudunak erantzuna emango du gehienez ere hiru hilabeteko epean.

Arazoak eta ondorioak.

- b. Udalean lizentziaren eskaera aurkeztu (EIALren 50. art.).

Proiektu teknikoa eta teknikari eskudunaren sinadura.

Zehaztutako edukia: jardueraren ezaugarriak, kokatuko den ingurunearen deskribapena, ingurumenean izan dezakeen eragina eta erabiltzeko proposatutako neurri babesleak eta zuzentzaileak. Horien eraginkortasun-maila eta segurtasun-bermea ere adieraziko dira.

Dokumentazioa nahikoa ez bada: 10 eguneko epea eskaera osatzeko.

IIEren izapidearen menpeko jarduera bada: IIE bat erantsi beharko du.

- c. Prozeduraren hautabideak:

1. Berariaz ezeztatzea hirigintza-plangintzaren edo udal-ordenantzen kontrakoa izategatik (EIALren 51.1 art.).
2. Prozeduraren jarraipena (ikus. EIALren 51. art.):

Udalak eskaera jendaurrean jarriko du 30 eguneko epean. LHAOn eta erakunde horren egoitza elektronikoan argitaratu. Alegazioak egin daitezten, hala badagokio.

Aldi berean, udalak eskatuko du 15 eguneko epean honako hauek ematea:

- Nahitaezko osasun-txosten loteslea.
- Jardueraren izaeraren arabera beharrezkoak diren txosten teknikoak.
- Jendaurreko informazio-epean alegazioak jasotzen badira, txostenean aintzat hartzeko adierazpenen bat egin behar duten organoei igorriko zaizkie, 15 eguneko epe gehigarrian horiek balioesteko.
- Epez kanpo jasotako txostenak: kontuan hartu beharko ditu udalak, betiere ebazpena eman aurretik jaso badira.

Bitarteko fasea:

Neurri babesleak eta zuzentzaileak ezartzeko txostena.

- 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek dagokion Foru-Aldundiko IOri eskatu BEHAR izango diote: txosten hori nahitaezkoa eta loteslea izango da (EIALren 52.1 art.).
- 10.000 biztanle edo gehiagoko udalerriek dagokion Foru-Aldundiko IOri eskatu AHAL izango diote edo eurek neurri babesleak eta zuzentzaileak ezarri (EIALren 52.2 art.).

Foru-Aldundiko IOk txostena egin beharko du gehienez ere 15 eguneko epean, udalak eskatzen dionetik zenbatzen hasita (EIALren 52.3 art.).

IIeren menpeko jarduera bada: IIAk edo EAEko nahiz Foru-Aldundiko IOk egindako IITk ordeztuko du neurri babesle eta zuzentzaileen txostena; beraz, hori ez litzateke beharrezkoa izango (EIALren 52.4 art.).

Amaierako fasea:

Ebazteko epea: gehienez, 4 hilabete eskaera aurkeztu zenetik (EIALren 53.1 art.).

Udalaren berariazko ebazpena (aldekoa edo ezezkoa):

- Pertsonalki jakinaraziko zaie interesdunei eta txostenen bat egin duten organoei (EIALren 53.3 art.).
- Komunikazioa jendaurrean jartzeko izapidean alegazioak aurkeztu dituztenei (EIALren 53.3 art.).
- Argitaratu udalaren egoitza elektronikoan (EIALren 53.3 art.).
- Udalek EAEko IOri eta dagokion Foru-Aldundiaren IOri (neurri zuzentzaileak jartzeko txostena egin badu) jakinarazi beharko diote jarduera sailkatuaren lizentziak eman direla (EIALren 53.4 art.).
- Jarduera sailkatuen lizentziaren mendeko jarduera edo instalazioen udal erregistroa egongo da (EIALren 53.5 art.).

Eskaera aurkeztu zenetik 4 hilabete igaro badira ebazpenik igorri gabe: isiltasun negatiboa (EIALren 53.2 art.).

IIeren menpeko jarduera bada: IIA edo IIT JSLren aldez aurrekoak eta udalarentzat lotesleak izango dira (ikus. EIALren 23. art.).

7.5. JARDUERA SAILKATUEN LIZENTZIA: Eragingarritasuna (EIAL)

Jarduera sailkatuetan udalek ezin dute obra-baimenik eman aldez aurreko JSLrik gabe (ikus. EIALren 19.4 art.):

- JSL eraikuntzaren, muntaketaren edo instalazioen lekualdaketaren aurrekoa izan behar da.
- Neurri zuzentzaileak behin ezarrita, instalazioak martxan jartzeko gaituta eta lizentzia guztiak bere esku dituenean: titularrak udalean aurkeztu beharko du AAK (langile teknikari eskudunak sinatutako ziurtagiriarekin batera) jarduera hasteko (aurkezpenetik jarduera eraginkortasunez egin daiteke, ikus. EIALren 54. art.).

Jarduera hasi behar da urtebeteko epean JSL eman zenetik. Hori egin ezean (edo jarduera eteten bada 6 hilabete jarraituetan): JSLren iraungitasuna ekarriko du (epe horiek luza daitezke justifikazio arrazoiek badaude eta ez da ezinbestea barne hartzen horien zenbaketan).

JSL ofizioz berrikustea. Ez dute kalteordainerako eskubiderik emango hurrengo arrazoiek (ikus. EIALren 55.1 art.).

- a. Instalazioak edo jarduerak eragindako kutsaduraren ondorioz komenigarria bada isurpenen mugako baloreak berrikustea edo balore berriak ezartzea.
- b. Aldaketa garrantzitsua gertatzen bada ingurune hartzailearen mugako immisio-baloretan.
- c. Instalazioaren edo jardueraren segurtasunak edo arau berrien aplikazioak eskatzen badu.

7.6. JARDUERA SAILKATUAREN AAK

EIALren I.D Eranskineko jarduera eta instalazioentzat. Aldez aurretiko kontsulta ere posible da (ikus. EIALren 22. art.).

AAK formalizatu behar da udalean: instalazioak gaituta daudenean (obrak badaude, obren-baimena) eta gainerako baimenak zein sektore-eskakizunak edukita (ikus. EIALren 57.2 art.).

IIeren menpeko jarduera bada: aldeko IIA edo IIT egin ondoren aurkeztuko da (ikus. EIALren 57.3 art.).

Aurkeztu beharreko dokumentazioa (ikus. EIALren 58.1 art.):

- a. Proiektua edo memoria (jardueraren deskribapena, inpaktuak edo ondorioak eta ondorioak minimizatzeko neurriak).
- b. Teknikari eskudunak sinatutako ziurtagiria (proiektuarenak edo memoriarenak eta ingurumen betekizunen betepenarenak).
- c. Hala badagokio, aldeko IIAren edo IITren kopia.

Jakinarazpena aurkezten denetik hasi daiteke titularraren erantzukizunpean (EIALren 58.2 art.). Ingurumen legeriaren mugako baloreak bete behar dituzte eta, hala badagokio, IIAean edo IITean ezarritakoak. Udalari ezaugarrien eraldaketa, instalazioaren prozesuak, funtzionamendua edo hedadura komunikatzeko beharra.

Jarduera sailkatuen AAK behar duten jarduera eta instalazioen udal erregistroa egongo da (EIALren 56.3 art.).

7.7. JARDUERA SAILKATUEN IKUSKAPENA ETA KONTROLA

Udal eskumena JSLren eta AAKren menpeko jarduerak egiaztatze, zaintze, ikuskatzeko eta zehatzeko (ikus. EIALren 53.6 eta 56.2 art.k).

Lizentziarik edo AAKrik gabeko jarduerak (ikus. EIALren 97.1 art.):

- a. Legeztagarriak (erregularizazio errekerimendua, hilabeteko epea eman prozedura hasteko, ohiz kanpoko kasuak salbu).
- b. Ez legeztagarriak: behin betiko itxiera (interesdunari entzuteko eskubidea).

Bateragarritasuna neurri zuzentzaileak ezartzearekin, eraldatutako egoera lehengoratzearekin, prebentzio neurriekin, ingurumen kalteak saihestearekin eta konpontzearekin, eta administrazio zehapenekin.

Neurrien ez betetzeak edo jardueraren funtzionamenduan hutsuneak nabaritzen badira: administrazioaren errekerimendua horren zuzenketa (zuzentzeko gehieneko epea 6 hilabete, ezohiko kasuak salbu. Ikus. EIALren 98. art.).

Prebentziozko eta saihesteko neurriak har daitezke, baita jarduerak honako arrazoiengatik etetea ere (jarduerak bertan behera uztea, ikus. EIALren 99. art.):

- a. Proiektua edo jarduera gauzatzea JSLrik edo JSAAKrik gabe.
- b. Funtsezko datu ez zehatzak eman, ezkutatu, faltsutu edo maltzurki manipulatu.
- c. JSLn ezarritako edo JSAAKn jakinarazitako ingurumen baldintzak ez betetzea.
- d. Ingurumenari edo pertsonen osasunari kalteak eragiteko berehalako mehatxua gertatzea eta, behin horiek eraginda, larriagotu daitezkeela ere bai.

Aurreko neurrien izapidetza (ikus. EIALren 100. art.):

- a. Ingurumenaren legezkotasuna berrezartzeko prozedura bat bezala (sustatzaileei eta interesdunei entzuteko izapidearekin, 3 hilabeteko epean ebatzi beharrekoa) edo zehapen-prozedura baten esparruan.
- b. Egokitzat jotzen diren behin-behineko neurri motibatuak har daitezke eta, horien artean, ur edo energia hornidura etetea edo kautelazko neurrien eraginkortasuna bermatzeko fidantza jartzea.
- c. Larrialdi geroraezin kasuetan, prozedurarik gabe jardun dezake agintari eskudunak prebentzio neurriak edo kalteak saihestea finkatzeko edo neurri horiek har daitezela galdatzeko.
- d. Arautzen da ingurumen legezkotasunaren berrezarpenerako neurrien nahitaezko betepena (exekuzio subsidiarioa eta hertsapen-isunak).

8.gaia. KUTSADURAREN OSOTASUNEZKO KONTROLA.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratua.

8.1. SARRERA: Sorrera eta helburua.

Kutsaduraren kontrol bateratuak konpondu nahi dituen arazoak:

- I. Baimen sektorialen ugaritasuna (ingurumenekoak barne) instalazio bakar baterako (hainbat Herri-Administrazioetakoak izan daitezke).
- II. Baimen horiek eskuratzeko prozedurak murrizteko eta errazteko beharra (epeak, izapideak, txostenak, etab.).
- III. Zenbait ingurumen elementuen (uren, lurzorua, airearen, etab.) kutsadura transferentziak ekiditeko beharra. Hori bakarrik egin daiteke mundu mailako ikuspegi eta aldibereko baten bitartez.
- IV. Kutsadura agente jakinetako isurien gehieneko muga argi eta zehazki ezartzea, ingurumenaren babes-maila altua lortze aldera.
- V. Baimendutako portaeraren baldintzak berrikuspen eta kontrol handietara lotzeko beharra (aldaketa zientifikoak, teknikoak, arau-emaileak, etab.)

8.2. TESTUINGURU ARAUEMAILEA:

EB:

- 1996/61/EB Zuzentaraua, irailaren 24koa: prebentzio eta kontrol bateratuari buruzko lehenengo zuzentaraua 1996n eman zen (indargabetuta).
- 2010/75/EB Zuzentaraua, azaroaren 24koa, isurketa industrialei buruzkoa (kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuak)

Testu bakar batean bateratzen ditu *IPPC* Europako arautegia, horren ondoko eraldaketak eta bai isurien, bai hondakinen erregulazio anitzak (titanio dioxidoa, errausketak, disolbatzaile organikoak, errekuntzako instalazio handiak, etab.)

IPPC: Integrated Pollution Prevention and Control

Espainiako estatua:

- Hiru urteko atzerapenarekin (izan ere, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak zigorra ezarri zuen) erantsi zen Europako araua 16/2002 Legearen bitartez, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuen legearena, makina bat alditan aldatutakoa (indargabetuta). Erregelamendu bidez garatua izan da (lege-erlaketari egokitzuz).
- Indarreko lege-araua da 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuen legearen testu bateratua onartzen duena.
- Indarreko erregelamendua da 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Isuri industrialen eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuen 16/2002 Legearen, uztailaren 1ekoa, garapena onartzen duena.

EAE:

- Estatuko oinarrizko legeria arloari buruz garatzen du (ikus. EIALren 31-48. art.k).

8.3. JARDUERA ESPARRUA ETA ARAU AMANKOMUNAK

Objetua	Zerrenda	Baimen mota	Salbuetsitako instalazioak	Arau erkideak
Industria instalazio finkoak	KPKBTBren I. eranskina (AAEEk heda dezakete)	Ingurumen Baimen Bateratua (IBB)	Instalazioak (edo euren zatiak) <i>produktu berrien edo prozesuen ikerketarako, garapenerako eta esperimentaziorako erabilitakoak</i>	EEJk emandakoak (eskumenak: baimena, inspezioa, kontrola, behin-behineko neurriak eta zehapenak) Epea: 6 hilabete
Publikoak edo pribatuak	EIALren I.A eranskina (Espainiako Estatukoaren bera)			
Atalase jakinak gainditzen dituztenak	EIALren I.B eranskina	Ingurumen Baimen Bakarra [IBB(2)]		Isiltasuna: negatiboa Ingurumen baimen guztietarako arau amankomunak

KPKBTB: Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuaren Testu Bategina

EIAL: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legea

IBB: Ingurumen Baimen Bateratua

IBB(2): Ingurumen Baimen Bakarra

EEJJ: Eusko Jaurlaritza

8.4. ERANSKINEN JARDUERA ESPARRUA (EIAL)

I.A ERANSKINA (IBB): 14 jarduera kategoria, kasu bakoitzean atalaseekin	I.B ERANSKINA [IBB(2)]. I eranskinean ez jasotako jarduerak eta instalazioak
<ol style="list-style-type: none"> 1. Errekuntza instalazioak. 2. Metalen ekoizpena eta transformazioa. 3. Mineralen industria. 4. Industria kimikoak. 5. Hondakinen kudeaketa. 6. Egurretik eratorritako industria. 7. Ehungintza industria. 8. Larruaren industria. 9. Nekazaritzako elikagaien industriak eta abeltzaintzako ustategiak. 10. Disolbatzaile organikoen kontsumoa. 11. Karbonoaren industria. 12. Egurra kontserbatzeko industria. 13. Urak tratatzea. 14. CO₂-a atzitzea. <p>815/2013 ED (I. eranskina): kasuetako bakoitza argitzen du.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Hondakin arriskutsuak tratatzeko baimena behar duten jarduerak edo instalazioak. 2. Hondakin ez arriskutsuak tratatzeko baimena behar dutenak. 3. Baimena behar duten jarduerak edo instalazioak, atmosfera kutsatu dezaketelako. 4. Berotegi efektuko gasak sortzen dituztenak eta isurtzeko baimena behar dutenak. 5. URAREN baimena behar dutenak zuzeneko edo zeharkako 3 motako ur-isuri industrialak egiteagatik edo hondakin-produktuak, likidoak, solidoak edo bestelakoak isurtzeagatik. 6. Arroko organismoaren baimena behar dutenak zuzeneko edo zeharkako 3 motako ur-isuri industrialak egiteagatik edo hondakin-produktuak, likidoak, solidoak edo bestelakoak isurtzeagatik. 7. 7.100.000 biztanle-baliokide baino ahalmen handiagoa duten hondakinen-uren araztegiak. 8. EAEko IOren iritiz, ingurumenean eta pertsonen osasunean antzeko ondorioak eragin ditzaketen beste jarduera batzuk.

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

IO: Ingurumen Organoa

URA: Uraren Euskal Agentzia

8.5. IBB eta IBB (2)ren OINARRIZKO EZAUGARRIAK

- I. **IBB**: titulartasun publiko edo pribatuko jarduera eta instalazioak ustiatzea, horietan EIALren I.A eranskinean jasotako jardueraren bat gertatzen bada (ikus. EIALren 31.1 art.).
- II. **IBB(2)**: titulartasun publiko edo pribatuko jarduera eta instalazioak ustiatzea, horietan EIALren I.B eranskinean jasotako jardueraren bat gertatzen bada (ikus. EIALren 32.1 art.).
- III. **IBB-IBB(2)** instalazioak eraiki, muntatu edota lekualdatu baino lehen eskuratu beharreko alde zuzeneko baimena da (ikus. EIALren 31.1 eta 32.1 art.k).

IBB-IBB(2) eskuratzeko araugintza espezifikoa dago:

- Legearen aurretiko instalazioetarako (IBB: 2007. urtera arte, EEJAren zigorra; IBB(2): EIAL: 2027).
 - Instalazioaren aldaketak (dela funtsezkoak, dela ez funtsezkoak; ikus. EIALren 30. art.) gertatzeagatik..
- IV. **IBB-IBB(2)** instalazioaren titularrarentzat bada aldeko egintza (ingurumen ikuspegitik ahalbidetzen da instalazioa funtzionatzea) eta, era berean, zama edo muga (betebeharrak ezartzen dizkio: datuen komunikazioa eta informazioa; batez ere, isurketei buruzkoa, inspekziotan nahiz kontrolatan lankidetzan jardutea, etab.).
 - V. **IBB-IBB(2)** hirugarrenentzat igorgarria da (eskualdatutako instalazioarekin batera): baina hori nahitaez jakinarazi behar zaio eman zuen organo eskudunari.
 - VI. **IBB-IBB(2)**k indarraldi zehaztugabea dauka (EIAL: IBBentzako 4 urteko aldizkako berrikuspena ezartzen du).

Halere, ofizioz berrikusi daiteke zenbait inguruabar elkartzen badira (teknika erabilgarrietan aldaketak badaude, sortutako kutsaduran, arroko organismoaren txostena, ingurumen kalitatearen arau berriak, funtzionamenduaren segurtasuna, etab.). Berrikuspenak ez du kalteordainerako eskubiderik ematen.
 - VII. Legeak betebeharrak ezartzen dizkio **IBB**ren titularrari (horren baldintzak betetzea, informazioa ematea, aldaketen komunikazioa, gertakarien informazioa, etab.), baita jarduerak behin betiko bertan behera uzten direnean ere (lurzoru egoeraren eta lurpeko uren ebaluazioa, deskontaminazio neurriak, etab.). IBB(2)rako neurri nahiko antzekoak.
 - VIII. **EIAL**: IBB-IBB(2) ematea baldintzatu dezake fidantza, abal edo aseguru baten bermeari, ingurumen kalteei aurre egiteko (murriztu daitezke, baldin eta IE badu). *IE: Ingurumen Ebaluazioa*

8.6. IBB eta IBB (2)ren EDUKIA

IBB-IBB(2)ren helburuetako bat da: parte hartu behar duten HHAA guztien koordinazioa bermatzeko administrazio-prozedura bakarra ezartzea, izapideak bizkortuz eta administrazio-zamak murriztuz. Hain zuzen ere, egintza bakar batean batu behar ditu (prozeduran txosten hutsetan bihurtuz) existitzen diren baimen guztiak honako gaien inguruan (ikus. EIALren 31.2 eta 32.2 art.k):

- A. Hondakinak ekoiztea eta kudeatzea (udal hondakinen eta arriskutsuen errausketa barne eta, hala badagokio, hondakinen isurketa).
- B. Isuriak jabari publiko hidraulikora (kolektorera edo saneamendu sistema bateratura barne).
- C. Itsasoko eta lehorreko jabari publikora eginiko isuriak.
- D. Atmosferara eginiko isurpenak (konposatu organiko lurrunkorrei dagozkienak barne)

Isurpenen mugako balioak ezarriko dira, aplikatu daitezkeen arloko araudiak xedaturikoaren arabera (eskuragarri dauden teknika onenetan oinarrituta).

IBB-IBB(2) emateak ez du esan nahi beste baimen edo emakida batzuk eskuratu behar ez direnik jabaria publikoa okupatzeko edo erabiltzeko, aplikatu beharreko uren eta kosten araudian eta gainerako araudian ezarritakoarekin bat etorrira (EIALren 31.3 eta 32.3 art.k).

8.7. IBB eta IBB (2)aren HARREMANA BESTE BAIMEN BATZUEKIN

IBB-IBB(2)k ez ditu barne hartzen:

- Industriako baimen substantiboak (industria, elektrizitate, hidrokarburo eta herri segurtasuneko [lehergailuak] legerian barne hartutakoak). IBB-IBB(2) aldez aurrekoa da.
- Jabari publiko hidraulikoaren nahiz itsasoko eta lehorrekoaren “okupazio” baimenak eta emakidak (isurketakoak salbu).

EIAL: edozein motatako jabari publikoari buruz ari da.

Udal jarduera lizentziarekin harremana:

- KPKBTBL: IBB aldez aurrekoa da eta udalarentzat loteslea da jarduerari uko egitea berekin ekartzen duenean, edo neurri zuzentzaileen ezarpenari dagokionez. AAEEK lizentzia hori euren legeriako IBBn sar lezakete (hautazkoa).

EIAL: IBB-IBB(2)k ordezkatzen dute jarduera sailkatuaren udal lizentzia, eta azken hori ez da eskatu behar.

IBB-IBB(2)ren eta IIEren arteko harremana:

- AAEEK arautu dezakete IIEren prozedura gehitzea IBB-IBB(2) lortzeko prozeduran.
EIALk ez du egin, nahiz eta izapide batzuk bat-batekoak izan.
- IO Espainiako Estatua bada, IIA beti izango da loteslea eta AAEE batek emandako IBB-IBB(2)ren aldez aurrekoa (horren edukia nahitaez jaso beharko du).

8.8. IBB-IBB(2) ESKURATZEKO PROZEDURA

1. Eskaeraren aurkezpena:

- Udalaren aldez aurreko hirigintza-bateragarritasun txostena: hiri plangintzarekin bateragarritasuna (30 eguneko epea, ikus. EIALren 33.1 art.). Ezezkoa balitz: EAeko IOk IBB-IBB(2)ri uko egitea (ikus. EIALren 33.2 art.).
- Proiektu teknikoa: edukia (ikus. EIALren 34.1 art.).
- Laburpen ez teknikoa (ikus. EIALren 34.2 art.).
- Bestelako elementuak (22/1998 Kosten Legea, uztailearen 28koa; 1/2001 Legegintzazko ED, Uztailearen 20koa, Uren Legearen Testu Bategina onartzen duena; IIAz, etab.).

2. Zuzentzea:

- Eskera ez baditu eskatutako betebeharrak betetzen, interesdunari 15 eguneko epea emango zaio zuzentzeko. Hori egin ezean, ulertuko da atzera egin duela (ikus. EIALren 35. art.).

3. Informazio publikoa:

- EHAOn eta EEJJko egoitza elektronikoan iragarri (ikus. EIALren 36.1 art.).
- Gutxienez, 30 eguneko epea (EIALren 36.1 art.).
- Gainerako prozedurekin erkidea (funtsezko baimen prozedurekin, IIErekin, etab. Ikus EIALren 36.2 art.).

4. Espedientea eta alegazioak bidali euren eskumena aztertu eta horri buruz erabaki behar duten organoei:

- Txostenak (lotesleak KPKBTBLk edo legedi sektorialak hala esaten badu. EIAL: nahitaezko osasun-txosten loteslea; ikus. EIALren 39.1 art.).
- EAeko IOk eskatuta, mugarteko udalerrien nahitaezko txostena (30 egun. Ikus. EIALren 37.2 art.). Alegazioak jasotzen badira, udal-txostena eta beste hilabete bateko epe luzapena (ikus. EIALren 37.3 art.).

- Isurien arloko erakunde eskudunaren nahitaezko txosten loteslea jabari publiko hidraulikora edo itsasoko eta lehorreko jabari publikora isuriak egiteko. Gehienezko epea: 6 hilabete; EIAL: 4 hilabete (ikus. EIALren 38.1 art.); 3 hilabete isurketa kolektorera bada (ikus. EIALren 38.2 art.).
 - Txostenak aurkaratzea IBB-IBB(2)ren ebazpenaren kontrako errekurtsioan.
5. **IOk ebazpen-proposamena egin eta eskatzaileari entzutea** (15 eguneko epea. Ikus EIALren 40.1 art.). Entzunaldi-izapidean alegazioak egiten badira, balizko txostenen fase berria (15 eguneko epea. Ikus. EIALren 40.2 art.).
 6. **Amaiera** (6 hilabeteko epean, gehienez): IBB-IBB(2)ren ebazpen irmoa (ukatzen bada: arrazoitua). Isiltasun negatiboa (ikus. EIALren 41.2 eta 41.3 art.k). Jakinarazpena eta egoitza elektronikoan argitaratzea [IBB, oso-osorik EHAOn eta EAEko IOn; IBB(2) EAEko IOn. Ikus. EIALren 41.4 art.).
 7. **Jarduera hasteko: AAEko IOri eta udalari AAK aurkezteko betebeharra** (ikus. EIALren 48.1 art.). Teknikari eskudunak sinatutako ziurtagiri bat aurkezteko betebeharra (ikus. EIALren 48.3 art.).

8.9. IBB-IBB(2)ren edukia EIALn

Amankomuna IIB-IBB(2)rentzako (ikus. EIALren 43.1 art.)	Berariazkoa IIBrentzako (ikus. EIALren 42.1 art.)
1. <u>Isurpenen Mugako Balioak</u> (IMB) kutsatzaileenak eta lurzorua zein lurpeko urak babesteko aginduak.	1. <u>IMB osatzen edo ordezkutzen duten parametro edo neurri tekniko baliokideak (eskuragarri dauden teknikarik onenak ere bai)</u>
2. <u>Hondakinak kudeatzeko prozedurak eta metodoak</u> (kontuan hartuta horren kudeaketarako hierarkia: prebentzioa-prestaketa berrerabiltzeko- birziklatzeko- beste motatako balorizaziorako, energetikoa- ezabapena barne)	2. <u>Ixten bada (6): lurzoru eta lurpeko uren hasierako egoeraren deskribapena</u>
3. Hala badagokio, erkidego arteko edo mugaz gaindiko <u>kutsadura minimizatze</u> ko aginduak	3. Gutxienez, <u>urtebetean behin</u> honako hauek <u>jakinarazteko betebeharra: isurpenen kontrolen emaitzak eta baldin badaude eskuragarri dauden teknikarik onenei lotuta gainditzen duten IMB, konparazioa ahalbidetzen duen emaitzen laburpena.</u>
4. <u>Isurpenak eta hondakinak tratatzeko eta kontrolatzeko sistemak eta prozedurak</u> (neurketa-metodologia, maiztasuna eta neurketak ebaluatzeko prozedurak zehaztuta)	4. <u>Aldizkako gainbegiratzeko betekizun handiagoak</u> , lurzorura eta lurpeko uretara isurpenak ekiditeko
5. <u>Ohiz kanpoko egoeretako ustiapen-baldintzei buruzko neurriak</u> : abian jartzea eta geratzea, ihesak, funtzionamendu-akatsak eta aldi baterako geldialdiak.	5. <u>IMBen betepena ebaluatze</u> ko baldintzak
6. <u>Instalazioaren itxiera egiteko baldintzak</u> , lurzoruaren eta lurpeko uren abiapuntuko egoeraren deskribapena barne.	6. <u>Zatitako instalazioak badaude: titular bakoitzaren erantzukizuna</u>
7. <u>Legedi sektorialak ezarritako zeinahi neurri edo baldintza</u> , edota EAEko IOk motibatuta hartutakoa	

***IBB-IBB(2)ren edukia: substantzia kutsatzaileen IMB**

IBB-IBB(2)k eduki behar ditu, besteak beste, substantzia kutsatzaile jakinen IMB; hain zuzen ere, eskuragarri dauden teknikarik onenak izenekoan arabera.

1. Substantzia kutsatzaileak:

- a) KPKBTBLren II. eranskinean adierazitako substantzien zerrenda dira. Atmosfera eta uraren arteko aldea.
- b) Bestelako substantzia kutsatzaileentzako IMBk ere ezar daitezke (AG: ezin dira araudian ez jasotako mugarik jarri).
- c) Ez dira barne hartzen: ez substantzia erradioaktiboak, ez genetikoki eraldatutako organismoak.
- d) IMBk aplikatzen dira isurpenak instalaziotik ateratzen diren lekuan, eta horren zehaztapenean ez da kontuan hartuko balizko diluzioa.
- e) Erregelamenduan (815/2013 EDn) berariaz ezartzen dira IMBk hurrengoetarako:
 - Errausketa edo baterako errausketa instalazioetarako.
 - Errekuntza instalazio handietarako.
 - Titanio dioxidoa sortzen duten instalazioetarako.

2. Isurpenei buruz informazioa bidaltzeko betebeharra:

- Europako/Espainiako/Euskadiko Isurpenen eta kutsatzaileen transferentzien Erregistroa (*E-PRTR*):
 - 166/2006 EBko Erregelamendua, urtarrilaren 18koa, *PRTR* erregistroa informazioa hornitzeari buruzkoa.
 - 508/2007 ED, apirilaren 20koa, *E-PRTR* Erregelamenduaren isurpenei eta ingurumen baimen bateratuei buruzko informazioaren hornidura arautzen duena.
- IIBren menpeko instalazioei erasaten die, baita beste batzuei ere.
- Substantzien zerrenda adierazten da.

E-PRTR: European Pollutants Release and Transfer Register

IMB eta eskuragarri dauden teknikarik onenak

3. IMBk finkatzeko irizpideak:

- a) IMBren kontzeptua: berariazko parametro jakinekin lotuta adierazten den masa edo energia, kontzentrazio edo isurpen baten maila, eta balio hori ezin izango da gainditu zehaztutako denboraldi batean edo askotarikoetan (KPKBLTBren 3.28 art.).
- b) Indarreko legeriak ezarritakoa (Espainiako Estatukoa edo AAEEetakoa): beti betebeharrekoa da (behin-behineko salbuespenak izan ezik).
- c) Europako Batzordeak eskuragarri dauden teknikarik onenei buruzko erreferentziako dokumentuetan (BREF deitutakoak) ezarritako ondorioetan finkatutakoak (BATC izenekoak). Horiek eztabaida-leku batean lantzen dute (Europako Batzordeak antolatutakoa, Estatuaren, Industriaren eta ingurumen GKEen parte hartzearekin). Ez dira arau juridiko lotesleak. Eskuragarri dauden teknikarik onenaren kontzeptua: “baldintza ekonomiko eta tekniko bideragarrietan...betiere titularrak horietara sarbidea izan ahal badu arrazoizko baldintzetan”).
- d) KPKBLTBk arautzen du arestian aipatutako muga arinagoak jartzeko aukera (kokapen geografikoagatik, instalazioaren ezaugarriengatik, etab.), baldin eta kostuak neurrigabeak badira ingurumen onurarekin konparatuz.
- e) Behin-behineko salbuespenak ere balia daitezke frogei eta goraka ari diren teknologiei dagokienez.

IBB-IBB(2)ren gainbegiratzea eta kontrola

AAEEn kontrola eta ikuskaritza (ikus. KBKBLTBren 30.1 art.): ikuskaritza arloko organo eskudunak bestelako erakundeak izendatzeko aukera, funtzionario publikoei ez erreserbatutako egintza materialak egiteko.

815/2013 EDk alde horietako zenbaitosatzen ditu:

- Ikuskatzaileek aholkulari teknikoekin batera joan daitezke (kontsultarako eginkizuna).
- Instalazio guztiak bermatu behar dituzte ingurumen ikuskaritzaren plan batek.
- Ingurumen ikuskaritzaren programa horiek ikustaldiaren maiztasuna ezarriko dute instalazioen arabera (jarduera hasi eta urtebeteko epean. Gero, urtero arriskuak handiagoak badira, eta 3 urtero arriskuak txikiagoak badira).
- Enpresaren ordezkariak akta sinatzeak ez du esan nahi horretan islatutako egitateak onartzen dituenik (aurkaritza idatziz jaso dezake).

Administrazio zehapen katalogoa: arau-hauste oso larriak, larriak eta arinak (ikus. KPKBLTBren 31. art.).
Administrazio zehapenak (ikus. KPKBLTBren 32. art.), behin-behineko izaerako neurriak (ikus. KPKBLTBren 35. art.) eta aurreko egoerara lehengoratzeko betebeharra (ikus. KPKBLTBren 35. eta 36. art.k).

EIAL: IBB-IBB(2) ikuskaritza eta zehapen arauen aplikazio orokorra.

9.gaia. EKOAUDITORIA ETA EKOETIKETA

9.1. SARRERA

Europar Batasuneko ingurumen politika: ingurumenaren babeserako instrumentuen dibertsifikazio eta enpresa autorregulazio teknikak.

Ingurumenaren babeserako teknikarik egokienei buruzko eztabaida.

Sailkatzeko irizpide nagusia: “Estatuko konponbideak” vs. “merkatuko konponbideak”:

- Estatuko konponbideak hartzen ditu esku-hartze publikorako teknika klasikoak (adib., arauketa, planifikazio, baimena, ikuskaritza, ez-betetzen errepresio eta administrazio mehatxuaren ezaugarria partekatzen duten beste batzuk).
- Korrante ideologiko boteretsuak bultzatzen dituzte merkatuko konponbide berriak.

Globalizazioaren testuingurua: ez bakarrik Ingurumen Zuzenbidean, baizik eta Zuzenbidean bere osotasunean izan diren eraldaketa berrietan.

Estatu sozialari salaketa neoliberalak: pribatizazio ekonomiko eta juridikorako joera.

- Ingurumen Zuzenbidea ere ailegatu dira liberalizazio, desarautu, autorregulazio eta pribatizazio bestelako formak.
- ELGE (Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Elkartea): ingurumenaren babeserako “tresna ekonomikoak” jarraibideak, borondatea gailentzea oinarri.

EB: egun, ez du esku-hartzeko instrumentu zaharrei uko egin nahi, eta borondatezko mekanismo berriek rol osagarria jokatzen dute (eta ez ordezkoa; adib., EBko Ingurumen Egintzaren Programak). Beraz, eredu baten eta bestearen elementuak nahastuta aurki daitezke.

- Ikuspuntu juridikotik, merkatuko konponbide berriak beti izango dira ingurumen poliziako teknika klasikoak osagarria.
- EBko hainbat dokumentu aitortzen dituzte legeek ezarritako betebeharren betepenez haratagoko borondatezko ahaleginak.

Espainiako Estatuan beste horrenbeste:

- Ingurumena babestea (eta iraunkortasuna), lehenik eta bat, funtzio publikoa da (ikus. EKren 45.2 art.).
- Horrek ez du galarazten merkatuko mekanismoak aplikatzea, baina bermatzen du horiek izaera publikoko tekniken osagarriak, eta ez ordezkokoak, izan behar direla.
- Arriskua: ingurumen administrazio sendo baten babesik gabe, instrumentu horiek aplikatuko lirateke propaganda helburuekin, baina ingurumen eragingarritasun eskasarekin (Nogueira López, A., 2000).

Autore batzuen aburuz, merkatuko instrumentutzat ulertzen dira faktore ekonomikoak lotutako portaera aldatetarako eragiten dituztenak (adib., ingurumen zerga-sistema). Beste batzuen ustez, garrantzitsuena da administrazioaren aldebakarreko mehatxutik kanpoko instrumentuak izatea.

Oinarria: borondatezko onarpena garatutako mekanismo gehien-gehienetan.

- Ekoikuskaritza eta ekotxartela (irismen orokorra, eta ez sektoriala).

9.2. EKOIKUSKARITZA. Sarrera

Testuinguru boluntariotik abiatuta, ingurumen-ikuskaritza sistemak ingurumen-politikari bestelako orientazio bat eman nahi dio.

Interes bikoitza:


- Operadore ekonomikoen interesekoa da ingurumena errespetatzeko onartutako praktikak ezagutzea.
- HHAek ingurumen-erantzukizun handiagoa eskatzen diete kontratu publikoetan lehiatu nahi dutenei (ikus. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa).

Ekoikuskaritzaren kontzeptua:

Definizioa:

- Ingurumen babeserako teknika bat da, “merkatuko mekanismoen” baitan sartzen dena, eta enpresa autorregulazio formuletan inspiratzen dena.
- Jarduera ekonomikoen (industrien eta erakundeen) eta ingurumen-kudeaketarako sistemaren aldizkako ebaluazio boluntario, sistematiko eta objektiboko prozesua, baita ingurumen errekerimenduen betepenari buruz ere.

Sistemak:



Ekoikuskaritzaren sorrera eta eboluzioa:

Araututako (publikoa) autorregulazioa (pribatua):

“Estatuko konponbideen” ustezko eragingarritasunik eza larriagotzen du arautu nahi diren sektoreen zailtasun teknologikoak (Esteve Pardo, J.).

- Sektore pribatuaren parte hartzea eta kolaborazioa: partekatutako erantzukizuna edo erantzukidetasuna (Mora Ruiz, M., 2007). Asmoa ez da protekzionismoa, ezpada esku-hartze publikoa saihestea eta legeria ez gogortzea.
 - Autorregulazio formula eraginkorrak: eremu pribatuan garatu, baina nolabaiteko eragin publikoak izan ditzaketenak (adib., indiziarioak, presuntziozkoak, integratzaileak, baita ordeztzaileak ere).
 - Ulergarria da erakunde publikoek autorregulazio horren objektibotasuna eta zehaztasuna bermatzeko baldintzak ezartzea (Darnaculleta i Gardella, M. M., 2006).

Autorregulazio hutsa: normalizazio teknikoari lotzen zaio.

- Jatorri pribatuko berariazko erreferentziak: berezitasunak ohiko Zuzenbideko iturrirei dagokienez.
- “Arau tekniko” horiek EZ dira arau juridikoak. Izan ere, subjektu pribatuek burututako “normalizazio industrialaren” ondorio dira.
- Arau tekniko horietaz baliatuta, enpresa pribatuek adosten dituzte produktuen diseinuan eta ekoizpen prozesuan erabiliko diren espezifikazioak (adib., DIN A4).

Borondatezko izaera: ez da nahitaez ezartzen, baina abantaila praktikoak eskaintzen dizkie egikaritzen dituzten fabrikatzaileei. Horregatik, normalizazio teknikoaren fenomenoak hedadura aipagarria izan du.

UNE (Una Norma Española) Espainiako Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak izendatutako organismoa da eta AENORreko (Asociación Española de Normalización y Certificación) Normalizazio Batzorde Teknikoak onartutako arau teknikoak identifikatzen ditu (EN siglak, Normalizaziorako Europako Batzordeak onartutako arau teknikoak identifikatzen ditu, eta ISO Normalizaziorako Nazioarteko Erakundeak onartutako arau

teknikoak; adib. UNE-EN-ISO 14001:2015 ingurumen kudeaketa sistema, baliozkotze eta erregistro fase publikorik ez).

9.3. EKOIKUSKARITZAREN NORMALIZAZIO TEKNIKOA ETA INDUSTRIA EGIAZTAPENA

Araudi teknikoak (benetako arau juridikoak, industria segurtasuna) vs. arau teknikoak (ez dira arau juridikoak, industria kalitatea).

- Araudi eta arau teknikoen betepena frogatzeko: “homologazio” eginkizunak (HHAak, kontrol erakundeak) eta “ziurtapenak” (subjektu pribatuak, ziurtapen erakundeak).
- Bi horien artean, ingurumen egiaztatzaileak.

Europako ikuspegi berria, pribatizaziorako joera: homologazioa baztertzea ziurtapenaren mesedetan.

- Subjektu pribatuek baldintza batzuk bete beharko dituzte eta ikuskaritza izango dute bai jarduera horiek bideratzeko alde aurreko kontrolean, bai egindako ziurtapenen zehaztasunari buruzko kontrol jarraituan. Bi kontrol horiek esleituko zaizkie akreditazio erakundeei

9.4. INGURUMEN KUDEAKETA ETA IKUSKARITZA EUROPAKO SISTEMA (EMAS)

9.4.1. AURREKARIAK ETA EBOLUZIOA

Aurrekariak: kontabilitate ikuskaritzan (enpresa baten egoera ekonomikoa egiatan ezagutzeko).

- Emaizta onuragarria bada: enpresa horren estatusa hobetzen da (adib., bezeroentzat, inbertitzaileentzat, aseguru-etxeentzat, bankuentzat...).

Ingurumen aktiboa eta pasiboa; horretarako, enpresaren kudeaketan integratzen da ingurumen ikuskaritza.

Hasieran, sistema pribatuak ziren. Ondoren, aintzatespen publikoak sortu (hasieran, bakarrik Estatu mailakoak

9.4.2. ARAUTEGIA

Europar Batasunean:

- 1221/2009/EB Erregelamendua, azaroaren 25ekoa, erakundeen borondatezko parte hartzeari buruzkoa Europako Ingurumen Kudeaketa eta Ikuskaritza sisteman, eta 761/2001/EB Erregelamendua eta 2001/681/EB eta 2006/193/EB erabakiak indargabetzen dituena (REMAS).
- Europako Batzordearen erabakiak; adib., 2013/131/EB, martxoaren 4koa (REMASen arabera, EMASen parte hartzeko erabiltzaileen gida), 2007/747/EB, azaroaren 19koa; eta 2017/2285/EB, abenduaren 6koa.

Espainiako Estatuan:

- 239/2013 Errege Dekretua, apirilaren 5koa.

EAEen:

- EIAL (Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legea (10/2021 legea, abenduaren 9koa) (ikus. 81. art.).

9.4.2.1. REMAS-REN BERRIKUNTZAK

EMAS sistemaren hasierako egitura mantentzen du.

- Aplikazio esparrua handiagotu eta zenbait aspektu tekniko hobetzea ekarri du.
- Ez zuen ematen 2001eko eraldaketak barne araudiaren berregokitzerik behar zuenik.

Eskubide arauemaileen zentralizazioa (EBn), eta betearazpen eskubide hutsen deszentralizazioa (Estatu kideetan eta AAEEetan).

REMASek beren-beregi galdatzen du Estatu kideek ordura arte erabilitako prozedurak egokitzeko betebeharra.

Bi **helburu** nagusi:

1. Sinesgarritasuneko sistema bakarra sortzea eta nazio bakoitzak sistema desberdinak ezartzea ekiditea.
Bateragarritasun (adib., *UNE-EN ISO 14001:2015* sistemekin, zeinak ez duten egiaztapen eta erregistro fase publikoak. Ikus. *REMAS*ren II. eranskina, A eta B sekzioak) eta baliokidetasun (ikus. *REMAS*ren 45. art.) mekanismo bikoitza indartzen du.
2. *EMAS* sisteman parte hartzea areagotzea: funtsezkoa da erakunde parte hartzaileen kopurua ugartzea

REMASren aplikazio esparrua

EMAS ingurumen ikuskaritza sistema borondatezkoa da.

- Hasieran, bakarrik parte hartu ahal zuten industria sektoreko enpresak. Gero, “erakundeen” atxikimendua ere bai (ez bakarrik sektore pribatukoak, baita sektore publikokoak ere). Egun, “erkidegoaz kanpokoak ere” (atzerriko erakundeak edo hirugarren herrietan zentroak dituzten erakundeak, ikus. *REMAS*ren 1. art.), “nortasun juridikoa izan edo ez” (ikus. *REMAS*ren 2.21 art.).
- Sisteman parte hartzea enpresa abantailak ekarriko ditu (lehiakortasun eta marketin faktoreak):

Ingurumen kalitatezko bereizgarria erabiltzeko eskubidea emango du (ikus. *REMAS*ren V. eranskina). Erakargarritasuna hobetzen du eta erabiltzeko murrizketak ezabatzen ditu, salbu eta produktuarekin eta ontziratzearekin lotutakoak (ikus. *REMAS*ren 10. art.).

- Horretarako, enpresaren kudeaketa prozesuei (#produktuei) buruzko betekizunak bete beharko dituzte.
- Ingurumen ikuskaritza “ekoizpen zentro” bakoitzeko ekoeragingarritasunari buruzkoa da (ikus. *REMAS*ren 2.22 art.).

EMAS sistemak bi **fase** ditu:

1. “Barneko fasea”:

Horretan nagusi dira autorregulazio arau teknikoak; hain zuzen ere, horiek gidatzen dute enpresaren ingurumen kudeaketa sistema ezartzea, baita ikuskaritza egitea ere (“erregistroarako prestaketa”, ikus. *REMAS*ren 4. art.).

Enpresaren ingurumen kudeaketa sistemaren barne ikuskaritza. Ingurumen adierazpen batekin amaitzen da (helburuekin eta adierazgailuekin).

2. “Kanpoko fasea” (Europako berrikuntza):

Hori osatzen duten operazioak benetako arau juridikoen menpe geratzen dira: organismo eskudunak (ENACren rolari buruzko gatazkak KAren aurka) ziurtatutako ingurumen egiaztatzaileen akreditazioa (kanpoko, inpartziala eta objektiboa), adierazpenaren baliozkotzea eta erregistroa (publikoa eta sarbide askekoa) organo eskudunetan (AAEE bakoitzak ezarritakoak; EAEn, Ingurumen Sailburuordetza). Atal horiek guztiak ahokutzen ditu.

Izena emateak enpresari eskubidea ematen dio *EMAS*ren logotipoa erabiltzeko (produktuetan ez).

9.4.3. REMASren HONDOKO PARAMETROAK

Enpresaren ingurumen kudeaketa sistema ezartzea:

- Sistema horretara heldu nahi diren erakundeek bete beharko dituzte ez bakarrik indarreko ingurumen legeriak ezarritako betebeharrak orokorrak (“ingurumen arloan aplikagarriak diren lege betekizunak”), ezpada ingurumen babes maila altuagoa lortzeko konpromisoa hartu beharko dutela.

Zuzenean (euren kontrolpean daudenak) edota zeharka (induzitutakoak; adib., enpresaren kontratistak, kontratista-ordeak eta hornitzaileak) ingurumen inpaktu adierazgarria duten aspektuen alde aurreko analisian egin beharko dute (ikus. REMASren I. eranskina).

“Ingurumen kudeaketa sistema” ezarri beharko dute (ikus. REMASren II. eranskina), sektore jakin horretarako ingurumen kudeaketaren praktikarik onenak kontuan hartuta [ikus. REMASren 46.1.a) art.].

- Enpresaren ingurumen politika hartzeko beharra: ingurumen ebaluazio sistematiko objektiboa eta aldizkakoa eta, horren emaitzekin, ingurumen programa (adib., hobetzeko helburu zehatzak, ezarpen eta berrikuspen efektiborako epeak, programari esleitutako baliabide materialak eta giza-baliabideak etab.)

9.4.4. REMASren SISTEMAREN EGITURA

9.4.4.1. Ikuskaritza eta ingurumen adierazpena

Egiaztatzaileen akreditazioa:

- Ingurumen kudeaketaren sistemak hasierako ikuskaritza izan beharko du eta hori errepikatu beharko da, oro har, bitarteko urte bakoitzeko (ikus. REMASren 6. art.) edo, salbuespenez, bi urteko epean, “erakunde txikiak” hala eskatuta (ikus. REMASren 7. art.).

Ikuskatzaile pribatuei (pertsonei edo juridikoei, erakundearen kanpokoei edo barnekoei) esleitzen zaie, malgutasunez (bakarrik eskatzen da lan hori egiteko teknikoki gai izatea. Berriazko betekizunak: heziketa, esperientzia, diziplinartekotasuna, espezializazioa, objektibotasuna eta independentzia).

Ikuskaritza eginkizunen estandarizazioa 2001etik.

Ikuskaritzaren emaitza txosten batean gauzatuko da (hala badagokio, ikuskatzaileak erakundeari luzatuko dio neurri zuzentzaileen plana ere bai).

- Erakundeak uko egin diezaiotke sisteman parte hartzeari (borondatezko izaera), baina jarraitzea erabakitzen badu, ingurumen adierazpena egin beharko du (edukia: helburuak, ingurumen xedeak, adierazgailuak; ikus. REMASren IV. eranskina).
- Zertarako: erakunde baten ingurumen portaera neurtzeko (ikus. REMASren 2.11, 2.12 eta 2.27 art.k).
- Fase hori enpresaburuaren erantzukizunean oinarritzen da.

9.4.4.2. Baliozkotzea eta erregistroa

Ingurumen adierazpena ingurumen egiaztatzaile batek baliozkotzea:

- “Baliozkotzea” da kanpoko egiaztapena; hain zuzen ere, erakunde horretan ingurumen kudeaketa sistema existitzen eta aplikatzen dela. Horrez gain, ingurumen ikuskaritza behar bezala gauzatu dela, eta adierazpenean jasotako informazioa osoa eta fidagarria dela (ikus. REMASren 18. art.).

Sistemak konfiantza maila altuagoa lortu nahi du; horretarako, laguntza publikora jotzen du.

- Hor kokatzen dira “erakunde eskudunak” (erregistro eginkizunak nagusi).

9.4.5. ESKU-HARTZE PUBLIKOA

Ingurumen egiaztatzaileen egiaztapena edo baimena:

- Orain dela gutxi arte, baliozkotze eginkizunak ezin zituen edozein subjektu egin, baizik eta bakarrik egiaztatutakoak egin zezaketela.
- Egun, “egiaztatutako organismoak” eta, gainera, “edozein pertsona fisiko edo juridiko, baita pertsona horien elkarteak ere, egiaztatze eta baliozkotze hori egiteko baimena lortu badute” (ikus. *REMAS*ren 2.20 eta 28.2 art.k).

Hautagaien betekizunak (oro har, ikus. *REMAS*ren 20. art.). Pertsona fisikoentzat eta hirugarren Estatuetan jarduten dutenentzat betekizun gehigarriak ezartzen dira (ikus. *REMAS*ren 21. eta 22. art.k).

- Egiaztapen eginkizuna jarduera ekonomiko bat da, eta subjektu pribatuek egiten duten neurrian euren arteko lehiakortasunaren menpe egongo da.
- Egindako jardueren berriak ekar lezake akreditazioa edo baimena etetea edo ezeztatzea (ikus. *REMAS*ren 23. eta 29. art.k).

9.4.5.1. Ingurumen egiaztatzaile akreditazio eskumen gatazka

Ingurumen egiaztatzaileen akreditazioari buruzko eskumen gatazka:

- Kataluniako Generalitatearen aldeko ingurumen egiaztatzaileen estatutu juridikoari buruzko hainbat itaun:
 - **KAren 33/2005 epaia, otsailaren 17koa.**

Ingurumen kudeaketa eta ikuskaritza Europako sistema (*EMAS*) ezin da industria arloan sartu, baizik eta harreman estuagoa duela ingurumenarekin. Beteazpen funtzioa: partzialki onartu zuen AAEEen burujabetasuna ingurumen egiaztatzaileak akreditatzeko erakundeak izendatzeko.
 - **KAren 20/2014 epaia, otsailaren 10ekoa.**

ENAC (EBko 765/2008 erregelamenduaren 4.1 art. eta 1715/2010 ED, abenduaren 17koa) vs. AAEEen ingurumen egiaztatzaileen akreditazio erakundeak (KA). Eskumenak banatzeko konstituzio irizpideak ez dira aldatzen Espainiako Estatuaren EBean sartzeagatik, ezta Europako arauak aldarrikatzeagatik. Behin-behinekotasun izaera.
 - **KAren 141/2016 epaia, uztailaren 21ekoa.**

EBko Zuzenbidea “beharrezko elementu interpretatzaile” bezala, gatazka ebazteko. Argi dago EBko erregelamenduen helburua ez zela Estatu kideen autonomia erakundea mugatzea egiaztatze agintari edo Estatu mailako baimen agintari bakarra galdatzeko (ENAC), ezta hori nahitaez Estatu zentralak izendatzea ere. Agidanez, ez ziren modu eragingarrian uztartu botere banaketaren barne hurrenkera eta EBren barneko Estatuaren betebeharrak.; horrenbestez, epaiak baliogabetzat jo zituen 239/2013 EDren III. kapituluaren amaierako hirugarren xedapenaren bigarren koma-arte (EKren 149.1.13. art.) eta 11.1 art..

Beste autore batzuen ustez, KAK judizio aurreko eskaera aurkeztu behar zuen EEJAren (Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegia) aurrean (Álvarez García, 2017).

9.4.5.2. “Erakunde eskudunak” izendatzea

Estatu kideek izendatutako Estatu, eskualde edo toki “erakunde eskudunak”.

- Ezaugarriak: independentzia, neutraltasuna eta euren eginkizunak zuzen egiteko beharrezko baliabideak (ikus. *REMAS*ren 11. art.).
- Gaitasunak: ez bakarrik betearazleak, baizik eta barne ordenamenduaren arabera izapidetu beharreko prozedura arau-emaileak (euren erabakiak egokitzeko, errekurso eta erreklamazioei dagozkienak barne, ikus. *REMAS*ren 12. art.).
- Organismo horiek badute prozedurak egiteko betebeharra interesdunen behaketak aztertzeko, eta inskripzioen etetea edo ezeztatzea ondorioztatu dezakete.

Prozedurek izan beharreko berme amankomunak: prozeduren koherentzia. “Erakunde eskudunen foroak” egindako gidalerroak eta “bitariko ebaluazio” mekanismoa (ikus. *REMAS*ren 16. eta 17. art.k, hurrenez hurren).

“Erakunde eskudunak”:

Espainiako Estatuan: Estatu zentralak Ingurumen Ministerioa izendatu zuen, subsidiarioki (1996); gero, Estatu Ingurumen Idazkaritza, hirugarren Estatuetan kokatutako guneen erakundeak erregistratzeko (2013).

Gainerako kasu guztietan: AAEEak eta hiri autonomoak eskudunak izango dira dagozkien “erakunde eskudunak” izendatzeko.

Epea: sei hilabete. Kasuan-kasuko lankidetzak hitzarmenen bitartez, aukera ematen zitzaizkien hainbat lurraldetan aritzeko organo baten izendapena egiteko.

- Estatu edo AAEEetako araugintzak izendatutako erakunde eskudunak EAO (Estatuko Administrazio Orokorra)ean kokatutakoak dira eta, beraz, euren jarduerak Administrazio Zuzenbidearen guztiz menpekoa izango da (administrazio publikoaren eta administrazio prozedura erkidearen erregimen juridikoko arau orokorrak; ikus. 239/2013 EDko lehenengo XG (Xedapen Gehigarria), eta igorpena APAPPEL eta 40/2015 legeetara).

*APAPPEL: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazioari buruzko Prozedura Erkidearena

Helburu bikoitza:

- Bermatzea ez zaiola inolako erakunde bati galarazten *EMAS*en erregistratzeko aukera; hain zuzen ere, dagokion lurraldean izendatutako erakunde eskuduna ez izateagatik.
- Erakundeetara eurei eta kontsumitzaileei kalterik ez egitea (horiek saihestea).

Betebeharrak:

- *EMAS*ren erregistroa eramatea eta prozeduren izapidetza.
- Hilabetero erregistratutako erakunde aldaketak Ministerioari bidaltzea, horiek, era berean, Europako Batzordeari jakinarazteko.
- Estatu Idazkaritzaren bitartez, erakunde eskudunen foroak antolatutako bitariko ebaluazioetan parte hartzea.

9.4.5.3. Erregistro prozedurak

Erakunde eskudunak “Interneteko webgune batean jendaurrean jarriko den” erregistro bat ezarri eta mantenduko dute (ikus. *REMAS*ren 12.2 art.).

Erakunde interesdunek hala eskatuta, bertan inskribatuko dira ingurumen adierazpena baliozkotu duten zentroak, betiere alde zuzenetik ezarritako tasak ordaindu badituzte, hala badagokio.

Ekotxartelan ez bezala, ez dira kopuruak ezartzen, ezpada tasa horiek ezartzeko irizpideak finkatzen direla “arrazoizko zenbatekoa” ez gaitzeko eta “erakundearen tamainaren eta egin beharreko eginkizunaren arabera proportzionalak” izateko (ikus. *REMAS*ren 39.1 art.).

- Espainiako Estatuan hautatu da ordainarazpen horiek ez galdatzea

Dena behar bezala badago, organismoak erakundeari emango dio bere erregistro zenbakia eta *EMAS* logotipoa (ikus. *REMAS*ren 13. art.).

- Gerta daiteke inskripzioa motibatuta ukatzea ez bakarrik arestian aipatutako betekizunak errespetatu ez ezik, ingurumen Administrazio orokorraren aurkako txostena merezi duenean ere.
- Ezezkoa emateko arrazoi autonomoa da gainbegiratze txosten batek frogatzea ingurumen egiaztatzailearen jarduerak ez direla behar bezala egin (ikus. *REMAS*ren 13.5 art.).

Prozedurari berari dagokionez, beren-beregi bakarrik aipatzen da konpontzeko izapidea (ikus. *REMAS*ren 9.1 art.) eta ohartzen da “hiru hilabeteko gehieneko epea igarota berriazko ebazpenik jakinarazi gabe, ulertuko da inskripzioa onartu dela” (ikus. *REMAS*ren 9.2 art.).

KAREN 141/2016 epaiak adierazi du arau horiek ez dutela eskumenen konstituzio ordena urratzen, baldin eta interpretatzen bada Estatuaren Administrazioak izapidetzen dituen prozedurei aplikatzen zaiela.

AAEEK berezkoak direnak arautu behar dituzte (239/2013 EDren 9.4 art.).

Laburbilduz, bai erregistrorako, bai berriztatzeko, eteteko eta bertan behera uzteko beharrezkoa da ohiko administrazio prozedura.

- Eskuratu beharko dira derrigorrezko txostenak eta, horien artean, administrazio eskudunek egindakoak egiaztatzeko gutxieneko “lege betekizunak” betetzen direla.
- Ezin da bakarrik alde bikoa izan; izan ere, hirugarrenen parte hartzea bermatu beharko du “hirugarren alderdiek egindako behaketak kontuan hartzeko betebeharra” bete nahi ez bada (ikus. *REMAS*ren 12.1 art.) edo horien “erreklamazioak” [ikus. *REMAS*ren 13.2.d) art.].
- Prozedura nahitaez bukatu beharko da berriazko ebazpen baten bitartez, isiltasun positiboa argudiatzea ekiditeko eta horrek arauketa erkidean sortzen dituen zalantzak direla eta, nahiz eta erregelamenduak horretarako eperik ez ezarri (ikus. APAPELren 24.1 art.).
- Ebazpenak eskatutako inskripzioa egiten duenean, administrazio egintzaren izaera juridikoa izango du eta aurkaratu daiteke, hirugarrenek ere, ohiko errekurtsio bideen bitartez (ikus. *REMAS*ren 12.1.c) art. eta 239/2013 EDren 9.2. art.).

Beste horrenbeste erregistroa ezeztatzeko, eteteko eta bertan behera uzteko.

9.5. ERAGINGARRITASUNA

Inskripzioak eskubidea ematen dio erregistratutako erakundeari logotipoa erabiltzeko.

Halere, zehazten du zein den unea baliozkotutako ingurumen adierazpena dokumentu publikotzat ulertzeko.

Praktikan, adierazpen horien edukia Interneten bitartez zabaltzen bada ere, garrantzia juridikoa dauka herritarren ingurumen informaziorako sarbide eskubidea negatiboki mugatzen duelako; izan ere, ezin izango dute hori egikaritu erakunde pribatuek sortutako barne dokumentazioari dagokionez.

Inskripzioaren berriztatzea: aldizkako berritzearen objektu izan behar da hiru urtero, baina, salbuespenez, maiztasun hori handitu daiteke lau urteetara, baldin eta hori eskatzen badute “erakunde txikiek” (ikus. *REMAS*ren 6, 7 eta 14. art.k).

Erregistroaren ohiko berriztatzeko gutxieneko tarteak, “funtsezko aldaketen” kasuan egun galdatzen den analisi autonomoari kalterik egin gabe (ikus. *REMAS*ren 2.15 eta 8. art.k).

9.6. DIZIPLINA

Balizko ez betetzeen kasuan, erregelamenduak jasotzen duen erantzun bakarra da eteteko aukera edo, hala badagokio, erregistroko inskripzioa bertan behera uztea. Berez, etete eta bertan behera uztea sortzen dira eratorritako ez betetzeetatik.

Ildo horretatik, baliozkotutako adierazpenak aldizka eguneratu beharko dira eta, edonola ere, baliteke dokumentazioak errealtatearekin bat egiteari uztea.

- Erakunde eskudunak prozedura hasiko du eta nahitaezkoa izango da alderdi interesdunei kontsulta egitea.
- Helburua, beharrezkoak diren frogak ekartzea arrazoitutako erabakia hartzeko: enpresari behin-behinean edo behin-betiko logotipoa euren erakunde irudiaz gabetzea (ikus. *REMAS*ren 15. art.).

Egun, alde batera uzten da zehapenei edozein aipamen egitea eta “lege edo administrazio neurri” esamoldea erabiltzen da, orokorragoa (ikus. *REMAS*ren 40.1 art.).

Zehatzago, logotipoaren bidegabeko erabileraren aurka, Estatu kideek “neurri eragingarriak aplikatuko dituzte” (ikus. *REMAS*ren 40.2 art.).

*REMAS*ren ez betetzeak, ikus. 239/2013 EDren 13.1 eta 13.2. art.k.: hainbat legetara igorpenak (besteak beste, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorrera eta bestelako arau osagarrietara, 1/2007 Legegintzazko Errege Dekretuak, azaroaren 16koak, onartutakoa; 3/1991 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Lehiakortasun Desleialari buruzkoa eta, hala badagokio, hori osatzen duten autonomia legeetan; eta 21/1992 Legea, uztailaren 16koa, Industriari buruzkoa, eta aplikagarri zaizkion garapen arauak.

- Azken igorpen horren konstituzionaltasuna berretsi du KAren 141/2016 epaiak, EKren 149.1.23 art.an bermatutako oinarritzko araugintza gisa.

10.gaia. INGURUMEN ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEARI DAGOKION BESTE ESPARRU BATZUK

10.1. ANTOLAMENDU ETA KUDEAKETA PLANAK

- Jatorria: AEB (1872).
- Naturgune babestuak dira legeak bereziki babesten dituenak horien iraunarazpena ziurtatzeko.
- Oinarrizko baldintzak:
 - a. Eremu zehatz eta mugatua izatea.
 - b. Eremu horrek ingurumen edo natura balio esanguratsua edukitzea.
 - c. Bertan egin daitezkeen erabilerak eta jarduerak arautzea.
 - d. Bere izaera berezia beren-beregi jasotzea berariazko aitorten formalaren bitartez.
- Arazoa: bertako jabe eta biztanleen garapena ekonomikoa mugatzea eta turismoaren erakarpena. Horregatik, giza jarduerak non, noiz eta nola egin behar diren mugatu eta arautu behar da planen edo programen bitartez (adib., gidalerroak, prebentzio printzipioa). HHAA eskudunek planifikatuko dute natura-baliabideen erabilera (aldez aurreko koordinazioa).

10.2. TESTUINGURU ARAUEMAILEA

EBean:

- 92/43/EEE Kontseiluaren Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basa fauna eta flora kontserbatzeari buruzkoa (habitat zuzentaraua).
- 2009/147/EEE Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentaraua, 2009ko azaroaren 30ekoa, basa hegaztiak kontserbatzeari buruzkoa (hegaztien zuzentaraua; lehen, 79/409/EEE Zuzentaraua).

Espainiako Estatuan:

- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.

EAEn:

- 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Ondare Naturala kontserbatzeari buruzkoa (lehen, 1/2014 Legegintzazko Errege Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena).

10.3. BABESTURIKO NATURA EREMUAK

10.3.1. Nazioarte mailan

- Nazioarteko garrantzia duten hezeguneak (Ramsar Hitzarmenaren baitan sartutakoak, hain zuzen).
- Mundu Ondareko Natura Tokien Zerrenda (*UNESCO* izendatutakoak).
- Geoparkeak (*UNESCO* izendatutakoak).
- Biosferako erreserbak (*UNESCO* izendatutakoak).
- Erreserba Biogenetikoak (Europako Kontseiluak izendatutakoak) eta bereziki babestutako itsas eremuak.

EAEn honakoak daude: adib., Ramsar zerrendan dauden Hezeguneak (Guardiako aintzirak, Txingudi, Ulibarri-Ganboa, Gesaltza-Añana-Caicedo lakua), Euskal Kostako Geoparkea eta Urdaibaiko Biosferaren Erreserba.

10.3.2. EB mailan

- Natura 2000 Sareko babestutako guneak:
 - a. Hegaztien Babes Bereziko Eremuak (ZEPA). Europako 2009/147/CE Zuzentaraua.
 - b. Kontserbazio Bereziko Eremuak (ZEC). 92/43/EEE Kontseiluaren Zuzentaraua.
 - c. Batasunaren Intereseko Lekuak (LIC).
- ZEPA, ZEC eta LIC eremuak Natura 2000 Europako Sare Ekologikoa osatzen dute.
 - Gune horien izendapena eta kudeaketa AAEEei dagokie, Espainiako Estatuaren eskumenei kalterik egin gabe, Parke Nazionalen mugetan edo itsas ondoan daudenean.

10.3.3. Espainiako Estatuan

- Espainiako 42/2007 Legeak, abenduaren 13koa, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoak Babestutako Natur Gune hauek bereizten ditu:
 - a. Parkeak (Parke Nazionalak eta Parke Naturalak).
 - b. Erreserba Naturalak.
 - c. Babestutako itsas eremuak.
 - d. Natura monumentuak.
 - e. Babestutako paisaiak.
- Espainiako Estatuan 14 Parke Nazional daude, baina EAEn eta Nafarroan ez. Parke Nazionalak Estatu lege baten bidez izendatzen dira eta AAEEek kudeatzen dituzte. Parke Nazionalak ez diren gainerako natura guneak AAEEek izendatzen dituzte, eta Foru Aldundiek kudeatu.
- AAEEk natura gune babes irudi berriak eratu ditzakete.

10.3.4. EAEn

Hiru motatako babestutako natura guneak ezartzen zituen:

- a. Natura Parkeak (adib., Gorbeiaiko Parke Naturala, Pagoetako Parke Naturala, Aralarko Parke Naturala, Aizkorri-Aratzeko Parke Naturala, etab.).
- b. Biotopo babestuak (adib., Guardiako aintzirak, Gaztelugatxe, Deba eta Zumaia arteko itsasertza, Meatzaldea, etab.).
- c. Zuhaitz Apartekoak (26).

EEJJK Dekretu bidez Natura Parke izendapena ematen dio natura gune bati. Horretarako, alde zuzenetik, Natura Baliabideen Antolamendu Plana (PORN) prozedura berezia eratu eta onartu behar da.

Behin gune bat natura-parke izendatuta, Natura Baliabideen Antolamendu Planaren jarraibideekin bat etorritik, Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailea (PRUG) egingo da.

EAEn Natura parkeak, Babestutako Biotopo eta Aparteko Zuhaitzen kudeaketaren eskumena natura guneen arloan Lurralde Historikoko foru organoei dagokie. Foru Aldundiek babestutako natura gune bakoitzean Zuzendari-Kontserbatzaile bat izendatu behar dute arduradun bezala. Natura parkean organo aholkulari kolaboratzaile bat ere egongo da, Patronatoa deritzona.

10.3.4.1. 9/2021 Legearen berrikuntzak

9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Ondare Naturala kontserbatzeari buruzkoa:

- Indarrean: 2022ko apirilaren 11tik.
- Paisaia soinu-duna babestea (ikus. 9/2021 legearen 2.d art.) eta “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioaren birformulazioa (“kutsatzen, hondatzen edo degradatzen duenak ordaintzen eta berrezartzen du”).
- Energia berriztagarrien bitartez energia ekoizteko instalazio berrien bateragarritasuna ondare naturalarekin eta eragin gogorak saihestea (ikus. 9/2021 legearen 9.3 art.).
- Eskumenak: EEJJK, gune babestuak izendatu eta adieraztea, eta natura-baliabideen antolaketa planak onartzea; LLHHK, hainbat guneren kudeaketa eta PRUG onartzea (hala badagokio). Salbuespena: Urdabaiko Biosferaren Erreserba.

- Ondare Naturalaren arloko Koordinazio Batzordea sortzen da.
- Euskal Herriko Ondare Naturalaren inbentarioa sortzen da (ikus. 9/2021 legearen 14. art.), eta hor agertu beharko dira legean aipatutako zerrendak, inbentarioak eta katalogoak.
- Ondare Naturala Kontserbatzeko Euskal Estrategia: EEJk hamar urtetik behin helburuak, ildoak eta egintzak ezarriko ditu.
- Azpiegitura Berdearen Euskal Estrategia: planifikazio eta konektibitate ekologikoa (ikus. 9/2021 legearen 27 eta 28 art.k).
- Uraren Euskal Agentziari agintzen zaio ur sareko oztopoen eraispen plana hastea hiru urteko epean.
- Ondaren naturalaren babestutako guneen kategoriak berrituratzea: babestutako gune naturalak (parke naturalak, erreserba naturalak, monumentu naturalak eta babestutako paisaia naturalak), 2000 Natura Sareko babestutako gune naturalak (ZEPA, ZEC eta LIC) eta nazioarteko tresnak aplikatzean babestutako guneak (Ramsar hezeguneak, UNESCO geoparkeak, Munduko Ondare Zerrendako tokiak eta Europako Kontseiluko erreserba biogenetikoak). Beraz, babestutako biotopoak eta aparteko zuhaitzak (orain, natura monumentuak) hiru kategoria horietara moldatzen dira (ikus. 9/2021 legearen 37. art.).
- Estatuko oinarrizko legeriaren aurka, ez dago argi erreserba naturalak baliabide naturalen antolaketa plana behar dutenik (ikus. 9/2021 legearen 52.3 art.).
- PRUGk parke naturalen kasuan ez ezik, beste gune batzuetan ere egin daitezke.
- Euskal Herriko Ehiza Legea (2/2011 Legea, martxoaren 17koa, Ehizakoa) eraldatzen da balak izateko eta erabiltzeko debekua hedatzea ehizatik kirol tirora. Hori zabaltzen da babestutako gune naturaletako heze eremuetatik eta nazioarteko tresnetan babestutako esparruetatik heze eremuen PTSetara.

10.4. LANDAREAK ETA ANIMALIAK BABESTEA. ESPEZIE BABESTUEN KUDEAKETA.

Fauna eta florako espezie mehatxatuak babesteko zerrendak eta katalogoak egiten dira eta babes mailatan sailkatzen dira, bakoitzaren banaketa geografikoaren arabera.

Araudi guztien eranskinetan zerrendak egiten dira:

- Nazioarte mailan:
 - Hitzarmen garrantzitsuak (adib., CITES, Bonn, Biodibertsitateari buruzko Rio de Janeiro).
- EBn:
 - Basa hegaztiak kontserbatzeko 2009/147/EEE hegaztien zuzentarauak (lehen 79/409) ZEPA habitatak ezartzen ditu, eta 92/43/EEE habitat zuzentarauak, berriz, ekosistema osoak babesteko xedea du, biotopo sare oso bat eratuz ZEC horiekin.
 - EBren intereseko espezieak lau mailatan sailkatzen dira (arriskuan daudenak, zaurgarriak edo kalteberak, bakanak eta endemikoak).
- Espainiako Estatuan:
 - Babes berezian dauden basa espezien zerrenda, mehatxatutako espezien Espainiako katalogoa, eta Espezie inbaditzaileen Katalogoa.
- EAEn:

EAEn Basa eta Itsas Fauna eta Florako Espezie Mehatxatuen EAeko Zerrenda sortzen da administrazio-izaerako erregistro publiko gisa. Bertan animaliak kategorietan sailkatuta egon beharko dute:

- a. “Galzorikoak”: egungo egoeraren faktore eragileak jarraituz gero biziraupen nekeza dutenei mugatuta (adib., ugatza, igaraba)
- b. “Kalteberak”: beraiei edo euren habitatei eragiten dieten aurkako faktoreak berehala zuzenduak ez badira, aurreko kategoriakoak bihurtzeko arriskua dutenentzat (adib., apo lasterkaria, okil ertaina).
- c. “Bakanak”: neurri txikiko populazioa duten espezie edo subespezieak izango dira kategoria horretan; hain zuzen ere, inguru geografiko murriztuetan edo lurralde zabaletan sakabanaturik egonik gaur egun «galzorikoak» edo «kalteberak» ez direnak (adib., hontza handia, lepahoria).

- d. “Interes berezikoak”: aurreko kategorietan ez badaude ere, duten balio zientifiko, ekologiko edo kulturalagatik edota beren apartekotasunagatik arreta berezia zor zaienak har ditzakeen kategoria da (adib., gardatxoa, basakatua).

Behin zerrendatuta, kudeaketa-plana idatzi eta onartuko da espezie horiei erasaten dieten mehatxuak hastantzeko beharrezko jarraibideak eta neurriak, populazioak berreskuratzea, kontserbatzea eta egoki erabiltzea zein horien habitatak babesteko.

10.5. INGURUMEN ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEKO BESTE ESPARRU BATZUK

Genetikoki eraldatutako organismoak:

- 2001/18/EE Zuzentaraua, genetikoki eraldatutako organismoen borondatezko askatzeari buruzkoa.
- 9/2003 Legea, apirilaren 25ekoa, genetikoki eraldatutako organismoen erabilera konfinatua, borondatezko askatze eta komertzializazioa ezartzen duena.
- 178/2004 ED, urtarrilaren 30ekoa, 9/2003 legea, apirilaren 25ekoa, garatzeko eta betetzeko erregelamendu orokorra onartzen duena.
- 452/2019 ED, uztailaren 19koa, 178/2004 ED, urtarrilaren 30ekoa, eraldatzen duena.

Zaratak eragindako kutsadura:

- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zarataka.
- 1513/2005 ED, abenduaren 16koa, 37/2003 legea, azaroaren 17koa, garatzen duena ingurumen zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez.
- 1367/2007 ED, urriaren 19koa, 37/2003 legea, azaroaren 17koa, garatzen duena soinu-zonifikazio, kalitate helburu eta soinu-igorpenei dagokienez.

Ingurumen faktoreei lotutako arriskuak, gizakiak eragindakoak.

